



UDAKO EUSKAL IKASTAROA 1970.eko uztailan sortu zen, Derion. Ia ezer ezetik jaio ondoren, isil-isil eta apalkiro asi da Gorbeia "Pedicularis flavissima" bere ikur lorea bezela.

Laureun ikasle inguru igaro dira sei urte oneetan bertotik.

UDAKO EUSKAL IKASTAROA sortu zen egunetan sortu zen bai eta gure artean eta emen, euskerari buruz, alako naaste-borraste eztabaidatsu ta burrukatsu bat. Udako Ikastaroak ez dau eztabaida orretan parte artzerik nai izan, aurreragoko eta bearrezkoago zen eginbear bat eukalako gogotan, au da, euskaldunen ezjakintasun arrunta ezereztu, ezjakintasun ori izan dalako, gaiñera, naaste, eztabaida ta burrukak andiagotu ta ugaritu dituen.

Baina nondik asi? Zerekin? Zein erakundetatik?

Segurantzazko erakunde bakarra ta bizia bat genduan: Aoz-aozko izketa. Bagenduan baita literaturan agertzen den izkuntza landua ere.

Aozko izketatik izkuntza landu batera eta euskera landu batetik euskera batu batera, ori izan da eta orixe izango da, oraingoz, ikastaro onen jokabidea, euskera batua ez baita guretzat beste izkuntza barri bat, batutik (beti-betitik ia baturik dagonetik) batuago baterantz jotzea baiño.


UDAKO EUSKAL IKASTAROAK bere fruitua dakarsku. Txorta onen asiera Mikel Zarateren buru-lanetatik eta eskutik jatorku, Ikastaro onen asieratik eta urte guztietan bertan irakasle izan danaren ezkutik.

leopoldo zugaza, editor

Euskal deklinabidea

Mikel Zarate

Mikel Zarate. Euskal Deklinabidea



Mikel Zarate Lejarraga

1933.ean jaioa, Lezaman (Bizkaia).
Euskaltzaindikoa. Filosofia ta Letretan
(Erromanika-arloan) lizentziatua.

Derioko Seminario-Ikastetxean euskera
irakasle. Euskera ikasketen arduradun eta
koordinatzaile E. G. B.ko irakasleen Elizako
Eskolan.

Sendoa dogu bere euskal bibliografia:
BIZKAIKO EUSKAL IDAZLEAK (1970),
HAURGINTZA MINETAN (1972),
Euskaltzaindiak antolatuturiko "Txomin
Agirre" saria irabazitakoa, IPUIN ANTZEKO
(1975), IPUIN ANTZEKO ALEGI
MINGOTSAK, Bilboko Aurrezki Kutxak
antolatuturiko "Resurrección María de Azkue"
saria irabazitakoa (1975), laster
argitaratzekotan, INFLUENCIAS DEL
VASCUENCE EN LA LENGUA
CASTELLANA A TRAVES DE UN
ESTUDIO DEL ELEMENTO VASCO EN EL
HABLA COLOQUIAL DEL CHORIERRI
(GRAN BILBAO) (1975). Euskal
Liturji-Batzordea sortu zanez gero (1969),
isileko eta izen gabeko lan asko egin dau
berton, orrezaz gainera. "Zeruko argia"-n,
"Agur-èn eta "Karmel"-en ere ainbat lan
idatzi ditu.

Erri izketa eta goimaillako izkuntza ikasketak
alkartzea izan dau beti bere elburu. Orrela,
errikoitasun landu bat dalarsku bere lan
guztietan eta eskuetan dogun onetan ere bai.
Bere euskerea koloretsua, bizia, gaurkotasunez
josia eta ulerterreza.

10/31

Euskal Biblioteka Labayru



1006299
LINGÜÍSTICA / N. 389

EUSKAL DEKLINABIDEA

serie: Lengua

MIKEL ZARATE

EUSKAL DEKLINABIDEA

(Bizkaieratik baturantz)

UDAKO EUSKAL IKASTAROA
DERIO - BILBAO - 1975



LEOPOLDO ZUGAZA, EDITOR
DURANGO

*"Batasun-bidez abiatzekotan,
nahitaezkoa da, aldez aurretik,
zer batu nahi dugun jakitea;
zein diren euskalkien arteko
bereizkuntzak ezagutzea"*

(L. Mitxelena)

©1975 by MIKEL ZARATE LEJARRAGA

©1975 by LEOPOLDO ZUGAZA, EDITOR
Montevideo, 11 / Durango

ISBN: 84 - 400 - 9212 - 1

Depósito Legal: BI - 3123 - 1975

Azala: José Ignacio Andreu

Irarkola: Gráficas Bilbao
Gordóniz, 28 / Bilbao

IMPRESO EN ESPAÑA

ITZAURREA

Bizkaieraz nator. Bizkaieraz, Bizkaikoa nazalako, bizkaieraz azi ta ezi ninduelako, ondoen ezagutzen dodan euskalkia bizkaiera dalako.

Bizkaieraz nator, bizkaieratik baturantz joteko asmotan edo, obeto esanda, batutik batuagorantz. Izan ere, bizkaiera euskera da, euskera jatorra, betiko euskera osoaren biotzean dagoan euskera. Eta euskera dan ezkeror, euskera batua ere bada, euskeraren sustraian, oiñarrian (edozein euskalkitako euskeraren sustraian, oiñarrian) dagoan euskera batua, betitik baturik dagoan euskera. Eta euskeraren oiñarrian dagoan euskera batu ori ezagutu bear dogu, leenengo ta bein, batutik batuago baterantz joateko, erdi baturik dagoana ere batzeko, batu barik dagoana ere, azkenez, batzeko.

Baiña onexegaitik nator, batez ere, bizkaieraz: bizkaitarrentzat idazten dodalako eta bizkaitarrak ere bizkaieratik baturantz, batutik batuagorantz, euskera osora eroan gura ditudalako. Gure euskeratik euskerara eroan nai ditut bizkaitarrak berez-berez, errez-errez, igarri barik. Derrigorrean, nai ta nai ez, izkera ta idazkera aldatzea eziña da. Egia esan, aldatu daitezke, eta beingo baten egin ere, gogorkeriarren bitartez, zelako edo alako gogorkeriarren bitartez. Baiña gogorkeria ta indarkeria ta aalkeria aundia bear orretarako. Eta, gaiñera, leentxoago edo gerotxoago, gogorkeriak gogorkeria dakar, eta gogortasunik ere ez daukagu, zoritxarrez, guk eta...

Euskal deklinabidea dala ta, beste liburu bat? "Deklinabidekeriaren deklinabidekeria eta dana daklinabidekeria" esango dau, bearbada, nonongo nonork edo nonbaiteko norbaitek. Baiña, dana dala, utsune batzuk betetzera nator,

ilunpe batzuk argitzera, orain arte egindako lanak adibidez eta idazleengandik arturiko zati askoz ornidutera. Naiz ta "ustek erdia ustela", beste erdia ona bada pozik geldituko naz.

Artu ta jan, ta egin lan.

SARRERA

Euskal deklinabidea

Itz jokatzeko bat da euskal deklinabidea. Atzizki batzuk erabiltzen jakiteko bide bat. Atzizkibide bat.

Atzizkia *atze-izki* bat da. Edozein berbari (loturik geienetan) atzean jartzen jakon izki bat, morfema bat: *KepaRI*, *maitaKERIA*, *indarTSU*, *erriAN*, *bizarDUN*...

Era askotako atzizkiak erabiltzen doguz euskeraz. Baiña danak ez dabe adierazten itzen lotura, itzek alkarren artean daben zerekusia. Ona emen, konparabidez, atzizki bi: *-TZA* eta *-AREN*. Leenengoak ez dau loturarik adierazten, beste berbaren bategazko zerekusirik, eta atzizki ori itz bati ezarri badagiogu, ez dago, berez, beste berbaren baten bearrizanik. *ARTZAIN TZA* itzak, esate baterako, ez dau, berez, beste berbaren baten bearrizanik. Bigarren atzizkiak, ostera, lotura bat adierazten dau, beste berbaren bategazko zerekusia, eta atzizki ori, *-AREN*, itz bati ezarri badagiogu, beste berbaren baten premiña sortzen da berealaxe. *ARTZAINAREN* itzak, esate baterako, beste berbaren bat eskatzen dau: *artzainaren etxea*, *artzainaren burua*, eta abar.

Deklinabide edo atzizkibide bereziari dagokiozan atzizkien apartekotasuna auxe da, ba: *itzen lotura*. Esaldi bateko berbak alkarren artean daben *lotura* edo *zerekusia* adierazteko erabiltzen dira deklinabide-atzizkiak.

Griegozko edo latinezko deklinabideen antzekoa da euskal deklinabidea. Ikusi:

Griegoz: *andri* 'gizonI'; *Perikléous* 'PeriklesEN'.

Latiñez: *hominibus* 'gizonEI'; *domini* 'jaunaREN'.

Baiña berez, izatez, euskal deklinabidea eta griegozko eta latinezko deklinabideak ezberdiñak dira, antzekoak

izan arren. Naiz ta atzizkiak aldatu, itza bera ez da aldatzen euskal deklinabidean (geienetan beintzat). Osorik erabiltzen da; *GIZON*, *GIZONek*, *GIZONi*, *OGI*, *OGIk*, *OGIrik*, *OGItan*, *KEPA*, *KEPAk*, *KEPAz*...

Euskal deklinabidea esan arren, euskal atzizkibide berezia esatea obeto legoke, orrexegaitik. Ain zuzen ere, atzizkibide berezi bat dogu euskal deklinabidea, espainolezko, frantzesezko edo italianozko preposiziño ta artikuluen parekoa. Baiña atzekoz aurrera, au da, espainolezko, frantzeseko ta italianozko preposiziño ta artikulak posposiziñoak dira euskeraz. Itzek alkarren artean daben zerekusia preposiziño ta artikuluen bitartez adierazten dabe espainolak, frantzesak eta italianoak. Euskerak, posposiziñoen bitartez, atzizkien bitartez. Ikusi:

- Espainolez; *El gato* 'katuA'.
 voy *HACIA Bilbao* 'BilboRANTZ noa'.
LA casa DE María 'MirenEN etxea'.
- Frantzesez; *LE coeur* 'biotzaA'.
LE coeur DE l'homme 'gizonAREN biotzaA'.
près DE Nice 'NizaTIK ur'.
- Italianoz; *IL vino rosso* 'ardao baltzaA'.
arrivare A Milano 'MilanERA eldu'.
non è IN casa 'ez dago etxeAN'.

Dana dala, beti *deklinabidea* esaten oituta gagozan ezkeror, *deklinabidea* deituko deusagu atzizkibide berezi orri.

Euskal deklinabidearen ezaugarri batzuk

Euskal deklinabidearen ezaugarriak berezienak oneexek dira:

Leenengo ta bein, edozein itz deklinatzen da euskeraz: izena, izenlaguna, izenordea, aditza, aditzordea... Ona emen adibide batzuk. *mendiETAN*, *txakurrAREN*, *MikelEN*, *EdurneREN*, *ederrARI*, *lotsagarriAZ*, *aGAZ*, *onEGAZ*, *iruTAN*, *batENA*, *pozLK*, *bildurtuRIK*, *egurreZ*, *askoTAN*, *orduAN*...

Aditza bera ere deklinatu egiten da euskeraz. Jokatu bakarrik ezeze, deklinatu ere bai, beste edozein itz egiten dan antzera. Begira: ez nekian etorri zenIK; *guk ez dogu or sartzereIK ala?*; ezer ere ez dogu lortu ona etortzeAZ; *bart etorri zanAK apurtuko eban ori*; *olako gauzak egiten dituenARI belarri ondoko on bat emongo neuskio nik*; eta abar.

"Dans beaucoup de langues, la déclinaison, c'est-à-dire la série de cas, varie avec le genre. En basque, en dehors du tutoiement verbal, il n'y a pas de genre." (P. Lafitte, *Grammaire basque*, Bayonne, 1962, pág. 54). Euskal aditzean bai (*ika* eraz: *ikusi dok*, *gizonezkoei*; *ikusi don*, *andrazkoei*), baina euskal deklinabidean ez dago jenerorik: *KoldoRI*, *ZorioneRI*, *oillaskoREN* batzuk, *oillandaREN* BA-tzuk.

Leen esan dogunez, atzizkiak aldatu arren, itza bera ez da aldatzen euskal deklinabidean (geienetan beintzat). Itza osorik erabiltzen da. Ara, argibidez, adibide batzuk; *ANDRA*, *ANDRAK*, *ANDRAri*, *ANDRArik*, *ANDRAren*; *UR*, *URa*, *URik*, *UREz*, *URetan*, *URetatik*; *ANDER*, *ANDERRi*, *ANDERren*, *ANDERrekin*; eta abar. Atzizkiak aldatu arren, *ANDRA*, *UR* eta *ANDER* ez dira aldatu. Atzizkirik gabeko itza bera, itz soila, zein dan jakitea konbeni da, ba, orrexegaitik, deklinabide atzizkiak egokiro erabiltzeko. -a itsatsia daben itzetan ibili bear da kontuz, batez ere, au da, -a batez amaitzen diren itzetan. Ain zuzen ere, ez dot *ikusi zure amik*, *neskatil bat*, *ikastol ederra*, *izkuntz guztiak*, *gaztain batzuk*, *eriotz larria*, *eleiz aurrean*, *burdin lodia*, *Jesusen jaiotz pozgarria*, *arnas sakona* ta *olakoak* esaten eta idazten ditugu ez dot *ikusi zure amarik*, *neskatilla bat*, *ikastola ederra*, *izkuntza guztiak*, *gaztaiña batzuk*, *eriotza larria*, *eleiza aurrean*, *burdiña lodia*, *Jesusen jaiotza pozgarria*, *arnasa sakona* esan ta idatzi bearrean (1).

(1) Itzari berari dagokion -a ori zein berbak daroan jakiteko bide bat auxe da: *dudako itza kontatzaille bategaz* edo *izenorde bategaz alkatzea*. Esate baterako, *efeiz ala efeiza* ete da itz soilla? -a ori, itzari berari dagokiolako, loturik aal doa beti? Ala

Eta azkenik, laister azalduko dogunez, deklinabide bat bakarria dau euskerak berez, jatorriz. Eta deklinabidekera ere bat bakarria.

Euskal deklinabidekerak

"En vasco hay una sola y única declinación. Sin embargo, esta única declinación adopta dos (o si se quiere, tres) formas. Por un lado tenemos la declinación indefinida, y por otro la definida (he aquí la división bipartita). O bien, adoptando la división tripartita, tendríamos tres secciones: 1) Una primera sección que no es singular ni plural, sino indefinida a secas. 2) La declinación singular. 3) La declinación plural.

Así como el griego tenía singular, plural y dual, el vasco clasifica los objetos en singular, plural e indefinido o

artikulua ete da? *eleiza* da itz soilla, utsa, kontzaille bategaz alkartzean *eleiza* esaten dogulako: *eleiza bat, iru eleiza*.

Azterpiderik errezena bizkaitarrentzat auxe da: -a itsatsi ori daren berbak ZER kasuan singularrez erabili ezkeru -a ori -e (-i ere bai alkarriketan) biurtu oi da. Ikusi, adibidez: *alabea* (*alabia* ere bai alkarriketan), itz soilla *alaba* dalako eta *alabaA* 'la hija' *alabeA* egiten dogulako bizkaieraz '(a + a > ea); *arnasea* (itz soilla *arnasa*), *ezkontzea* (itz soilla *ezkontza*,) eta abar.

Alan ta guztiz ere, ona emen -a itsatsi ori daben itzen zerrendatxo bat:

"Aita, ama, aita, amama, aizta, alaba, arreba, anaia, animalia, arbola, arnasa, arrantza, ardura, area, arkondara, aizkora, aska, abarka, arantza, aldaketa, aldapa, artoa, aza, amagiñarreba, aitagiñarreba, azterketa, atxakia, anka, abarketa, arima, azkura, baba, berba, berbeta, bizitza, burdiña, berna, bezpera, burruka, bela, besarkada, biozkada, denpora, dardara, domeka, denda, egi(a), eleiza, erdera, erromeria, erregiña, euskera, eskola, estropada, erreka, errota, errieta, eskeintza, esakera, egoera, eskukada, eztabaida, ezpata, eskopeta, erropa, ezkontza, etorrera, esamesa, familia, feria, fraka, gazteria, gauza, gona, griña, gaztaiña, garizuma, gaubela, galga, geriza, ganora, gela, grazia, giarra, giarra, eriotza, orma, izkuntza, ondartzta, itxura, izara, illara, ikara, ikasketa, illoba, ibilkera, ikastola, jakituria, jakintza, jaiotza, abi(a), giltz(a), kaiola, kandela, kinpula, kontzientzia, koillara, kanta, kezka, kanika, karta, gorta, kutxa, kaixa, kereixa, kereixa, lobaña, larrosa, lotsa, letra, laranja, landa, laguntza, limosna, makilla, moda, mataza, mailla, moja, makiña, matrailla, meza, neba, nekazaritza, neska, neskatilla, neskaxka, okela, oitura, osaba, otzara, oillanda, premiña, pezeta, patxada, probintzia, penitentzia, pazientzia, puxika, saltsa, sardiña, sarda, sama, soka, salda, sarrera, taberna, teilla, tripa, tristura, traba, txorta, txabola, txanda, txonta, txalupa, uda, zarata, zertzelada, zapata, zarrastada".

Zerrenda luzeago bat euki nai dauanak, ikusi: L. Villasante, *la declinación del vasco literario común*, Oñate, 1972, 37. orr. Eta -a itsatsi edo organiko ori daben itz batzuen azterketa irakurri gura dauanak, ikusi: Larresoro, *Sustrai bila*, Donostia, 1970, 27. orr.

indeterminado. Hay, pues, tres compartimientos para clasificar los objetos en cuanto al número." (L. Villasante, O. c., 14. orr.).

Alan ta guztiz ere, berez, jatorriz, deklinabidekera bat bakarria dauala euskerak esan bear. Izan ere, *zeaztua, mugatua, ezaguna* deritxogun deklinabidekera (gauza bardin bat esateko iru izen ez bardin) izenordeen deklinatze bat baiño ez da. Atzizki biurtu diren izenordeen deklinatzea baiño besterik ez da *deklinabide zeaztua* deritxoguna, itzekaz alkartuta erabiliaren erabiliaz atzizkitu egin diren izenordeen deklinatze zeaztugabea, deklinabidekera bakarria.

Deklinabidekera zeaztua esaten jakonak deklinabidekera itxura artu dau gaur. Baiña antxiña ez zan olan izan. Gaurko *gizona* esate baterako, *gizon a* 'aqueel hombre' izan zan, au da, izenlagun bezela erabiltzen zan a ori. "Así como del pronombre demostrativo latino *ille* han nacido los artículos *el* castellano y *le* francés, así del pronombre vizcaíno *gizon a* 'aqueel hombre' (un tiempo, sin duda, de toda la lengua) parece haber nacido el artículo *gizona* 'el hombre'. (R. M^a. de Azkue, *Morfología vasca*, Bilbao, 1923, 269. orr.).

Jakiña: itzekaz alkarturik erabiliaren erabiliaz, galdutxo egin eben euren nortasuna izenordeek, eta atziki biurtu ziren: *gizon a* > *gizonA*, *gizon AK* > *gizonAK*, *gizon ari* > *gizonARI*, *gizon aren* > *gizonAREN*, *gizon agaz* > *gizon-AGAZ*, *gizon ok* > *gizonOK*, eta abar. Eta izenordea atzizkitu egin zanean, indargabetu egin ziran izenorde batzuk, eta indarbarritu bearrean aurkitu. Orrexegaitik erabiltzen doguz gaur indarbarrituriko izenordeak: *a* > *berA*, *a* > *Axe*, *au* > *berAU*, *berAU* > *AU berAU*, *berA* > *berberA ori* > *berORI*, *berORI* > *ORI berORI*, *mutilAU* > *AU mutilAU*, *AU mutilAU* > *AUxe mutilAU*, eta abar.

Berez, jatorriz, ba, deklinabide ta deklinabidekera bat bakarria dau euskerak: zeaztugabea.

Villasanteren antzera, euskal deklinabidea irukoitza da-la diño Larresorok; au da, iru deklinabidekera dituela:

"Euskaraz, beti ezkeroztik, bi taldetan banatu ditu euskalkunak, lumeroari dagokionez, gauzak eta ideiak: hiztunekiko ezagunak edo mugatuak batetik (ETXEA / ETXEAK) eta hiztunekiko ezezagun edo mugagabeak bestetik (ETXE). Horregaitik gure deklinabidea: hirukoitza, eta ez bikoitza." (Larresoro, *Sustrai bila*, Donostia, 1970, 40. orr.).

Ez bikoitza ez irukoitza. Deklinabidekera bat baiño ez dago berez euskeraz. Leen esan dogunez, itzarekin loturik doazen izenordeen deklinatzea baiño besterik ez da ta *deklinabidekera zeaztua*. Eta euskerak bakarrik ezeze, erdal izkuntzak ere, naiz ta deklinabidekerarik izan ez, bi taldetan banatzen ditue gauzak eta ideiak. Ona emen espaiño-lezko adibide batzuk: *casa 'etxe', ¿qué casa? 'zein etxe', una casa 'etxe bat', la casa 'etxea', las casas 'etxeak'*, (eta gaiñera: *estas casas 'etxeok'*).

Ezin esan, ba, Larresorok diñoena: "Horregaitik, ERDARAZ ESKOLATUAK GARELAKO, euskaraz ere BIKETA HORRI EUSKAL BIKETA BAT AURKITU NAHI IZATEA. (Euskaldunak ez bait daki artikulua erdaraz berex (aparte, lotu barik) doala; eta euskaraz loturik). Alegia: erdal estrukturari, kopiakeria bat egiñez, euskal sasi-estruturara bikoitz bat erantsi nahia. Kalko edo berdinkeria hau, hain zuzen, hizkuntza-estruturara truke bat den aldetik, zuzenki doa euskal gunaren kontra eta gaitzetsi egin behar da." (Larresoro, O. c., 40. orr.).

Euskeraz ere aparte, lotu barik, joaten zan artikulua antxiña, leen ikusi dogunez. Beste alde batetik, rumanoz ere, espaiñolaren eta frantzesaren antzeko erdera izan arren, atzetik joaten da artikulua, eta loturik: *omul* . homo ille) 'gizona'. Sarri askotan uste izaten dogun baiño artue-mon aundiagoa egon da izkuntzen artean, ezbaridiñak izan arren, gizonen artean egon dan bezela, eta zein dan kopia-keria eta zein ez dan jakitea ez da orren erreza.

Bein eta barrero diñogu, ba, berez, jatorriz, deklinabidekera bat bakarria baiño besterik ez dagoala: *zeaztugabea*.

Deklinabidekera zeaztugabea

Zelangoa izan ete zan antxiñatean euskal deklinabidekera zeaztugabea? Edo, obeto esanda, zelangoa izan ete zan euskal deklinabide edo atzizkibide berezi bakarra? Ez dakigu. Baiña, zana zala, oraingoa baiño motzagoa, laburra- goa, izango zan, seguru asko. Ain zuzen ere, atzizki bi edo iru (edo geiago) alkartuz sortutako kasuak dira oraingo paradigmatan agertzen diran kasu batzuk (2). Esate baterako, ZERENTZAT kasua -REN eta -TZAT alkartuz sorturiko kasua da; ZERTARAKO kasua -TA(N), -RA eta -KO alkartuz sorturikoa; eta abar. Kasu soillak, ba gitxi izango ziran: ZER, ZERK, ZERI, ZERI, ZEREN, ZEREZ, ZERTAN...

Deklinabidekera zeaztugabeak edo deklinabidekera soi-llak ez daukala singularrik eta pluralik esan oi da.

"El indefinido no es ni singular ni plural, sino indiferenciado en cuanto al número." (L. Villasante, O. c., 14. orr.).

"Mugagabe edo indeterminatuak, beraz, ez du ezer ikustekorik BAT / ASKO erdal zatiketarekin: erdal biketa hori erauzi egin behar dugu euskaraz. Mugagabe izatea ala ez izatea beste honi datxeko: EZAGUNA / EZEZAGUNA izateari datxeko hain zuzen." (Larresoro, O. c., 42. orr.).

Alan eta guztiz ere, naiz ta singularraren eta pluralaren ezaugarriak, zenbatazun markarik agiri ez, itzak berak adierazten dau batzuetan singular-tasun edo plural-tasun bat, singular-tasun edo plural-tasun ezezagun zeaztugabe bat. Esate baterako, esaldi zeaztugabe bat izan arren, ASKO-ren ezaugarriak agertu ez arren, *Ogeitamar gizon* ASKO dira; ez dakigu nortzuk diran gizonok, zein ogeitamartzuk diran, baiña ogeitamar dirana, ASKO dirana bai. Beste alde bate- tik, *bat* itzak singular-tasun bat adierazten dau beti, zeaztu- gabea izan arren; *zein gizon etorri da?* edo *gizonen bat etorriko zan* esaten dogunean, ez dakigu zein dan edo nor dan gizon ori, baiña BAT dana bai, badakigu (3).

(2) Berba bati loturik doan deklinabide-atzizkiak adierazten dauan zereginari deritxogu *kasua*.

Kontatzailleak erabili barik ere adierazten da singular-tasuna edo pluraltasuna zeaztugabeen. Esate baterako, *zein etxe bete zen arratoiz eta sugez?* esaten dogunean, singular-tasun bat eta pluraltasun bat adierazten doguz. Ain zuzen ere, *zein etxe zein* dan ez dakigun etxe BAT da eta *arratoiz* eta *sugez* zeintzuk diran ez dakiguzan *arratoi* eta *suge* ASKO. Izen bereziak ere zeaztugabez deklinatzen dira; baiña singular-tasun bat adierazten dabe: *EdurneGAZ* egon naz. Eta izenordeak ere bardin: *aRI* kendu deutso.

Ori dala ta, ba, iru taldetan bananduko neukez nik itzak zeaztugabez deklinatzean: *zeaztugabe soillak*, *zeaztugabe zenbatuak*, eta *zeaztugabe zenbatugabeak*.

Zeaztugabe soillak ez dauka muga-izkirik eta itzak berak ere ez dau adierazten singular-tasunik ez plural-tasunik, ezagutzen ez dogun zerbaiten edo norbaiten zeintasuna eta zenbatasuna zein dan ez dakigulako. Ikusi adibide batzuk: *Kepa ogiTAN* joan da; *atseginEZ* ikusi dot; *zeRIK* ez aal dozue ikusi aurtengo udan: *pelikulaRIK?*; ez dauka-zue *txakurRIK* ala? Artikulurik gabe adierazten da erderaz zeaztugabetasun soil ori: *dame de pan* (antxiñako espainiolez); *estudió con ahinco*; *han ido a la fuente por agua*; *j'ai du pain*; *avec plaisir*; *se tirer d'affaire*.

Zeaztugabe zenbatuak ere ez dauka muga-izkirik, baiña itzak berak adierazten dau singular-tasuna edo plural-tasuna. Kontatzailleetan, izen berezietan eta izenordeetan azaltzen da batez ere. Ara adibide batzuk: *katuREN* bat izango zan (singularra); *iru neskatoK* eroan ditue zure liburuak (plurala); *noREN* semea zara zu? (singularra); *berreun peseta dira zureak* (plurala); *zeinEN* dirua da au? (singularra); *KepaRI* emon deusat (singularra); *areEN* aurpegia ezaguna egin jatan (plurala); *non dago, ba, orrEN* txapela? (singularra); *MikelEN* etxetik nator (singularra). Espainiolez artikulurik gabe edo artikulatu ta izenlagun zeaztugabeaz adierazten

(3) Espainiolez ere zeaztugabez esaten da: *¿Qué hombre ha venido?; habrá venido algún hombre. Treinta hombres*, ostera, zeaztugabea izan arren, plural markarekin doa espainiolez. Baiña beti ez. Esate baterako, *¿Cuánto hombre ha venido hoy!* esaten danean, plural markarik gabe doa, naiz ta zeaztugabe plurala izan.

da zeaztugabe zenbatua: *han venido treinta mozos y dos mozas; con esto no tenemos nada para dos; habrá sido algún gitano; se lo he dado a un periodista.*

Zeaztugabe zenbatugabeak ere, azkenez, ez dauka muga-izkirik, baiña itzak berak adierazten dau plural-tasun bat, zenbatugabeko askotasun bat. Esate baterako, askotan egon naz *ni orren* etxean esaten dogunean, ez dakigu zenbatetan egon garan, baiña bai baten baiño geiagotan egon garana. Beste adibide batzuk ikusi: *sarritan* egon da *ori* emen; *ainbat gauza ekarri ditu*; *zertarako ekarri dozu, ba, ainbeste diru?* Espainiolez: *muchas veces; ¿dónde vas con tanto dinero?*

Zeaztugabe zeaztua izan dot nik, batez ere, argibideon argibide. Izan ere, ezin ulertu izaten izan dot zelan izen bereziak eta izenordeak, zeaztuak izanik, zeaztugabez deklinatu eitekezan: *TxominI*, *PatxiRI*, *aREN*, *aRI*, eta abar.

Orain ondo konturatu naz zergaitik dan: deklinabide ta deklinabidekera soil bat bakarra dagoalako euskeraz, eta, berez, zeaztugabez deklinatzen diralako itz guztiak. Singular-tasuna edo plural-tasuna, zenbatasuna, ezaguntasuna, ur-biltasuna..., berba baten esateko, zeaztasuna, itzak berak (izen bereziak, kontatzailleak, aditz-lagunak...) edo izenorde atzizkituak emoten deutso. Leen esanda daukagunez, izenorde alkartuak sortu dau deklinabidekera zeaztua.

Orra or, ba, zergaitik izen bereziak eta izenordeak zeaztugabez deklinatzen diran. Berez dira zeaztuak izen bereziak eta izenordeak, eta ez dabe izenorde atzizkituen premiñarik zeaztasuna adierazteko.

Deklinabidekera zeaztuen atzizki-bardintasuna ere orrexegaitik da, itzei loturik doazen izenordeen deklinatzea baiño besterik ez diralako. Ain zuzen ere, bokalez amaitzen diran itzak -R- bat artzen dabe deklinabide zeaztugabeko edo soilleko kasu batzuetan, ots-arintzeko betegarri legez; eta kontsonantez amaitzen diranak -E- bat. Ara adibide batzuk: *mendi-R-I*, *mendi-R-EN*, *gizon-E-K*, *gizon-E-Z*, eta abar. Deklinabidekera zeaztuetan, ostera, ez dago olako ezbardintasunik, berbei loturik doazen izenordeen deklin-

natzeak bardintzen dituelako ezbardintasunak: mendiARI, mendiAREN, gizonAK, gizonOK, eta abar.

Beste alde batetik, deklinabide zeaztugabea guk uste izan geinken baiño zeaztuagoa, zenbatuagoa, dan legez, zeaztua bera ere guk uste izan geinken baiño zeaztugabeagoa da. Izan ere, *gizonA*, *gizonAK*, *gizonENGAN*, esate baterako, ez dira guztiz zeaztuak, zenbatuak, ezagunak, loturik doazen izenordeak indargabetu egin diralako. *GizonA berez ona da baiña...; gizonENGAN uste osoa ipiñi, diñozu?; gizonARI berbatik eta idiARI adarretik*, ona emen iru esaldi zeaztugabe esan-naï aldetik, baiña zeaztuak deklinabide aldetik. Augaitik, ba, zer edo zer zeaztasun geia goz esan gura dogunean, izenordez baliatzen gara, izenordeak emoten deusalako itz bati, azken baten zeaztasun edo ezaguntasun ori. Eta orduan *AU gizon AU nongoa da, ba?, ONEEK kaleOK ondatuta dagoz. ORI mutil ORI nora doa, ba?, A zan kotxeA, A!*, ta olako esaldiak egiten doguz, zeaztasuna adierazteko.

Kasu bat, ZERIK kasua edo partitibua deritxoguna dala esan geinke oso zeaztugabea edo zeaztugabe utsa, deklinabidekera zeazturik ez dau onartzen eta. Baiña, alan ta guztiz ere, gaiñerako kasuetan gertatzen dan antzera, alako zeaztasun kutsu bat artzen dau, izenordeagaitik, esaldi batzuetan: *nik ez dot ikusi zure amaRIK; zure senarRIK ez da etorri ona.*

Jakiña: Izkuntza bat estruktura lojiku, neurtu, aldakaitz, zeatz eta argi batzuen barruan satzeko aalegindu arren, ezin oso-osorik sartu, gizonaren izate eta pentsaeraren ondorena eta ezaugarria dalako, asiera baten eta azken baten, izkuntza.

Azkenez, leen ere esanda daukagu baiña, itz guztiak deklinatzen dira zeaztugabez. Baiña batzuk zeaztugabez bakarrik deklinatzen dira. Edo, obeto esanda, zeaztugabez deklinatzen dira ia beti, zeaztuz ere deklinatu aal izan arren. Izen bereziak, esate baterako, zeaztugabez deklinatzen dira ia beti, baiña zeaztuz ere deklinatu geinkez:

Cure etxeko JoseAK iru dira: aita, semea ta koiñatua. Baiña, alan ta guztiz ere, gitxitan erabiltzen dira olako esaldiak, eta ori esan bearrean *Jose izena dabenak iru dira gure etxean: aita, semea ta koiñatua* esaten dogu. Ona emen, ba, banan-banan, ia beti zeaztugabez bakarrik deklinatzen diran itzak:

1) *Izen bereziak: Garbiñe, Gotzon, Urduliz, Gernika, Kristo, Mesias, Euzkadi, Gorpuzti*, eta abar. Adibide batzuk: *GarbiñeRI ez emon; zer dauka Guernikak, ba?; KepaREN etxera joan da.* Baiña Jainko itza zeaztuz erabiltzen da geienetan: *JainkoAREN maitasuna; JainkoARENGANAKO maitasuna; egin otoitz JainkoARI.* Beste jainko batzuegandik bereizteko edo, bearbada, *Jainko A* (kristiñauen Jainkoa) esango zan asieran, beste edozein *jainko* lakoa ez zala adierazteko (*Pedro* bat beste *PedroENGANDIK* bereizteko *Pedro A* esaten dogun legez), ta ortik sortuko zan oraingo *JainkoA* zeaztu ori.

2) *Senidetasuna adierazten daben izen* batzuk: *aita* eta *aitatxo*, *ama* eta *amatxo*, *aitaita*, *aitona*, *amama*, *amona*, *aitabitxi*, *amabitxi*... Adibideak: *Zer ekarri deutsu amabitxiK, ba?; zure aitabitxiGAZ egon gara; amatxoRI emon ori.*

3) *Galdetzeko izenordeak: zer, zein, nor, non, noiz, zenbat*... Adibideak: *Zer da ori?; zenbat da au?; laister jakingo dot zein dan; nork jakin orrek zer dabillen; Zeaztuz ere asko erabiltzen da zer: Zereko zera; orixe!; joan zaree zerera ala?; zerak ekarri dau: Kepak.*

4) *Galdetzeko izenordeekaz doazen itzak: izenlagunak eta aditzlagunak.* Ain zuzen ere, berba bat izenlagunarekin edo izenlagunekin doanean ez da deklinatzen. Izenlaguna edo aditz-laguna bakarrik deklinatzen da orduan, eta bat baiño geiago doazenean itzaren atzetik, azkenengoa bakarrik deklinatzen da: *Ze(r) ordu da?; zenbat egun eder zoragarri igaro doguzan guk emen?; zein txakur txiki esan dozu?; ze(r) egun gitxiTAN ondatu dan?; zein liburu barri esan dozu erosteko?; zenbat mendi dagoz Bizkaian? Zeaz-*

tugabeen bakarrik ezeze, zeztuan ere beti euki bear dogu kontuan lege au: *Sagar gorri eder gozoAREN usaina; landa bèrde gurien edertasuna*.

5) Izenorde zeztugabeak: *edozein, edozer, ainbeste, onenbeste, orrenbeste, amaika...* Adibide batzuk: *Kordela itxi ezker luza, umeak egin lei edozer gauza; edozein egunETAN joaten zaree ala?; amaika bidar egon gara gu or baiña...!* Kontatzaillea da jatorriz *amaika ori*; *baiña* izenordeturik erabilzen danean *askotan* esan nai dau.

6) Izenorde zeztugabeekaz *doazen itzak*. Ikusi gorago ko 4). Adibide batzuk: *Edozein mutil sartzen aal da ona?; ainbeste diru zertarako?; edozein ume gorri*.

7) Izenorde erakustailleekaz (*aurretik*) *doazen itzak*: *mendi au; kokolo gogaitu ori nora doa, ba, orain?; neska gangar zoro au beti eziñegonez*.

8) Aditz-lagun batzuk: *asko, gitxi, naiko, ainitz...* Adibide batzuk: *Asko daki; gitxi dozu ori; naiko da*.

9) Aditz-lagun batzukaz *doazen itzak*. Ikusi 8). Adibide batzuk: *Oso lagun gitxi etorri da gaur; naiko jende (edo jendeRIK) dago emen; olako liburu barri asko bear geunkez guk*.

10) Kontatzailleak eta kontatzailleekaz *doazen itzak* ere zeztugabez erabiltzen dira sarri askotan: *bat, bi iru...; lau gizon; bost mendi eder; sei sagar, gorri usaintsu*. Zeztugabetasuna eta berba soilla zein dan adierazteko, berebizikoak dira kontatzailleak: *Biotz bat; izkuntza bi, edo bi izkuntza; iru eriotza; lau arreba*.

Deklinabidekera zeztua

Deklinabidekera zeztua sasi-deklinabidekera da izan. *Baiña gaur* deklinabideturik dagoala esan daitegu eta, orregaitik, emengo azalpenetan ere deklinabidekera lege agertzen da. Gaiñera, itzak eta izenordeak alkartzean aldakuntza batzuk sortu diran ezker fonetika eta morfologia

aldetik, bearrezkoa da aldakuntza orrek zeintzuk diran jakitea, euskal deklinabidekera zeztua ere ondo erabiltzen jakiteko.

Deklinabidekera zeztua bitan (singularra ta plurala) edo irutan (singularra, plurala eta plural urbilla) banatu izan oi da orain arte. Nik lautan banatu dot, ostera. Ain zuzen ere, lau era ditu deklinabidekera zeztuak: *singularra, singular urbilla, plurala eta plural urbilla*.

Singular urbilla ez da kontuan artzen izan orain artean. Zeztu-zeztua dala esan daitegu singular urbil au (plural urbilla zeztu-zeztua dan bezela). Alde batetik, izenordeen forma zaar bat artzen dau atzizkitzat singular urbillak: **on*. Adibide batzuk: *aspaldiON ez dot ikusi; ementxe egon gara asteON (aste onetan); bertON geldituko gara*. "*Oixtion 'tout á l'heure; ordion 'alors; aspaldion 'il y a longtemp', sont de vestiges, d'un temps au la langue avait un article en o dont on voit des traces dans les vieux auteurs, mais qu'il serait vain de vouloir réintégrer dans la langue.*" (P. Lafitte, O.c. 59. orr.).

Baiña on atzikia bakarrik ez da erabiltzen singular urbillean edo singular zeztu-zeztuan: *au* eta *ori* ere erabiltzen dira: *LaztantxuORI, gizonAU, "Maritxu, nora zoaz, | eder galant ori"*.

"Los tres demostrativos sirvieron un tiempo de artículos (y todavía aparecen así en Lizarraga el de Elcano), hasta que prevalece el menos marcado (o sea, el tercero). Aun ahora en el vascuence de este barrio de Aránzazu es corriente el uso de los tres demostrativos con valor de artículo: "*Euskeriau zetako biogu?*" (L. Villasante, O. c., 75. orr.).

Bizkaian ere olantxe erabiltzen dira, eta izenordea adierazo gura danean aurretik jartzen da: *Au kokoloAU, ori bermeotarrORI*.

Azkenez, espainolez "zeztugabez" erabiltzen diran itz batzuk zezturik erabiltzen dira euskeraz. Ona emen, banan-banan, zeintzuk diran:

1) Izenburutzat erabiltzen diran itzak: Itzaurrea 'prólogo' bigarren zatia 'segunda parte', ZER kasua 'caso ZER', singularra 'singular', oarra 'advertencia'.

2) Izen berezien ondoren argibidez jartzen diran itzak edo esaldiak: Koldo, gure alkatea 'Luis, nuestro alcalde', aita Patxi, pasiotarra 'padre Pachi, pasionista', Txomin, zure lengusua 'Chomin, tu primo'.

3) Oiu-itzak: Ze(r) ederra! '¡qué hermoso!', au poza! '¡qué alegría!', ako ganorabakoa! '¡mírale qué sinsorgo!'.

16 4) Bokatibu edo dei-itzak: Erruki, Jauna! Señor piedad!, nire arreba maitea 'mi querida hermana'. Bati buruz erabiltzen zanean zeaztugabez erabiltzen ei zan antxiña. BAIña pluralez -AK erabiltzen zan ezker (gizonak, etorri ona, mesedez), singularrez ere, pluralezko -AK orri dago-kionez, -A erantsi jakon (gizona, etorri ona, mesedez). "De este hecho, de usarse como vocativo plural el artículo -ak parece venir, por imitación, el uso del artículo -a en vocativo singular, aunque indebida e indudablemente contra el genio de la lengua." (R. M^a. de Azkue, O. c., 268.orr.).

Gaur ere, orraitño, erabiltzen da zeaztugabez batzuetan: I, mutil, ator ona, mesedez!; zu, neskato, nora zoaz ortik?; artu, ba, irakurle, ta irakurri. Izen bereziak eta izenordeak ere, jakiña, zeaztugabez erabiltzen dira dei-itze-tan: Zu, Pedro, Bilbora zoaz?; i, ago geldi gero, bestelan...; eldu oni, Juantxu; kendu zaitez nire ondotik, kokolo orri!; egunon, Katalin! Zeazturik eta zeaztugabeturik, bietara erabilli ditue dei-itzak idazleak. Ona emen adibide batzuk:

"-Bantzuk, mutil? - Bai, Jauna." (Mikoleta R.).

"Ene seme!" (Axular).

"Zer aratza hor, alfer nagia?" (Axular).

"Oi, xarmagarria!" (Etxaun).

"O, gizon tonto! Zer edaten dok, asto salbaje aundia?" (Aboitiz A.).

"Zalduna, egik semea duke; ezaguke." (Oihenart A.).

"A, tontotzarra, lo egik!" (Mogel J.A.).

Ikusirik, irakurlea, zareana zareala..." (Madariaga B.).

"Ia, Joxe Domingo maitea, ekin ortxe, ekin!" (Agirre Tx.).

"Gizon, zatoz lagun artera." (Azkue R. M^a).

"Adiskidea, Ondarroa ezautu nai dabena, datorrela Santa Klaretan." (Azkue R. M^a).

"Ia ez ardurarik izan, irakurle." (Bilbao F.).

"Gizon begi-goritu, gizon jagi-zale, gizon grinen katigu, gizon miñez bete... Gizon..." (Gandiaga B.).

17 Bietara erabilli izan ditue dei-itzak idazleak; baiña gaur (mutil, neskato, gizon ta olakoren batzuk izan ezik) zeazturik erabiltzen ditue geienetan.

5) Norbaiten edo zerbaiten izantasuna adierazten daben itzak. "En euskera tanto el sujeto como el atributo llevan artículo; no se dice IRAKASLE NAZ 'soy maestro', como en castellano, sino irakaslea naz." (M. Arruza, Método práctico para aprender vascuence, Bilbao, 1925, 14. orr. Ona emen adibide batzuk: gizona berez ez da txarra; atzo goizean etorri zan mutilla BilbokoA da; agustua beroA da; Ander jakitunA da; ni LezamakoA naz; au zureA da.

6) EDIN, EUKI eta ERITXI aditzarekin doazen esaldi batzuetako itzak: Orrek osaba bat abadeA dauko; onA deritxazu orri?; lengusuA dozu ori ala?; semeA eskola mai-sua dabe; gana txarra dauka.

7) Persona-izenlagunen ondoren doazen itzak: Bilbora eroan dabe nire semeA; gure etxea ortxe dago; non itxi dozu nire diruA?; zuen txaboleA (txabola batuan) bota egin dabe. Antxiñako espaiñolez ere zeazturik erabiltzen ziran olako esaldiak: Vença a nos el tu reino.

8) Partitibu kutsua daben baiezko esaldi batzuetako itzak: UrA badago emen baiña...; beroA dago gaur galanta;

artoA ugari dago aurten; sagar ederrAK erosi ditut plazan gaur; niki gorriAK bakarrik jazten dozuz zuk ala?

9) Espaiñolez geienetan artikulurik gabe erabiltzen diran beste esaldi askotan ere mugatzaillea erabiltzen da euskeraz: EgiA balitz! '¡si fuera verdad!'; zergaitik ez dozu gariA erein emen? '¿porqué no has sembrado aquí trigo?'; ardaoA doa, ardaoA dator 'vino va, vino viene'; diruA bazendu, laister erosiko zeunke zuk autoA 'si tuvieras dinero, pronto comprarías tú coche'; zeureA balitz, bai 'si fuera tuyo, claro que sí'; denporeA (denporA batuan) galdu 'perder tiempo', eta abar.

10) ZEREZ kasuan erabiltzen diran aditz batzuk aditz "izenduak"): Zer lortu dozu ona etortzeAZ, ba? '¿Qué has conseguido, pues, con venir aquí?; ez dakit zer egingo dozun ara joanAZ 'no sé qué harás con ir allí'.

Eta argibidez esandako zeaztasunok gogoan arturik, goazen, ba, kasurik kasu ta adibiderik adibide, deklinabidekerak ikustera.

ZER

Zeaztugabea: (atzizkirik gabe): gizon, mendi.

Zeaztua: 1) Singularra: -A: gizonA, mendiA.
2) Plurala: -AK: gizonAK, mendiAK.

Zeaztu-zeaztua: 1) Singularra: -AU eta -ORI: gizonAU, mendiORI. Idatzi banan idazten dira geienetan izena ta izenordea: gizonAU, mendi ORI.
2) Plurala: -OK: gizonOK, mendiOK.

Oarrak

1) Bizkaiera eta baturantzako era bardiñak dira ZER kasuan.

2) ZER jarri deusagu izena kasu oni. BAIña berez NOR, ZEIN, ZENBAT, ZERTZUK, NORTZUK... ere bada. Paziientea esaten deutso F. Mendizabalek eta caso paciente L. Villasantek. Beste batzuek *nominatibua*:

3) Izen-sintagma ta aditza alkaturik doaz beti: *Pedro doa; zein etxek dauka teillatua okertuta?*

4) -a itsatsia daben itzak -eA biurtzen dira bizkaieraz zeaztu singularrean: *alabaA > alabeA; mezaA > mezeA; euskerA > euskereA; eriotzaA > eriotzeA*. Baturantz jo badagigu, ostera, -a itsatsi ori daben itzak -A biurtzen dira: *alabaA > alaba; mezaA > meza; euskeraA > euskerA; eriotzaA > eriotza*. Gogoan euki bear dogu fonetika-lege au beste kasu bätzuetan ere. Ona emen adibide batzuk: *non itxi dozu, ba zure alabeA* (batuan: *alaba*); *nork jakin zeintzuk diran euskereAREN* (batuan: *euskerAREN*) sus-

traiak?; *etorri da zure osabeA?* (batuan: *osabA*); *artu arnaseA* (batuan: *arnasA*); *neskeAK ekarri dau* (batuan: *nesKAK*); *eskoleAREN aurrean* (batuan: *eskolAREN*); *eleizeARI* (batuan: *eleizARI*).

5) Zeaztu-zeaztu pluralean azkenengo letra -o daben itzak o bigaz gelditzen dira deklinatzean: *astoOK*, *koko-look*, *basoOK*.

Adibideak

1) Zeaztugabea

Andoni ta Zorione txorierritarrak dira.

Lau mutil eta iru neska dagoz or.

Zenbat diru daukazu, ba aldean?

Zein kale da au? Bidebarrieta?

Edozer gauza esaten dau esan ere orrek eta!

Zertarako dozuz, ba, onenbeste oiñetako?

Ez aal dakizu zein abade datorren domekan gure errira?

ZE(r) Patxi ta Patxi ondoko! Ba aal dakizu ze(r) ordu dan, ganorabako orrek!

Lagun gitxi etorri ei da.

"Zortzi egun da ara joan ez nazala" eta "Zortzi egun dira ara joan ez nazala", bietara esan daikegu euskeraz (4).

Amaikatxo pelikula ikusi dozu zuk zeure denporan!

Ainbat ogerleko gastau ditut.

Bost liburu barri interesgarri, Artetaren kuadru zaar bat eta Oteizaren irudi eder bi erosi ditu.

(4) Bietara erabiltzan da izkeran: *bosteun peseta balio dau* (edo *ditu*) orrek; *zazpi urte da* (edo *dira*) ez *zaitudala ikusi*; *gizon asko etorri da* (edo *dira*) *gaur*. Literaturan ere bietara erabilli izan da.

Amaika andra sorgin egoten da pelukerietan!

Sagar saltzen egon da eleiza-aurrean; baiña etxera joan da diru billa (5).

2) Zeaztu singularra

Gure semea soldadu joan jaku.

Arratoia zulora sartu zan, baiña katua ezin sartu izan zan.

Etxea ederra da, bai; baiña merkeagoa gura dogu guk, merkeagoa, motzagoa izan arren ere.

Denpora eroangarri bat baiño besterik ez da telebisiñoa.

Eriotza (eriotzea bizkaieraz) beti izaten da bildurgarria.

Non itxi dozuz nire liburua eta boligrafoa?

Atzo erosi nuen txakurtxo zuria il egin jat gaur goizean.

Atzoko gizon potolo berbatsua etorri da gaur ere, eta bere autoa saldu gura izan deusku.

Nire seme zaarra da au.

Loitu egin dozu jantzia.

Auxe da gure eskola (eskolea bizkaieraz).

3) Zeaztu plurala

Gaurko gazteak bizkorak dira baiña, oso alperrak.

Lapurrak sartu jakuz bart etxera. Ez dot uste urriñekoak izango diranik.

Zertarako eroan dozuz ogiak, ba?

Andrazkoak, gizonetzkoak, zaarrak, gazteak, zuriak, baltzak, aberatsak, probreak, jakitunak, ezjakiñak, aundiak eta txikiak, danetarikoak egon ziran an.

Gure diruak antxe urtu ziran.

Emen kalean dagozan etxeak neureak dira danak.

(5) Adibide onetan agertzen diran formak ez dira zeaztugabeak berez, laburtuak baiño. Sagarrak saltzen egon da eleizearen aurrean; baiña etxera joan da diruaren billa

Gero gerokoak!

Bilbotarrak arroak dira.

Lau t'erdiak dirala esan dozu baiña, bost et'erdiak dira.

Nongoak zaree zuok, ba?

Ango barreak, ango saltuak eta ango txaloak ez eben azkenik.

4) Zeztu-zeztu singularra

Pedrorena da liburu au.

Ori gizon ori sarri egoten zan leen gure etxean.

Gure Jaun eta Jangoiko ori!

Or, Maiteren ondoan ikusten dozun neska gazte eder ori Madalentxoren lengusiña da.

Logela au oşo otza da.

Auto gorri aundi ori aal da zurea?

Tabernarik taberna dabil ibilli ere beti gizajo triste ori ta! Nongoa da katu au?

5) Zeztu-zeztu plurala

Autoz beterik dagoz gaur kaleok. Jakiña, beste mutillok etorri dira ta!

Zuok, or nire aurrean zagozanok, garbitu tresnok, eta eroan gora gero emen dagozan ogiok.

Kokolook alakook!

Zuok gazteok ez dakizue bizitza zer dan.

Zergaitik ez gerispetara eroan jesarlekuok eta edariok, eta antxe jesarri ta edan?

Edurez bete jakuz mendiok.

Zer egin dozue, astook?

Bakarrik nago, bai. Bilbora joan jataz seme-alabok eta.

Nora doaz, ba, eibartarrok?

Idazleen adibide batzuk

"Zer fruitu, zer irabazi izan zenduten orduan?" ("Axular")

"Ikustekoa da zer begitarte eskualduna zuen." ("Manezaundi").

"Ara bi lo-mai." (Agirre Tx.).

"Gomuta zaitte etzaria la zeu bere eguzkiaren alaba, ez zeruko aingeru garbia, ez jenio orren onekoa eta zeure zerak dozuzala." (Añibarro P. A.).

"Arbola hainitz den bazterretan, nekazalea ongi da." (Duvoisin J.).

"Ura zan gizona, ura!" (Agirre Tx.).

"Zelango estura ta larritasunak kontu luzetxu bat esan bear bada!" (Mogel J.A.).

"Zuek, mutikook..." ("Kirikiño).

"Atz agiten diote / ari bizkarrean / "maitetxoa!" esanez / jana emotean." (Iturriaga A.P.).

"Aren bizitzaz, aren nortasunaz, eta abar, zein gutxi idatzi den!" (VillasanteL.).

"Emazte lotsa bagearen jardunaldi andi a iragoteko." (Madariaga B.).

"Bati baiño geiagori entzun deusat, baserritarretan da-goala euskera garbia; Gaztelan izan gareanok ta uri barruetakoak erdera askogaz nastetan dogula euskerea." (Mogel J.A.).

"Bizi nahi duenak badaki zein burruka egin behar duen." (Gandiaga B.).

"Gizon zer bat da ori." (Azkue R. M.).

"Zenbait euskal korapilo." ("Larresoro").

"Au da mutillaren okerra!" (Zamarripa P.).

"Hango soinu, kantu, dantza, edari, parre-algara, esku-zarta, eupada, zirri ta mila kolorezko argi, jantzi ta

suge-paperak ez dute azkenik izaten." (Zarate M.).

"Argirik ez zan nigaz, / -zureok baitziran izar-; / ta barruko bideok / neguko edurrez, zidar." ("Kerexeta").

"Bost gau illun eta bost egun argi igaroak ditut egiteko onetan." (Larramendi M.).

"Zure etsaiak nai dituzten anitz gauza ta uts." (Mendiburu S.).

"Hamar hamabi mutil gazte dira abeslariak." (Satrustegi J. M.).

"Ez da izango etxeetan ondamendi makala ainbeste andragaz." ("Otxolua").

"Makiña bat bidar." ("Otxolua").

"Fuskaldunik gehienok, guztiok ez bada, badugu geure barrendegian xoko urri eta apaindura gabeko bezain maite bat: gure euskal baratzea." (Mitxelena L.).

"Etxeak, etxeak, etxeak, / sorgin-tren iduri igeska; / gizonak, mendiak, / txakurrak..., oro ditut kezka." (Etxaniz N.).

"Amaika gauza eder bait badoazkio billuzten, erabat suntsitzen!" (Mitxelena S.).

"Mundu bete lagunuen aurrean itxi zinduezanean." (Añibarro P.A.).

"Zergaitik ikusi / ainbeste lurralde, / ainbat, ainbat jende?" (Mirande J.).

"Ez ote da hoinbertze lantegi hesten gure eskualdetan?" (Landart D.).

"Ezin eben, arrezkero, ez artatxori, ez urretxindor, ez beste zein txori izan eitekean igarri." ("Otxolua").

Ariketak

1) Aztertu ZER kasua urrengo doazen literatura-zati, kantu, bertso eta errefranetan:

"Zein zaldi da on edo hobeago, geldirik eta alferrik bere

plazerera dagoena ala ibiltzen eta manaiatzen dena? Zein untzi, kostan dagoena ala itsasoan dabillana? Zein ur, geldia ala lasterra? Zein burdina, zokoan datzana ala erabiltzen dena? Segur da, guztiak erabiltzeaz, manaiatzeaz eta eskuztatzeaz ontzen, argitzen eta fintzen direla, eta bai alfer eta geldi egoiteaz ere, galtzen, desegiten eta herdoiltzen." ("Axular").

"Gernikako arbola da bedeinkatua, euskaldunen artean guztiz maitatua. Eman ta zabal zazu munduan frutua; adoratzen zaitugu, arbola santua."

(Iparragirre J.M.)

"Gizon nekazaria
laister oi da zaartu,
tankera itsusia
gorputzak artu,
besoak biurritu,
belaunak okertu,
sudurra dindirritu,
pausoa baldartu,
bizkarra gaillurtu,
burua, makurtu,
musua kuskurtu,
bistea laburtu,
belarriak gortu,
samia igartu,
zentzuna agortu,
adimena lotu
kaskarra lelotu,
zamia igartu,
azala zimurtu,
koipakiak urtu,
ezurrak agertu,
otzakin bildurtu
eskuaz gogortu,
beroak izertu,

biguna elkortu,
gogorra nanotu,
aizea samurtu,
oituraz zabartu,
laguntza beartu,
bizitzeñ aspertu:
goitik deitutakoan
joateko gertu."

(Anduaga G.)

"Balizko oleak burdiarik ez".

"Bitxiok eder, berori ez".

"Edozein sari esker gura".

"Gero, otz eztana bero, bero eztana otz, ken adi anka motz".

"Sei: korta bete bei".

"Adinon da bost ume: alaba bi ta iru seme".

"Ule luzea ta zentzun laburra".

"Umearen zentzuna, etxean entzuna".

"Loka jabilt agiña, ta gogoa dot ariña".

"Osabea ta lobeia, ez dakit zein dan obea".

"Neskea ta eskea, nekea ta kaltea".

"Barriketa asko, gauza on gitxi".

"Oker batek gauza oker asko".

2) Zeaztu urrengo doazen esaldiok:

Gizon bat etorri da. (Adibidez: *gizon bat etorri da* (zeaztugabez); *gizona etorri da* (zeaztu singularrez); *gizonak etorri dira* (zeaztu pluralrez); *gizon au etorri da* (zeaztu-zeaztu singularrez); *gizonok etorri dira* (zeaztu-zeaztu pluralrez).

Onaxe etorri jakun bilbotar bat.

Beste.

Bi.

Txatarra erosten dabillega entzun dot.

Zer.

Beste bat ikusi daigun orduan.

3) Euskeratu espainolezko esaldiok:

Han detenido ya a los ladrones. Han sido cinco gitanos.

¿Cuántas pesetas tienes tú en el bolsillo ahora? ¿Quié-
nientas pesetas?

¡Jesús, chico! Para tí cualquier rincón es bueno para
dormir como un tronco.

Hemos visto cuatro liebres, pero no hemos matado
ninguna.

No sé cuándo piensan casarse estas dos hijas mías.

¿Qué día es hoy?

¿Cuántos libros nuevos has comprado?

Que sea chico o chica me es igual.

EL cinco y el seis son bonitos números.

¿Para qué has comprado tantas bicicletas?

Ni uno ni otro.

Ni el uno ni el otro.

Te lo dije muchas veces que no llevaras tanto dinero en
la cartera.

ZERK

Zeztugabea: 1) *-K* (bokalez amaitzen diran itzak):
mendiK, kaleK, buruK.

2) *-EK* (kontsonantez amaitzen diran itzak): *lurrEK, biotzek, txakurrEK.*

Zeztua: 1) *Singularra: -AK:* *gizonAK, mendiAK, itzak.*

2) *Plurala{ -EK (eta -AK):* *mendiEK, gizonEK, begiEK.*

Zeztu-zeztua: 1) *Singularra: -ONEK eta -ORREK:* *MU-
tillONEK, txotxoloORREK, gizonORREK*
(idatzi banan idazten dira).

2) *Plurala: -OK:* *gizonOK, mendiOK, lurrOK.*

Oarrak

1) Ikusi *ZER* kasuan jarri diran oarrak.

2) *Egilea* deritxo kasu oni F. Mendizabalek. Beste batzuek *ergatibua, sujeta agente...*

3) *Izen-sintagma eta aditza* alkaturik doaz beti: *Txominnek dakar; zein mutillek egin dau ori?*

4) *Bizkaiera eta baturantzako era, ezbarðiñak* dira zeztu pluralean. Ain zuzen ere, *bizkaieraz (eta gipuzkoeraz ere bai) -AK* erabili izan da geienetan; beste euskalkietan, ostera, *-EK.*

" En el definido plural unos, los más, dicen *gizonak* sin otra diferencia de *gizonak* 'el hombre' que cuando es plural la final *-ak* es átona, pronunciándose *gizonak*. Otros, muy pocos, pero muy lógicamente, decían *gizonakek* (AN-ond). Otros, por lo general los vascos orientales, muy recomendablemente dicen *gizonek* 'los hombres' (caso activo)". (R. M^a de Azkue, *Morfología vasca*, Bilbao 1923, 326. orr.).

Leen *-AK* erabiltzen eben idazle askok ere gaur, Azkue-
ren eta Euskaltzaindiaren esanera, *-EK* erabiltzen dabe,
batasun bide batera jo nairik. Ez dau eragozpenik ulertze
aldetik, eta noiz erabili jakitea ere oso erreza da. Begira:
ZERK kasuan bakarrik erabiltzen da *-EK*. Esate baterako,
mutillIAK etorri dira (ZER kasuan), baiña *mutillIEK* egin
dabe. Ona emen beste adibide batzuk: *or dagozen neska-*
toEK ekarri dabe liburu ori; *katuEK jan dabez arraiñak*; *zure*
lagunEK egin dabe ori ala?; *batzuEK bakarrik dakie ori*.

5) Bokatibu legez ere erabiltzen da *orrek* izenordea:
zuk, zoro orrek, zer egingo dozu, ba?; *Jainko alguztidun*
orrek, emon guri bakea. Leenago *onek* ere erabiltzen zan:
Nik, pekatari onek... Jakiña, esaldiaz zerekusia dau euske-
raz bokatibuak.

6) Diptongoz amaitzen diran itzak bereiztasun batzuk
ditue deklinatzean. Eta *-ai*, *-ei*, *-oi*, eta *-ui* diptongoz
amaitzen diran itzak bokalez amaitutakoen erara deklina-
tzen dira: *zelaiK, zelaiRI, zelaiRI, zelaiRIK, zelaiREN*;
ogeiK, ogeiAN, ogeiTIK, ogeiRAIÑO; *goiAN, goiTIK, goiKO*,
uiRIK, uiAN; baiña *-au* diptongoz amaitzen diran itzak
kontsonantez amaitzen diran itzak legez deklinatzen dira:
gauEK, gauREN, gauEZ, gauEAN; *lauREN, lauEK*; *papauRE-*
KIN. Gogoan artu bearrekoa da lege au beste kasu batzuta-
rako ere. Dana dala, beste izkuntza batzutan gertatzen dan
bezela, *-I* edo *-EI* atzizkiekin alkartzen diran itz batzuk
gogor samar biurtzen dira esateko: *gauI, LauI*; *ogeiEI, deiEI*;
eta abar. Esan, orrexegaitik, *gauri, gabari, gaueri, ogeieri* ta
olakoak esaten dira.

7) Zeaztugabez eta zeaztuz itzak ondo erabiltzen jakite-
ko, gogoan artu sarreran jarri diran argibideak.

Adibideak

1) Zeaztugabea

Karmelek eta Gotzonek ekarri dabez gure kuadernuak.

Entzun dozu, gero, *alper orrek!* Au zeuk egingo dozu,
ez bestek; zeuk, beste iñork ere ez.

Lau neskak eta iru mutilek apurtu dabez zure lorak.

Orrek egin zein beste batek egin, bardin da.

Amaika astok agiten ditu mundu onetan orrelako astake-
riak!.

Aal balebe, *ainbat neska zoro gangarrek* jantziko leukee
orrelako jantzi nabarmen bat.

Zein katuk jan deusuz arraiñak?

Zein mendik daukala ikurriña goiko puntan esan dozu,
Deunoro?

Amazortzik bakarrik artu dabe indiziñoa; *amabostek* ez
dabe artu izan nai.

Edozein mozolok daki jakin ere zure beste.

Alkar jo dabe *kamioi bik*; baiña *zeiñek* errua? *Nork*
jakin?

Oraindiño *gitxik* daki ori, *lauek* edo bakarrik.

Oso kale estuak ditu *Bilbok*.

2) Zeaztu singularra

Batak ekarri edo besteak ekarri, ekarri egin bear dozue.

Egia ala guzurra dan ez dakit *nik*; baiña *telebisiñoak*
leen orixe esan dauana bai.

Zuen beiak okertuta dauka adar bat.

Gure diruak ez dau, antza, askotzarik balio.

Gogorkeriak gogorkeria dakar eta *indarkeriak* indarkeria.

Esne asko emoten aal deutsu leengo astean erosi zenuan *erribe* politik?

Nikiak zulo txu bat daukatzu. Ez aal zara orain arte konturatu?

Gureak egin dau.

3) Zeaztu plurala

Txuleta guztiak jan dabez *katuek*.

Sasiak eta bedar txarrak ezeze, piñuak ere ebagi egin dabez *segalariek*.

Emen zarataka egon diran neska-mutilok kartzelara sartu ditue *guardiazibiliek*.

Erbi bi ta lau eper arrapau ei dabez *kazariak*.

Bilbokoek "agur" ta "hasta gero" esaten bakarrik dakie.

Gauza asko irakasten deuskuez *irakasleek* baiña, ikasi ezik, alperrik.

Uriko *tximiniek* ke baltza botatzen dabe.

Auxe esaten dabe gaurko gazte batzuek: "*Buruzagiek, aundikiak, jauntxoek, ugazabek, nagusiek, aberatsek* eta *gaiñerako boteretsu guztiak* zorabiatu, azpiratu, zapaldu, alienatu, esplotatu, ezereztu egiten gaituzte beren aginpi-dez, indarrez, diruz, jakituriaz, erlijioz, eta abar".

4) Zeaztu-zeaztu singularra

Boligrafo onek ez dau ezertarako balio.

Cure Jaun eta *Jainko orrek*, lagundu guri!

Onek txakur onek erbitarako ez dauala balio esan deus-baiña, zeozertarako balio izango dau.

Zenbat metro ditu *mendi onek*?

Egin ere egiten dozu zuk bakoitzik, *memelo babalasto orrek!*

Zer egin deutsu *kokolo orrek*?

Orrek mutil orrek ez dau ezer gura ala?

5) Zeaztu-zeaztu plurala

Ez aal dakizue ezer *zuok*?

Etorri jakuz gaur ere besteok, eta laister egingo dabe zirriparraren bat *gazteok*.

Umeok ez dabe apurtu kristala.

Urun askorik ez dabe eioten espaldion *Txorrierriko errota banakok*.

Emen dagoz au ostu *dabenok*

Zuok biok ekarriko dozue ori.

Ez dabe ezer artu nai *kanpotarrok*.

Zer egin dozue, *ganorabakook alakook*?

Bostok, bai, oneexek loitu dabe tintaz maia.

Zerok, piñu landarok leertu egingo dabe mintegia.

Idazleen adibide batzuk

"Erranen du zenbaitek." ("Axular").

"Zein santuk esperantza andiagoa?" (Mogel J.A.).

"Egia da ta artu zituen / lagun bik garau bana." (Barrutia P.).

"Güzi arekin ere zor duten hoetatik *batek*, edo *bidak*, edo *geiagok*, ezpalute joan nai, *baterek* soberbiaz, *bertzek* arloteriaz, edo bertze kausaz, arengana zedularen eske, ez naiz bere zor duena deskubritu, *orlakoek* bere faltaz ez lituzkete bere zorrak pagatuko." (Beraiain).

"Erregek agindu zuen botatzeko andik ura." (Lizarraga.).

"Ni ez nakar ezek, neu nator neure indarrez." (Azkue R. M^a.).

"Berak argiro irakasten duen bezala, *hiru joera nagusik* bultzatu zuten munduan." (Txillardegí").

"Badaki *Euskalerrik* / ze eginkizun daukan!" (Mitxelena S.).

"Zeini ez aingeruk, ez gizonak, ez hilek, ez bizik ezpai-

trauka deus eratxekiteko ez edekiteko." (Leizarraga J.).

"Beste askok, neskatxen diru-zorroari begirutzen diote; gutxik buru ta biotzari." (Agirre Tx.).

"Zerk nauka maite dedanaren ate-zai? / Nork bultzatzen dit gogo?" (Etxaniz N.).

"Ez dau begik ikusi, ez belarrik entzun, ez gizonaren biotzek somatu, Bera maite dabenentzat Jaungoikoak daukana." ("Kerexeta").

"Bere seme Aingeruk bildu zituen eta agertu artikulu zonbait." (Lafitte P.).

"Barkoxen uken afruntia ihunk'apezek ez eman." ("Etxaun").

"Zer poz dute mila urtek / ta mila urteren atseginak?" (Azurmendi J.).

"No(r)k, eta orrek." ("Otxolua").

"Ez aingeruk eta ez arranok / hemen ez du jadanik / egitekorik ezer." (Gandiaga B.).

"Ikusi behar zein jokabidek duen garrantzirik haundiena." (Satrustegi J.M.).

"Gaur, ain zuzen, arrisku geiagok gaukaz inguratuta." (Onaindia).

"Jausi ez nazanean. Ez dau askok egin." (Zamarripa P.).

"Batak erraiten du "behatzea" eta bertzeak "so egitea". ("Axular").

"Ikusiko zuten garai bateko gizonek." (Satrustegi J. M.).

"Txoriek euren mokoan eramaten dute beren umcei jaten emateko erabiltzen duten janaria." (Mendizabal F.).

"Maitasunaren indarra ezbearrek neurtzen dute." (Etxaide J.).

"Sasiek entzun dezaten, / katuek entzun dezaten, / gizonek entzun dezaten, / txoriek entzun dezaten." (Gandiaga B.).

"Nekerik eta miñik ez lukete artu nai olakoek." (Zaitegi J.).

"Nola eratu izan dituzte gure umeeek beren kantak?" (Lekuona M.).

"Hortxe dabil bizia, / dardar kirioak, / ahoek par, bihotzek / zabalik hegoak...!" (Erkiaga E.).

"Bai, Domingo Agirreren lanek garaitia lortu dute." (Villasante L.).

"Kataluñarrek ez omen dituzte beren buruak españitarren anaitzakotzat." ("Lizardi").

"Jan ontatik orok." ("Orixe").

"Oloek ere, goiz-goizik, amonaren iges." ("Orixe").

"Besteek hori aspadidanik egiten omen dute." (Altuna P.).

"Alderdiek, taldeek eta taldetxoek, mordoek eta mordoek -obeki esan, alderdi, talde, taldetxo, mordo eta mordoek buruzagi naiko eta ustekoek- bide erraza aurkitu dute gure artean." (Mitxelena L.).

"Zazpikatueteri bere zazpi hauzoek eman diote izena." (Intxausti J.).

"Moje, token azpitik begirada zorrotzez begiratu zioten; agureek ez zekiten zer egin; haurrek behatza zapatzen jarraitu zuten." (Garmendia S.).

"Lurretik Jaube goretsazute, / iraunsuge eta itxaso guztiok, / su, txingor, elur, eta euria / eta aize-ekaitzek. Aren esanera zaudetenok, / mendi eta muño guztiok." (Olabide E.).

"Oinarririk ez duen asmakeri utsalen bat hartzen dute ontzat batzuek eta besteek." (Mitxelena L.).

Ariketak

1) Aztertu ZERK kasua urrengo doazen literatura-zati, kantu, bertso ta errefranetan:

"Auntzak auntz bear du ta,
akerrak, akerra,
gizonak indartsua,

andreak ederra;
bestela buruz bera
joango da mundua,
eta geldituko da
betiko galdua,
ematen zaiolarik
erru Jainkoari,
nork eman bearrean
bere buruari."

(Iturriaga A. P.)

"Itsasoaren uretan sortua naiz.
Eguzkiak jaio erazia.
Haizeak elikatua.
Mendiek azkartua,
laiñoek barnez taxutua,
pagadi berdeek arimaz osatua,
arripeek gizarteraua,
iturriek sendatua,
zugaitzek bedeinkatua...
Oi lurra! neregan
naizenaren guzia!"

(Lekuona J. M.)

"Sagua ikusi dogu sokea etetzen,
katua ikusi dogu sagua arrapatzen.
Katuak sagua, saguak sokea,
sokeak idia, idiak ura,
urak sua, suak makilla,
makillak akerra, akerrak artoa,
akerra ken. Baratzetik akerra ken,
ken, ken, ken, ken."

(Ume kanta)

"Batak egin, besteak egin, egiña egin."
"Larrak gitxitara lekarke."
Urak dakarrena, urak daroa."
"San Lorentzok esku batean sua ta bestean ura."
"Ehun zaldik ehun zela behar."

"Esku batek garbitzen du bertzea, biek begitartea."
"Estakusan begik, ez ahalgerik."
"Eginak eginkizunik ez."

2) Zeaztu urrengo doazen esaldiok.

Gizon batek egin dau. (Adibidez: *gizon batek egin dau* (zeaztugabez); *gizonak egin dau* (zeaztu singularrez); *gizonek* (gizonak) *egin dabe* (zeaztu pluralez); *gizon onek egin dau* (zeaztu-zeaztu singularrez); *gizonok egin dabe* (zeaztu-zeaztu pluralez).

Gernikar batek erosi eban.

Au zeuk egingo dozu, ez bestek.

Zerk.

Bostek.

Ez mutilek, ez neskak.

Iru(r)k.

3) Euskeratu esaldiok:

Que lo hagas tú o que lo haga el otro, me es igual.

Tanto el uno como el otro, tal para cual, ya que el uno y el otro han dicho y hecho salvajadas.

Esto lo harás tú, no otro.

¿Qué camión te ha destrozado tu coche?

Cualquier televisión no vale para ver una película en color.

Esto, desde luego, no lo ha hecho ni chico ni chica.

Los perros ensuciaron toda la cocina.

Las golondrinas fabrican sus nidos con pajitas y barro.

¿De quién son estos bolígrafos?

¡Oh, Dios todopoderoso, ten piedad de mí!

¿Qué hombre te ha pegado?

¿Te lo ha dado? ¿Quién?

ZERI

Zeaztugabea: 1) *-RI* (bokalez amaitzen diran itzak): *MENDIRI, kaleRI, alabaRI*.
2) *-I* (kontsonantez amaitzen diran itzak): *gizonI; biotzi, bosti*. Bizkaieraz *-ERI* ere erabiltzen da: *gizonERI, bostERI*.

Zeaztua: 1) *Singularra: -ARI: mendiARI, gizonARI, txakurrARI*.
2) *Plurala: -EI: mendiEI, gizonEI, astoEI*. Bizkaieraz *-ai* ere erabiltzen da: *txakurrAI, oilloAI*.

Zeaztu-zeaztua: 1) *Singularra: -ONI (-ONERI ere bai bizkaieraz) eta -ORRI (-ORRERI ere bai bizkaieraz): mutilONI, etxeORRI* (banan idazten dira).
2) *Plurala: -OI: gizonOI, mutilloI, mendiOI*.

Oarrak

1) Izen-sintagma eta aditza alkaturik doaz beti: *Emoizazu neuri; Edurneri emon eutson*.

2) Bizkaiera eta baturantzako era, ezberdiñak dira zeaztugabea (kontsonantez amaitzen diran itzetan) eta zeaztu pluralean.

Zeaztugabez, kontsonantez amaitzen diran itzetan, bietara erabili izan da eta bietara erabiltzen da gaur ere: *batI* eta *batERI; gizonI* eta *gizonERI*, eta abar. Baiña Euskalerrri geienean leenengo forma erabiltzen dan ezkerro eta batu-

rantz jotzeko, orixe erabili bear geunke idazterakoan bizkaitarrok ere.

Zeaztu pluralez ere, gizaldiak joan eta gizaldiak etorri, eskolarik ezak eta batasunik ezak naasteborraste aundi bat sortu dau. Izan ere, *gizonEI*, *gizonAI*, *gizonERI*, *gizonARI*, *gizonER* eta abar esan ta idatzi izan dira, eta gaur ere forma guzti orreek eta geiago erabiltzen dira bai izkeran eta bai idazkeran. Onexegaitik, naateborrasteak garbitzeko eta baturantz jotzeko, forma bakar bat artu bear genduke idazterakoan (eta esaterakoan ere bai, aal izanik), au da, Euskaltzaindiak aukeratu dauana: *-EI*. Eleizkizun-liburuetan ere orixe erabiltzen da.

Ona emen, azkenez, Azkueren eritxia *ZERI* kasuko atxizki orrei buruz: "Algunos consideran este sufijo como si la R que le acompaña a veces, como eufónica, le fuera esencial, formase parte integrante, y dicen BATERI por BATI, ONERI, por ONI: AGUSTINERI (B-g-l...) por AGUSTINI (AN, B-m, BN, G-and, L, R, S); NORBAITERI (Añ. *Esqu-lib.*, 123) por NORBAITI (*Per. ab.*, 81-7) 'a alguien' Otros conservan esta R eufónica aun en plural y dicen ZUERI por ZUEI 'a vosotros', GIZONARI por GIZONAI o GIZONEI 'a los hombres'. "(R. M^a. de Azkue, *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbao, 1905, 377 orr.).

Azkueren adibideak ugarituz, *guztiORI*, *arERI* edo *arEI*, erabiltzen da Bizkaian *guztiOI* erabili bearrean; *arERI*, edo *arEI*, *aiEI* erabili bearrean, eta abar. Jakiña, erriak bere bideak ditu, bere erreztazun bideak, eta *ZERK* kasuko oarretan esanda daukagunez, itz batzuk gogor samar biurzen dira esateko: *ogeiEI*, *adiskideEI*, *gauEI*, eta abar. Bokalk geiegi batera (eta gipuzkoarren *aaideEI* gogotan artu barik). Erriak, orrexegaitik, *r* bateaz eusten deutse bokalei: *ogei-ERI*, *adiskideERI*. Baiña, dana dala, beste izkuntza batzutan egiten daben legez, idazterakoan batasun bat bear dogu eta forma bat eta bardiña artu bear dogu euskaldun guztiok.

3) Gogoan euki sarrerako argibideak eta *ZER* eta *ZERK* kasuan jarritako oarrak.

Adibideak

1) Zeaztugabea

Zorioneri ta *Tomas(er)ji* emon deutsedaz zure karameloak.

Lau neskari ta *bost mutill(er)ji* kendu ei deutsez karnetak.

Lauri ala *bosti*?

Zeuri emongo deusut, ez *beste iñori*.

Oni emon zein *orri* emon, bardin da.

Zenbati zabaldu deusazuz orriok? *Bati?* *Biri?* *Iruri?* *Lauri?* *Bosti?* *Seiri?* *Zazpiri?* *Zortziri?* *Bederatziri?* *Amarri?* *Amaikari...?* *Zenbati?*

Zein kaleri ezarri deutse izen ori?

Zein alabari emon deusazu etxaldea?

Amaika gizoni ta *emakumeri* irakatsi deutset nik euskera!

Ez itxi ori *edozein neska gangarri*.

Aldatu egin deutsez alkateak *Urdulizi* ta *Gamizi*. *Lezamari* ta *Zamudiori* ez.

Ainbat astori ta *txakurri* ebagi geuntsezan guk gaztetan buztanak.

Zeiñi emon diñozu? *Edozeiñi*.

2) Zeaztu singularra

Batari emon zein *besteari* emon, bardin da.

Albait ariñen etorri daitela esan egiozu *albaiteruari*, anka bat apurtu jakola *zaldiari* ta.

Nork ez deutso bildurrik *gauari*?

Aldatu egin deusat kristala erlojuari.
Ateari ta maiari kolore gorri geiago emon.
Zerari emon deusat: medikuari.
Ez egin jaramonik ganorabakoari.
Ez daukazu pinturarik emen? Eskatu, ba, ugazabari,
garotu bat emon dagiodan bere kotxeari.

3) Zeaztu plurala

Ez emon arraiñik katuei (*katuai* bizkaieraz).
Besteei ez deutse ezer kendu.
Au *neure seme-alabei* bakarrik emongo deutset, ez bes-
teri.
Zaarrei ta gazteei, aberatsei eta probreei, guztiei jator-
ke, leentxoago edo gerotxoago, eriotza.
Zure ikasketei buruz auxe esan bear deusut: *matemati-*
kei baiño ordu geiago emoteko *letrei*.
Ez dakit zer egingo neuskioen *zu lako txoriburuei*.
Corriei ta zuriei, astiñaldi ederra emon eutsen *danei*.
Zer gertatzen jake *gure ikastolei*?
Bostei (bostai) emon deutset.
Ez emengoei ez *kanpotarrei*, iñori ere ez.
Eta *lagunei* zer?
Batzuei kendu, *beste batzuei* emon, kitu.

4) Zeaztu-zeaztu singularra

Orr(er)ji erosi aal deusazu?
Memelo oni kendu deutso.
Oni katu oni ez dakit zer pasatzen jakon.
Lagundu *gizon orri*.
Ez egin jaramonik *mutil orri*.

Orr(er)ji berorr(er)ji emongo neuskioz nik olako ogiak.
Niri neuri ez deust ezer erakutsi.
Zer egin deusazue *auto oni*, ba?
Orre(er)ji zoro orr (er)ji berari esango neuskio nik ori.

5) Zeaztu-zeaztu plurala

Irakatsi, irakatsi gazteoi.

Edertasun bat kendu ta beste edertasun bat jarri deutse
edurrak *mendioi*.
Zuoi, soldaduoi, ez deusuet dirurik eskatuko.
Eta *gureoi* zer?
Azkenean ez ei deutse ezer egin lapurroi.
Izena ipiñi bearke jake *kale barrioi*.
Belarriondoko bana *olako kirtenoi*, ta kitu.
Eta *oilloi* zer?
Zuoi bioi neuk emongo deusuet. Etorri ona.

Idazleen adibide batzuk

"Ernegau eragingo zeuskio santu bati be." ("Kirikiño").

"Gure erri maite oni bere sinesmen eta ekandu onetan
iraunazoteko." (Eguzkitza J. B.).

"Betiko zorionerako atea zabaldu naiez gizon kezkatu
orri." (Akesolo L.).

"Ukabilkada galantak Satanasi buruan emonaz." (Azkué
R. M^a.).

"Oles egin giñon Juanesi." (Agirre Tx.).

"Alkarri didar bat edo beste egiten izan dautsee." ("Kiri-
kiño").

"Umea egiteko aldia eldu jakon Elizabeti eta seme bat
izan eban." ("Kerexeta").

"Ez deutsee parkatuten euren miin gaiztoagaz ez zaarri

ta ez gazteri ez sendori ta ez argali." (Madariaga B.).

"Bizkaitar batzuei entzun jake." (Arana S.).

"Etzion orrelakorik egin beste iñongo erriri." (Zugazti A.).

"Baiña bere galtzeari begiratzen ez dionak nola begiratu dio besterenari?" (Mendiburu S.).

"Bakean izteko eurei txakur kontu areekaz." ("Kirikiño").

"Eskubide orrei sendoroago eustearren." (Eguzkitza J. B.).

"Gaurko euskaldunei bakezaletasuna!" (Arana S.).

"Galdu gaitue arrotz ta erdaldunak, ta tximiño egiñik jarraitu gura deutsegu aen asmoei." (Mogel J. A.).

"Goizeko intza dirdiraz betea azaltzen zan arripitxizko dirdai ta edertasun emanik belar buru ta ostoz gazte garbiei." ("Uxola").

"Zeuri beste iñok egitea nai etzeunkanik besteri ez egiozu egin." (Eguzkitza J. B.).

"Zergatik, zertako / -nork esango eni? / emen..., or..., an..., ni...? (ni?)." (Mirande J.).

"Aita zerukoak Jesusi esan eutson lez: "Zugan dot neure atsegiña" bardin-bardin esaten deusogu salmoetan zeruko Aita orri." (Akesolo L.).

... "Nok irakatsi deusue, sugekumeoi, zuekana etortzeko dan asarreari iges egiten?" ("Kerexeta").

"Nere Aitak igorri ninduen ni edo bidaldu ninduen, bearrean arkitzen diranei erakutsi onez laguntzera." (Mendiburu S.).

"A zan txoriei eutsen jokera ta maitasuna!" (Bilbao F.).

... "Guduez lehen aldiko adiskideen miñez | zelai ta bide ezagunei galdegin diet ziñez." (Erkiaga E.).

... "Aiton-illobak untzetara joan giñen mendira, lastoarekin nastuta txikitu ta beiei emateko." ("Orixe").

"Atadiragiño etorri bear daben morroioi." ("Otxolua").

"Parkatu egiezu onei be eurok egin dabe utsa." ("Otxolua").

"Nere gantzutuak ez ikutu / eta nere igarleei kalterik ez egin." (Olabide E.).

"Euskaldun kristauei eginkizun ortan laguntzeko asmatan argitaratzen dugu liburu au." (Iraizoz P.).

"Ni erne nago ezagunei gogozko begi-keñu bat egiteko zaletuta." ("Lizardi").

"Guri geuroi, berriz, ez dakit zer sorginkeria dela medio, geure egiazko irudia atzendu edo egin zaigu." (Mitxelena L.).

"Lizardi ta Lauaxetaren oiñazei jarraiki dabillela." (Onaindia S.).

"Begi tristeei poza nahi diezu." (Lekuona J. M.).

"Auxe eskatuko nieke gazteoi." (Onaindia S.).

"Gure gizaldiko gizonei, gutarrei eta bestetarrei, gertakari penagarria gertatu zaie." (Mitxelena L.).

"Opil-gozo edo tarta ematen diete mutilei, berek ur berria edan ondorean." (Satrustegi J. M.).

Ariketak

1) Aztertu ZERI kasua urrengo doazen literatura-zati, kantu, bertso ta errefranetan:

"Arengandik etorri da Gipuzkoara literatura, ez urria ere. Larramendik eman zion biotz eta kemen oiartzuar Mendiburu ospetsuari; baita beste bere Anai Kardaberazi ere. Lardizabal, Arrue, ta abar ta abar, zer edo zeren zordun zaizkio Aita Manueli. Ta nor ez Gipuzkoan naiz Bizkaian oraintsu arte?" ("Orixe").

"Iraunkortzat naukee,
ta ikustèn dabe

zelan eusten deutsadan
heldutakoari.
Nire eskuei odola
darie haizkora apustuan
haizkolariei bezala;
estropadetan arraunlariei
bezala, odola darie
nire esku ta besazpi
hain porrokatuei.
Ta odola dario nire buruari
gogorrigo batekin burruka gogorrean
ari den burrukari
makalagoari lez;
nahi ta ezin dauanari lez;
ta agonian bizi naz
hiltzear dagoena
bizitzari itsasten jakon
gaisoa lez.
Iraunkor ni...?
Ez garaipen ustez."

(Gandiaga B.)

"Nork nori? Zartagi zarrak pertzari: utikan, beltz ori!"
"Gizonari berbatik eta idiari adarretik."
"Egik ongia lehenik eurei; gero, ahal baduk, atzei."
"Otsoak otsoari gatzik ez, ta lapurrak lapurrari laztan."
"Edozein txoriri eder bere (k) abia."
"Asto batari buztana ken, bertzeari ezar."
"Oinezkoari muzin, zaldizkoari ezin."
Ekandu gaiztoari bernea ausi."
"Ogi gogorrari agin zorrotza."

2) Zeaztu urrengo doazen esaldiok:

Mutil bati emon deutsat. (Ikusi adibideak ZER eta ZERK kasuan).

Zuei emon deutsue ori, ez besteri.

Zeri.

Amabosti.

Nik ez deutset erakutsi ez zaarri ez gazteri.

Zortzi neskari eta lau mutilli.

Eleiza.

3) Euskeratu esaldiok:

Te lo ha dado a ti, no a ningún otro.

Se lo he dado al otro.

¿A qué otro?

¿A qué hombre se los has dejado?

Al hombre que está ahí enfrente.

Tanto a los unos como a los otros no les falta razón.

A los tordos nada.

Yo no le vi a mi madre. Si la hubiera visto le habría dado el paquete a ella.

No deis chuletas a los perros.

No deis chuletas a estos perros.

Ten cuidado; no se lo des a cualquier chaval.

No les he visto, no; ni a Tomás ni a Mikel. Creo que han ido a entregar los libros a los maestros.

Agárrale a este coche.

¿A cuál?

A cualquiera.

ZERIK

Zeaztugabea: 1) -RIK (bokalez amaitzen diran itzak):
mendiRIK, autoRIK, ogiRIK.
2) -IK (kontsonantez amaitzen diran itzak): *itzIK, biotzIK, MikelIK.*

Zeaztua: Ez dauka zeazturik.

Oarrak

1) Sarreran esan dogunez, auxe dala esan geinke euskal deklinabideko kasu guztietarik zeaztugabeenetarikoa, deklinabidekera zeazturik ez dau onartzen eta.

2) "Muchos en AN, G, L añaden *ad libitum* a este artículo indefinido la enclítica *an*: *indarrikan bat ere ez 'nada de fuerzas'* (Ur. *Dan.* X-17). Esta enclítica no significa nada, ni siquiera añade o quita matiz de significación al vocablo. Y no se emplea porque *ik* sea artículo o por su carácter de indefinido, sino sólo por su sonsonete." (R. M^a. de Azkue, *Morfología vasca*, Bilbao, 1923, 273 orr.).

3) Euskaldun barriak eta euskaldun zaar gazteak ere, espaiñolaren eragiñagaitik, ez dabe erabiltzen sarri askotan eta *erreka andiena, badaukazu dirua?, lotsea baleuko* ta olakoak esaten ditue *errekarik andiena, badaukazu dirurik, lotsarik baleuko* esan bearrean. Augaitik, ba, ona emen noiz erabiltzen dan:

a) Ezezko esaldietan (ez, ezin, gabe, barik eta abarrez):
Ez dot ekarri, ba, diruRIK eta...; ezin erosi, ba olangoRIK; lanIK egin ba(ga)RIK ez dago zeregiñIK; jakeRIK gabe zoaz ala?; ez dozue ikusi astoRIK?; autoRIK euki ezik, oso txarto. Baiezko esaldietan ere erabiltzen da batzutan (geroago ta geiago gaur): Badago emen zeregiñik.

b) Zuzeneko edo zearreko galderazko esaldietan (ba, aal, ete, ala eta abarrez): Ikusi aal dozue txakurrik?; dirurrik badaukazu aldean?; eskopetarrik daukadan ala ez itandu deust; etorri ete da gizonrik; ikusi ia ogirrik ekarri dauan ala ez; euren astorrik ikusi ete dodan esan deust.

d) Baldintzako esaldietan: Lotsarrik baleu, ez litzake or, jende guztiaren aurrean, bilosik egongo; inork berba ganorabakorrik esaten badeutsu, neuri deitu.

e) Aditz-lagun bezela: Ortosik, pozik, bakarrik, gaixorrik, baraurik, utsik, gazterik, eta abar. Aditza bera ere aditz-lagun biurtzen da ZERIK kasuan: Ikusirik, jakinik, sarturik, igonik, arriturik, egiñik, eta abar.

f) Geiagotasuna adierazten dan esaldi batzuetan: Auxe da errekarrik zabalena; nork jakin nor dan mutillik zuurrena?; Bilbo da Bizkaiko urirrik aundiena; beiñik bein.

g) Asko, gitxi ta a(d)inā-rekin egiten diran esaldi batzuetan: Zaarrrik, gitxi etorri dok; Jainkorrik aiñā, eskerrrik asko.

4) Bereiztasun orreek euki bear dira kontuan, ba, ta ez sarreran jarritakoak, ZERIK kasu au, aparteko kasu au, ondo erabiltzen jakiteko.

Adibideak

Ez nekian atzo goizean etorri ziñanik.

Ez zaarrrik ez gazterik, inor ere ez jaku agertu gaur emen. Olangorrik!

Zuk ez dozu esaten ez baietzik ez ezetzik?

Orixe leenengo egin ezik, ez daukazue ona sartzerik.

Nik neuk beintzat ez dot ikusi orrelakorik inoiz ere.

Aundiagorrik ere egingo dozu zuk oraindiño.

Dirurrik euki ezik zer? Zelan erosiko dogula uste dozue zuek, ba, olango autorik?

Orain egiñenik ez dozu ori.

Autoa erosienik ez dozu ara joateko.

Emen ez da agiri ez libururik, ez boligratorik, ez kuadernorik.

Ezta apunterik ere. Aundiagorrik!

Guk ez dogu ikusi Keparik.

Naiko lorrik daukagu guk zuokaz emen. Jesus!

Txotxolokeriarrik egin barik, gero, e!

Zu, sartu (aal) dozu egurrik sutera?

Ikusi aal dozue inoiz inon kalerik au baiño politagorrik.

Bere zerik, karterarrik ikusi ete dodan esan deust.

Ez dozula ekarrienik edo olakorik esaten badeutsu, ez egin jaramonik.

Ementxe nago, gaixorik eta bakar-bakarrik.

Arriturrik gelditu ziran an jazorikoa ikusirik.

Zaarrrik iltea ez da mire egitekoa, danok il bear dogu ta. Baiña ain gazterik iltea...

Ea da erri-izenik laburrena.

Orixe ei da abeslaririk onena, baiña ez ei dau irabazi diru askotzarrik kantuen bitartez.

Eu az i, eu, mozolorik asko, txatxar buru aundi ori!

Lelorik leloena izan arren ere, lagundu egin bear jako, eta pozik, gizonari.

Azkenik.

Goizean goizik.

Nora zoaz, ba abrigua jantzi barik? (Edo abrigurrik jantzi barik).

Idazleen adibideak

"Baldin inork kalterik egin badu soroan edo mastian..." (Uriarte J. A.).

"Aberatsik neu nintzan bakarra." (Azkue R. M^a.).

"Izan nahi hori barik / ez dago Euskalerririk." (Gandiaga B.).

"Erri andi artako jakintza zarrak biotz zarrasta onik egin zion Platoni." (Zaitegi J.).

"Munduko surren surrik surrena." (Azkue E.).

"Euskaldunak dirurik / egiten du baina / euskerarik ez." (Gandiaga B.).

"Etzuen, beraz, artzen ez arnorik, ez urik, ez esnerik, ez saldarik, edatekorik deus ere." (Joannategi).

"Bigunago zegoan sasiko masustarik elduena baiño." (Aguirre Tx.).

"Jangoikoaren berririk (bear zenik beintzat) etzen erre-
suman edo erreinuan." (Mendiburu S.).

"Gaur besterik da." ("Lizardi").

"Ez dago euskaldunik asko hizkuntzari eta herriari Zai-
tegiaren neurrian lana, ondasunak, osasuna bera eskaini
dizkionik." (Mitxelena L.).

"Gaur badogu onetan nasterik naiko." (Onaindia S.).

"Alan geratu zan ixilik / kantarik leunena kantetan. /
Eta arrats a baxen samurrik / etzan izan leiar meetan!"
("Lauaxeta").

"Dakust argirik zerua." (Mikoleta).

"Bada oraindik haren ateraldi eta erantzunak gogoan
dituenik Erreterian." (Mitxelena L.).

"Josef, norat daramazu / Birjina unhaturik? / Betleen
edirenen / eztuzu ostaturik." (Etxeberri J.).

"Ai! Aur ederra...! / Ausirik gabe / ta loirikan batere /
utzirik gabe." (Sor Luisa).

"Amaren biotzean ipiñi dauz Jaugoikoak biguntasunik
andienak, gozotasunik eztiak, samurtasunik samurrenak
eta amaibageko errukitasunik pozgarrizkoenak." (Aguirre Tx.)

"Egundo olakorik!" (Azkue R. M^a).

"Gizon nagia gorik eta itxia gorik...!" ("Kirikiño).

"Aitarik, amarik / ez; horren zorigaitza!" ("Oxobi").

"Berau da au mozolorik asko, ta ez txikia be, gero!"
("Otxolua").

"Basotar leunak ez daki Beethovenik zanik, / ez or zear
dabiltzan eresien barririk." ("Aurratiz").

"Badago obarik!" ("Otxolua").

"Ez dezadala nik beste zerik entzun." ("Orixe").

"Ni gazterik ezkondu nintzan." (Zamarripa P.).

"Handiagorik be esango dok hik!" (Bilbao F.).

"Azeria oilloa jaten baiño pozagorik dagoz." (Mada-
riaga B.).

"Beste iturrik baduzue herrian?" (Satrustegi J. M.).

"Naiko izen polit egokirik jarri deusadalakoan nago."
(Bilbao F.).

"Ez da munduan gizonik / erregerik, ez printzerik, / ni
baino obeto denik." (Elizanburu J. B.).

"Ez nebarik, ez arrebarik, ez aitzarik, ez anaerik bakoa?"
(Azkue R. M^a).

"Mikel izenak "nor Jainkoa aiñakorik" esan nai badau,
Unamunoren izenak "nor ni aiñakorik" esan nai dauala
esan geinke." (Akesolo L.).

"Ia alkar ikusteko aukerarik dugun." ("Txillardegí").

"Baditu prolema ta arazo xelebregorik." (Intxausti J.).

"Egin zen festa ederrik." (Garmendia S.).

"Ez dot nik emen ukatuko orretarako errazoerik ez
dagoanik." (Etxenagusia K.).

"Ez baitut probetxurik tristaturik ere; / nehun deusik
ebatsi, gizonik hil gabe." ("Bordaxuri").

Ariketak

1) Aztertu ZERIK kasua urrengo doazen literatura-zati,
kantu, bertso ta errefranetan:

"Iñoiz

ez degu nai genduken bizi
ez itzalperik;
iñoiz
ez degu, ez,
nai genduken zabaltasun
ta izaterik;
ez degu, ez
nai genduken berarizko
ibilte te
bizi-biderik."

(Muniategi S.)

"Baserritar lander bat, apal eta itzalik,
datza illobi onetan betiko eortzirik.
Matxarra zan; ez eukan gizon itxurarik;
baña adimenez argi zoli zindoa izanik,
mundu osoa itzi eban txit arriturik.
Bertolda eban izena, ta bizi zalarik,
bakaldunaren kutun izatera eldurik,
jauregian il zoan oiñazez beterik
ez eutselako jaten emon ez baba ez arbirik."

("Otxolua")

"Agur, Xuberoa,
bazter guztietatik txokorik ederrena.
Agur, Aterratze,
zurekin ditut ameserik goxoenak;
biotzaren erditik
bortzetan jalki ditadazut asperena
zu utziz geroztik
bizi naiz tristerik, abandonaturik;
ez bai da erririk
Paris ez besterik, zu bezelakorik.
Sorlekua utzirik, gazte nintzalarik,
Parisera joan nintzan kuralez beterik;
plaserez gose eta buruan arturik
bear nuela alegere bizi,

bortzetan geroztik, negar egiten dut
Xuberoagaitik."

(Erri-kanta).

"Zaldizkorik ez ta oiñezkorik nai ez."

"Asterik eta urterik onenak, txarria ilteko astea eta
ezkonduteko urtea."

Eskerrik asko, Mari Belasko; Ondarroan dago atsorik
asko."

"Bildotsik oberena zintzarririk gabea."

"Laarrik ez onik."

"Eztago eriotza aberatsik, ez ezkontza pobrerik."

"Ardao gozoak lau begi ta oiñik ez."

Txiribiri txitxi, gure txakurrak azurrik asko ta maminik
gitxi."

"Extago ezterik gibelmin gabarik."

"Ifar aizeak leku gorderik ez, pobreak adiskiderik ez."

"Ez ardao bizdunik, ez andra bizartsurik."

"Erroiaren arrautzeak usakumerik ez."

"Balizko oleak burdiarik ez."

2) Euskeratu esaldiok:

No he comprado manzanas.

Como no he traído dinero, no lo he podido comprar.

Pregúntale a Marcos a ver si ha traído pan o no.

Los guardias le preguntaron entonces a ver si había
visto escopetas en aquel zarzal.

¿Has comprado periódico?

Si no tienes coche, ni moto, ¿cómo vas a ir para las
nueve y media a casa de tu tío?

¿Tienes dinero?

¿No tienes ganas de comer?

Ni ganas de comer, ni sed, ni sueño.

Si tuviera miedo no habría venido aquí solo.

Está muy contento.

Nos quedamos petrificados del susto. Semejante susto no nos ha dado nadie.

¿Cómo lo tomas (el café) ¿Solo?

Hoy estoy todo el día en ayunas.

Habiendo visto lo que había ocurrido, avisó rápidamente al cura y al médico.

Este es el mejor jugador de mus de toda la vecindad.

Yo, al menos, no le hecho ni caso.

Tantos como Dios.

Han venido pocos viejos.

Si tuviera tiempo...

Vacío.

ZEREN

Zeaztugabea: 1) *-REN* (bokalez amaitzen diran itzak): *MendiREN, buruREN, loraREN.*

2) *-EN* (kontsonantez amaitzen diren itzak): *gizonEN, bularREN, lurrEN.*

Zeaztua: 1) *Singularra: -AREN: mutillAREN, txakurrAREN, itzAREN.*

2) *Plurala: -EN: ErriEN, nesKEN, kaleEN.*

Zeaztu-zeaztua: 1) *Singularra: -ONEN eta -ORREN: mendionEN, mutillORREN (idatzi banan idazten dira).*

2) *Plurala: -ON: katuON, eleizon, etxeON.*

Oarrak

1) Uts asko egiten dira kasu onetan. Izan ere, *gizonan etxean (gizonAREN etxean), Kepan semea (KepaREN semea), astoan bat (astoREN bat) eta olakoak esaten dira (eta idatzi ere bai) sarri askotan. Egia esan, forma jatorrak dira fonetikaren aurrerapide aldetik, baiña euskera batu ta landu bat lortzeko ez.*

2) *-REN* atzizki ori *-RE* biurtzen da geienetan persona-izenlagunekaz alkartzean: *niRE, iRE, zuRE, beRE, guRE.* BAIña *aREN, zuEN, aiEN, euREN...*

3) Kasu alkartu asko sortzen dira ZEREN (edo NOREN) kasu onetatik. Atzizki bi edo iru alkartuz sorturiko kasuak: *ZERENTZAT, ZERENTZAKO, ZERENDAKO, ZE(REN)TAKO, ZE(REN)GAITIK eta ZERE(N)KIN, ZE(REN)GAZ, NORE(N)KILA, ZE(REN)GAN (gain?), ZE(REN)TAN, NO(REN)GAN, ZE-*

(REN)TARA, NO(REN)GANA, ZE(REN)TATIK, NO(REN)GAN-DIK eta abar ere bai, bearbada. Ona emen adibide batzuk: Norentzako da ori?; ez dakit au ze(ren)gaitik ekarri dozun; zerentzat ekarri dozu ori, ba?

Beste atzizki batzuk alkartzean, itza laburtzeagaitik edo, kendu agiten da sarri askotan ZEREN kasuaren ezaugarri dan -REN ori: zutzat edo zuretzat, semeagana edo semearengana, gutzako edo guretzako. "Hablando con rigor, en estos paradigmas se podría distinguir (como nota Michelena) entre casos propiamente dichos y posposiciones. Gizona(ren)gan es una posposición, lo mismo que eliza(ren) aurrean. O sea delante de la posposición se admite el empleo del tema mismo o el del posesivo." (L. Villasante, *La declinación del vasco literario común*, Oñate (Gipuzkoa), 1972, 23. orr.).

GAITIK atzizkia -KAITIK biurtzen da bizkaieraz zeaztu pluralean eta zeaztu-zeaztu pluralean: semeekaitik (semeengaitik edo semeen gaitik). Lagunekaitik (lagunengaitik edo lagunengaitik).

Naiz eta ZEREN kasuari dagokiozanak izan, euskal deklinabideko paradigmatan onarturik dagozan ezkerro, emen ere aparteko kasuak balira legez artuko doguz batzuk, gero ikusiko dogunez.

4) Geiagotasuna adierazteko erabiltzen dogun -EN atzizkia ere ZEREN kasuari dagokion atzizkia dala uste dot, ZEREN kasuko zeaztu pluraleko atzizkia. Esate baterako, andiena, andi-EN-A 'aqueel de los grandes' izango zan seguru asko; errekarik andienetarikoa, errekarik andi-EN-(A)ETA-RI(K)-KO-A 'de entre los ríos el de los grandes'.

5) Onen, orren, eta aren izenordeekin egiten diran esaldi asko esakera biurtu dira, espaiñolera itzultzean ikusi daikegunez: Orren goizetik nora zoaz, ba? '¿dónde vas, pues, tan temprano?'; ain <aen<aren larri zergaitik zagoz? '¿por qué estás tan apurado?'; ez zaitetz orren kokoloa izan 'no seas tan ingenuo'; onenbeste diru zertarako bear dozu,

ba? '¿para qué necesitas tanto dinero?'; aren barreak eta txaloak! 'qué risas y aplausos (los de aquellos)'; Donostiako gaztelupeko sagardoaren gozoa! '¿cuán dulce es la sidra que se bebe en el bajo del castillo de San Sebastián!'; bazterretik bazterrera, oi!, munduaren zabala! '¿Qué ancho es el mundo del uno al otro extremo!'; ibilliaren ibiliaz nekaturik gagoz 'estamos rendidos de tanto andar'; axe ikusbearraren ikusbearraz erre kara jausi da 'tenía tanto interés en ver aquello que se ha caído al río'; ain etxetan 'en tal casa'; onen lekutan 'en tal sitio'.

Bat kontatzailliaz alkartzean ere esakeratu egin dira sarri askotan: Ainbat 'muchos'; ainbat ariñen 'cuanto antes'; orrenbat, orrenbaten, arenbaten 'aproximadamente, poco más o menos'; ainbatetan 'muchas veces'; ainbat, lekutan 'en muchos sitios'; zenbat? (< zeren bat?).

6) Zeaztugabeko atzizkia, -REN, eta bat kontatzaillia erabiltzen doguz espaiñolezko algún adierazteko. Ona emen adibide batzuk: txakurrEN bat izango zan 'habrá sido algún perro'; beste lekuREN batean lagako zenduan 'lo habrás dejado en algún otro sitio'; lapurrEN bat sartu ete da, ba? 'habrá entrado algún ladrón'; gizonEN batzuk 'algunos hombres'. Kontsonantez amaitzen diran itzak ondo deklinatzen doguz geienetan, baiña bokalez amaitzen diranak ez, eta -REN erabillibearrean -EN (edo -AN) erabiltzen dogu: astoEN bat (edo astoAN bat), etxeEN bat (edo etxeAN bat), eta abar. Idazle zaarrak, bizkaiera batua eta euskera batua gogoan arturik, -REN idatzi dagigun, ba, beti: astoREN bat, etxeREN bat, kaleREN bat, neskaREN bat...

7) Kontatzailliekaz ere zeaztugabeko atzizki ori erabiltzen dogu espaiñolezko unos, poco más o menos, aproximadamente adierazteko: OgeiREN bat lagun etorriko ziran 'vinieron unas veinte personas'; amarren bat izango ziran 'serían unos diez'. Baiña atzizki barik ere erabilli daikegu: Ogei bat, amar bat. Ain zuzen ere, bietara erabilli izan da, eta bietara erabiltzen da gaur ere. Eta beste modu askotara: ogei aldera; ogei, gitxi gorabeera; ogei edo...

Adibideak

1) Zeaztugabea

Noren begira zagoz, ba?

Auxe da *Gotzonen eta Karmeleren* etxea.

Zein mendiren gaiñean jarri dabe ikurriña? *Zein*en gaiñean?

Naiz eta ezibakoa eta okerra izan, *edozein* zaldiren gaiñean ibilliko litzake ori.

Bilboren ondoan txikia da Soria.

Zeren bildur zara, ba, orain?

Amabiren bat etorri ei dira, ez?

Zeuk ere orren antzera egiten dozu: *besteren* lepotik jan.

Txal biren tripakiak jan dituela entzun dot. Bai, *bosten* artean, *Kosmeren* tabernan.

Lagun *askoren* aurrean egon arren, ez zan atzeratu.

Ez dot *iñoren* erregalurik artu, ez *amaren*, ez *aitaren*, ez *aitabitxiren*, ez *amabitxiren*ik.

Etortzekoa bada *etorriko* da, *berak* deritxon *orduren* batean.

2) Zeaztu singularra

Maiaren zabalera.

Mendiaren tontorra.

"*Erriaren* piñudiak" eta "*erriko* piñudiak" ez da bardin.

Jakin egin bear da *jentearen* aurrean egoten ere.

Zul Zer jarriko dogu emen: "*Munduaren* pekatua" ala "*munduko* pekatua".

Non dagoz, ba, *Eleizearen* eskubideak.

Emetixe ere entzuten dira *gure txakurraren* ausiak.

Zer ipiñi dozu *telebisiñoaren* gaiñean?

Kalearen erdi-erdian egin eban txiza.

3) Zeaztu plurala

Gazteen ametsak ederrak dira.

Errien izenak, beñik-bein, euskaldunak dira. Eta *kaleen*ak eta *etxeen*ak ere bai.

Naziñoen arteko eztabaidak arrigarriak dira.

Ondo ere ondo dakigu *gerrateen* ondorena zein dan.

Adiskideen etxetik zatoz?

Gureen aldean *zuenak* bestelakoak dira,

Besteen erantzunari begira? Ona zagoz.

Badakizu: "*Emakumeen* indarra, negarra."

Seme gazte *bien* arduraz bizi da aspaldion.

Ogeitalauen izenak artu ditut.

Katuen antzera *dabil*

4) Zeaztu-zeaztu singularra

Mutil onen etxea oso polita da.

Auto orren txirrinka ori ez dozue luzerorako.

Orren mutil orren ganor(e) a ere...!

Il dan *mutiko onen* aitari nork esango deutso orain zer gertatu dan emen?

Badakizu zertarako gura dogun *auntz orren* narrua? Ba, *alfombra* bat egiteko, *orrexetarako*.

Onen zoro onen diru irabazteok ere ez dakit nik zertan geldituko diran.

5) Zeaztu-zeaztu plurala

Nork eroan ete dau, ba, *zuon* autoa?

Ikaratu egiten zara *txakurron* aurrean, ezta? *Zuon* gazteon aurrean urduritu egiten dira baiña, ez ikaratu, ez deutsue ezer egingo ta.

Oso polita da gero, izan ere, *loron* kolorea.

Bizirik dagozan *santuon* santukeriak baiño naiago ditut nik ilda dagozen *santuen* santutasunak.

Iruron dirua da ori.

Arrion gaiñean ipiñi, mesedez.

Zeron etxean egon naz, *beste mutillon* etxean.

Idazleen adibide batzuk

"Pontuaren latza! Pausuaren gaitza! Egitekoaren handia! Hesturaren hertsia eta izigarria!" ("Axular").

"Besteren batek ateratzen badituz, ondo." (Zabala J. M.).

"Beste bekaturen batean." (Agirre J. B.).

"Gizon buru-soil bizar-zuri bat / *bi makuluren* gaiñean." (Otaño P. M.).

"Errazoaren batzuk esateko." (Kapanaga).

"Edozein erriren ipuin ta irakurgaien ondoan." (Azkue R. M^a).

"Edonoren aoan eta miñean." ("Otxolua").

"Obeto nukeala itxeki beargai goragoren ta ederragoren bati." (Larramendi M.).

"Beste iruren morroe edo otseiña." (Mogel J. A.).

"Era orretako ontziren batean." (Mendiburu S.).

"Barriren barri diñotsugu." ("Otxolua").

"Gizon lodi andiren bat." (Iztueta).

"Emakume ezkonduak ere ba(da)goz, *iñoren* upako ardaoa edaten dabenak, askoren kariñuari biotzean leku emoten deuseenak." (Madariaga B.).

"Senide edo auzokoren batek beragaz ekarri izango ebalakoan." ("Kirikiño").

"Zori oberen baten atzetikan goazen." (Mixelena S.).

"Hainitz aitzindari ta buruzagiren izatea baiño hobe

bailizate osoki batere ez izatea." (Etxeberri J).

"*Naigaberen bat*, *ezbearren bat* datorkizunean, artu zazu patxadan, alperrikako aserre gabe." (Agirre Tx.).

"*Ezkuturen bat* / gordea badin / laiño gorrixken arrebak." (Etxaniz N.).

"*P. Lafitteren* "Eskualdun loretegia". (Etxenagusia K.).

"Billatu bearko dezu, naiz dela nekez beterik eta negarra dariezula, *beste lekuren bat*, *beste tokiren bat*, eta bertze bizitza." (Mendiburu S.).

"Berehala ikusi nuen, ez baitzen argitasun bereziren beharrik hori ikusteko." (Mixelena L.).

"Zure berbak ezeze, *besteenak* ere..." (Añibarro P. A.).

"Gaur goizeon il baita *biren* maitasuna." ("Kerexeta").

"Beste guztiak, *atso-aguren* agiñak legez, or ta emen banakatuta dagoz." (Azkue R. M^a).

"Nok gazteon biotzok maitasunez bete." ("Kerexeta").

"*Aren* arrantzak, *aren* alarauak, *aren* diadarrak, amaseikoak emon bearrean lepoa makillaka birrindu bear eutsela ikusieran." ("Otxolua").

"Zure ta beste erderarik eztakienen onerako." (Añibarro P. A.).

"Antxiñako *mutil*, *neskatilla*, *gizon* ta *andreen jaantzi* iraunkorrak." (Mogel J. A.).

"Euskera *onaren* iturri." ("Orixe").

"*Aitearen* eta *Semearen*... Ondiño olakorik!" ("Otxolua"). (*Aita ama* barik *aitea* ta *amea* esaten ziran antxiña. Gaur ere animaliei buruz *amea* esaten da).

Ariketak

1) Aztertu ZEREN kasua urrengo doazan literatura-zati, kantu, bertso ta errefranetan:

"A, esker txarreko andra nabarmenok! -egin eban oiubakaldunak-Noiz agindu nik olakorik? Alde, alde nire ondo-

tik oraintxe bertan eta zoaze inpernuko ondarretara mada-ri-madari alamenekook alakook. Oraintxe ikusi dot argi "andrea" diñonak "balbea" esan gura dauala, balbeak berak baiño zoritxar geiago ekarri daroazue ta. "Emakumea?". "Satorkumea" obeto jagotzue zuei, satorren antzera solo ta bazter itxulastu ta azpikoz ganera iminten dozueza-lako. Etxe baketsuren batetik alde eragiten deustuenean, bazterretan aurkitu daikezuezan zatarkeri ta naste guztiak eskubereaz batu ta etxe atara bertara jaurti oi dozuezanok; edozein etxetan sartzean, zeuen griña ta lera txarren sua ta garra aldean daroazuenok; zer zaree zuok onik, txarra baiño? Iruzurkeri ta saldukerizko sastegiok inpernuko lezea baiño negar eta alarao geiago eragiten dautsezue ta, ut ortik, atsitu-atsituok! Aitaren galgarria, amaren negargarria, anaien lazkeria, aldien lotsagarria, etxeko ondamentia, eta itz baten esateko, gizaseme guztien naigabea ta lorra baiño etzarienok; zoakidaze emetik milla arranogaz zeuen galdumendirako ta etzakidaze nire begien aurrean eguno agertu." ("Otxolua).

"Nik ikusi dot ikustekoa
Ondarroako kalean:
amalau atso tronpeta jotan
zazpi astoren gaiñean.

Astoak ziran txikiak eta
atsoak ziran andiak;
nola demontre konpontzen ziran
zazpi astoren gaiñean."

(Erri-kanta)

"Aldapeko sagarraren adarraren puntan,
puntaren puntan,
txoria zegoen kantari:
txiruliruli,
txiruliruli.
Nork dantzatuko ote du soiñutxu ori?"

(Erri-kanta)

"Aume ao bigunak ama biren esneak edaten ditu."

"Euriaren gaiñeko leia, euriaren deia."

"Egia, surraren ondoan begia; aren goian bekoki zabal andia."

"Gure pozak pozura ames zoroen modura."

"Jan-edanaren gozoa! Kontu-emonaren gaiztoa!"

"Katuaren umea, katakumea."

"Besteren minak, begitan logure."

"San Bizente otza, neguaren biotza."

"Mari Migelen etxean no da to, emaztea gizon, oilloa oillar."

"Jaunen artean zein da latz gogorrena? Tipi izatetik jauntzera eldu dena."

"Harat iparra, hunat egoa, hala kanbiatzen da andren gogoa."

2) Zeaztu urrengo doazen itzok:

Astoren. (Adibidez: *asto onen* edo *asto orren*, *astoaren*, *astoen* eta *astoon*).

Mutilen.

Txakurren.

Kaleren.

Semereren.

Itzen.

Beiren.

Gauen.

Goizen.

Erbiren.

Telebisiñoren.

Trenen.

Autoren.

3) Esaldi batzuk egin aurreko ariketa orretan jarri doguzan itzekaz. (Adibidez: Zein astoren perrak dira, ba?).

4) Euskeratu esaldiok:

Parece que ha ido a la tienda de Catalina a ver si encontraba allí algún destornillador.

Habrá sido algún otro. Mi hermano ha estado en casa de dos amigos suyos.

Creo que han venido unos veinte.

¿En casa de qué hijo has estado? ¿En casa de José?

¿Hijo de quién eres tú?

¿De qué tienes miedo?

Esto es de dos.

Esto es de los dos.

Esto es de nosotros dos.

¿De dos?

ZEGAZ (ZEREKIN)

Zeaztugabea: 1) -GAZ edo -REKIN (bokalez amaitzen diran itzak): *adiskideGAZ* edo *adiskide-REKIN*, *semeGAZ* edo *semeREKIN*, *ogiGAZ* edo *ogiREKIN*.

2) -EGAZ edo -EKIN (kontsonantez amaitzen diren itzak) *JonEGAZ* edo *JonEKIN*, *lagunEGAZ* edo *lagunEKIN*.

Zeaztua: 1) Singularra: -AGAZ edo -AREKIN: *txakurrAGAZ* edo *txakurrAREKIN*, *zaldiAGAZ* edo *zaldiAREKIN*.

2) Plurala: -EKAZ edo -EKIN: *gizonEKAZ* edo *gizonEKIN*, *mutilleKAZ* edo *mutilleKIN*.

Zeaztuzeaztua: Singularra: -ONEGAZ edo -ONEKIN eta -ORREGAZ edo -ORREKIN: *SemeONEGAZ* edo *SemeONEKIN*, *mutillORREGAZ* edo *mutillORREKIN*.

2) Plurala: -OKAZ edo -OKIN: *gizonOKAZ* edo *gizonOKIN*, *oilloOKAZ* edo *oilloOKIN*.

Oarrak

1) Ikusi *ZEREN* kasuan jarri doguzan oarrak

2) "El sociativo vizcaíno *gaz* y el *kin* de los demás dialectos, que hoy se confunden, debieron de ser distintos un tiempo, expresando el primero la idea "por medio de personas o seres animados", exactamente como se distinguen en georgiano *Mam'it* nuestro *Aitagaz* 'hacer algo con el padre, valiéndose de él' y *Mama-t'an* nuestro *Aitarekin*, por ejemplo, 'venir en compañía del padre**'. (R. M^a de Azkue, O. c., 321. orr.).

Bizkaian (Gipuzkoa aldeko muga-errietan) pluralez bakarrik erabiltzen da geienetan *-KIN* ori.

3) *-AKAZ* eta *-AKIN* erabili izan da geinetan, bai literaturan eta bai izketan, zeaztu pluralean. Baiña batasunari begira, eta *-EKAZ* eta *-EKIN* ere erabili izan diran ezkerreko, oba litzake oneexek artzea. Gaiñera, beste kasu batzuetan ere *-AE-* bokalak *-E-* biurtzen dira. *erri-E-TAN*, *erri-E-TARA*, eta abar; eta bizkaierazko batasunari begira ere oba litzake *-EKAZ* erabiltzea.

Adibideak

1) Zeaztugabea

Ainbeste txakurregaz (edo *txakurrekin*) nora joateko asmu daukazu, ba?

Pedrogaz (edo *Pedrorekin*) joan naz.

Zugaz (edo *zurekin*) joan edo *a(re)gaz* (*arekin*) joan Donostiara, bardin jat.

Neugaz (*neronekin*) joango zara, ez beste *iñogaz* (*iñorekin*).

Ez dakit burutuko dauan ainbeste *seme-alabagaz* (*seme-alabarekin*).

Sarri egoten dira *alkarregaz* (*alkarrekin*).

Nogaz (*norekin*) joan da?

Bost mutillegaz (*mutillekin*).

Gugaz (*gurekin*) ez da iñor egon.

Olgetan dabil bere *adiskide bigaz* (*birekin*).

Zeiñegaz (*zeiñekin*) zoaz?

Lagun askogaz (*askorekin*) egon giñan.

2) Zeaztu singularra

Gugaz (*gurekin*) egon dan *gizonagaz* (*gizonarekin*) joan da.

Gure txakurragaz (*txakurrarekin*) ez dago bildurrik.

Aundia egin dozu egin ere, gero! *Orrelako kokolopagaz* (*kokoloarekin*) nora joango zara, ba?

Tomasegaz (*Tomasekin*) eta *bere lagunagaz* (*lagunarekin*) joan dira basora.

Zure arreb(e)gaz (*arrebarekin*) etorri zara?

Bere alab(e)gaz (*alabarekin*) dator.

Ederto emoten ditut orduak *telebisiñoagaz* (*telebisioarekin*), bakarrik egon arren.

Zuenagaz (*zuenarekin*) ez dakit; baiña *gureagaz* (*gurearekin*) beintzat ez dozu ezer lortuko.

Umeagaz (*umearekin*) dago.

3) Zeaztu plurala

66 *Asko ere asko ikasi dogu zure liburuekaz* (*liburuëkin*).

Gizonekaz (*gizonekin*) ibilli zaitetz, *gizonekaz*, eta ez *umeekaz* (*umeekin*).

Bere lagunekaz (*lagunekin*) joan da.

Gazteekaz (*gazteekin*) ibiltzen da beti.

Bilbotarrekaz (*bilbotarrekin*) joan dira, aiek *madrildarrekaz* (*madrildarrekin*) jokatu daben partidua ikusteko.

Bere *seme-alabekaz* (*seme-alabekin*) joatekotan egon da; baiña azkenean *lobekaz* (*lobekin*) joan da.

Zu lako *astoekaz* (*astoekin*) iñora ere ez.

Zaldi zuriekaz (*zuriekin*) joan da.

Orrekaz laurekaz (*orreekin laurekin*) errez egingo dozu.

Txarriekaz (*txarriekin*) ibiltzen dana, txarritu egiten da.

4) Zeaztu-zeaztu singularra

Or dagon *mutil orregaz (orrek)* joango zara ala?

Onegaz(*onekin*) kokolo onegaz(*onekin*) nora?

Adiskide zintzo orregaz (*orrek*) edonora.

Ni onexegaz noa.

Zeuzkonduko zara neska orregaz (*orrek*), ni ez.

5) Zeaztu-zeaztu plurala

Zuokaz (*zuokin*) etorri da ala?

Langille zintzookaz (*zintzookin*) laister egingo dogu zerbaiz.

Emen nire aurrean ikusten ditudan guztiokaz (*guztiokin*) egon naz.

Zaarrokaz(*zaarrokin*) eta gazteokaz (*gazteokin*), bertokookaz (*bertokookin*) eta kanpotarrokaz (*kanpotarrokin*) ere bai?

Zer egingo dot bostokaz (*bostokin*)

Nora zorookaz (*zorookin*)?

Ez dogu gauza onik egingo oillo ta konejuokaz (*konejuokin*).

Laurokaz (*laurokin*) zoaz?

Idazleen adibide batzuk

"Bide batez, eskatu ta erregutu egiozu, arren, biokaitik; ta, orrenbestegaz: Agur." (Añibarro P. A.).

"Jose bere anaiekin." (Lardizabal F. I.).

"Bertako edoizeineguz berbetan asten bagara." (Azkue R. M^a.).

"Oro naiz Arekin, oro dut nerekin." ("Orixe").

"Edonon eta edonorekin." (Altube S.).

"Almen onen bitartez, gauzen antz sumagarriak zentzunekaz beregandurik, barriren barri ugaritu, bildu ta erutzen dauz." (Onaindia S.).

"Aregaz batera zurekin / zorion beteaz izateko." ("Kere-xeta").

"Baiña indar guztiokaz jagongo / neure biotzaren barru-ondasuna." (Apraiz A.).

"Sekulako sagutea zan errian, eta ezin burutu iñola ere ainbeste sagurekin." (Lekuona M.).

"Oneek ao bete azurregaz geratu dira." (Zamarripa P.).

"Eurekaz berbetan asi zan." (Goiria A.).

"Zamau andi bat sei txikirekin ta sei legorki." (Agirre Tx.).

"Askatzaile berriekin / ametseta berririk / ez dezazun egin." (Gandiaga B.).

"Eta orobat dio, Moisesek berrogei egunean Jaungoikoa-*rekin* hitz egin eta beragandik legea eskribiturik artu zuela." (Gerriko J. I.).

"Mundua zear alkarregaz joatea erabagi eben." ("Otxo-lua").

"Ezkon zaite Anbotoko sorgiñarekin, nai badezu." (Agirre Tx.).

"Ederto bete eban sabela ango jan-edari ugariekaz." ("Kirikiño").

"Zure miñak gureekin gaez oroi genitun." ("Orixe").

"Bizkaia, Gipuzkoa ta gure Araba, / eta Naparroagaz lau anai gara; / beste aldeko irugaz batzen gareala, / zazpirok bear dogu gaur salbau Euskara." (Arrese Beitia F.).

"Zeuon barreokaz..., galdu jat sermoiaren aria." (Zamarripa P.).

"Au lako gauzeztan itzekaz geure izkuntza lorrindu."
(Aurre-*Apraiz* B.).

"*Baloiarekin* doa." (Garmendia S.).

"*Lau adiskiderekin*." (villasante L.).

"Zer bizitze goxoa daramagun, Mattin; / behar ditugunak, ba, gure aitamekin." ("Oxobi").

"*Aitarekin* Donostiara joan nintzan leengo egunean."
(Mendizabal F.).

"Bat nator honetan *Aita Mokoroarekin*." (Mitxelena L.).

"*Zenbat gizonekin* joan zinen?" (Villasante L.).

"Eguberrietarako euskal ikastaldi bat antolatzen ari gaituk. *hamabost bat ikaslerekin*." ("Txillardeg").

"Bakoitzak nahiago du bere aldetik *ibar-kanpokoekin* hartu-emanetan bizi." (Intxausti J.).

"*Adiskideekin* Xantusenean merendu bat egiteko." (Irigarai A.).

"Bat datoz horretan hain bat ere, *zenbait zarragorekin*." (Mitxelena L.).

"Au jazoten zan bitartean, Valongo Kondea beste *amairu lagunegaz* (ta geienak ziran judearrak) maian zerbait jaten egoan." (Azkue R. M^a.).

"Maitati izaten lehiatu naiz *berarekin*." (Altuna P.).

"*Nirekin* berriz *iñorekin* baiño txarragoa." (Etxaide J.).

"Hor ibili nintzen odol gaiztoa eginik *semeekin* burrukan." (Satrustegi J. M.).

"Bere jokera *on-txar guztiekaz*." (Akesolo L.).

"Horrela Kristau herria, *bi Aita Santurekin* gaizki baze-
goen, okerrago aurkitu zen *hirurekin*." (Mitxelena L.).

Ariketak

1) Aztertu ZEREKIN kasua urrengo doazen literatura-
zati kantu, ta errefranetan:

"Bedar berdeekaz, larrosa gorriekaz eta lili zuriekaz,

udabarritsu dago nire etxe aurrea. Zoragarri benetan!

Baiña nik urira joan bear, uriko porlan, ke eta autoekaz egotera, uriko zarata ta naasteborrasteekaz. Urira joan bear laister emen mai gaiñean dodazan liburuokaz. Au zoritxarra!

Zein nikigaz joango naz? Beti "arranagaz" joatea gogai-
karria da. Gorria jantziko dot.

Ene! Kepa dator bere amagaz... Zertan ete datoz? Urira joango dira orreek ere, bearbada, ta nigaz joateko etorriko dira nigana. Baiña txakurragaz datoz... Ez, ez, ez da euren txakurra ori."

(Zarate M).

"Zure izpillu izan dakidala,
aregan Zerori ikusteko;
aregaz batera Zurekin
zorion betea izateko.

Zeuri, Jauna, barriro bere,
aintza oro ta eskarrona;
gorde Zugan nirekin beti
nire biotzaren kutuna!"

("Kerexeta")

"Egusentia ezkerro ardiekin larrera,
eguna ixil igaro, gauetz ixil etxera.
- Zer duzu, seme?, esaizu, esan gaixo al zeran.
- Iluna jausi zait, ama, betiko biotzera."

(Erri-kanta)

"Astoekaz ibili, ta arrantzaka berez ikasi."

"Deabruarekin iraulten ari danak bear dik akilua luze."

"Astoa bridekin."

"Irri ta farra ta azkenean astoarekin ezkondu bearra."

"Munduan nai dauanak luzaroan bizi, olloekaz oera,
txoriekaz jagi."

"Hobe duk aza-sopa adiskidearekin ezin ez oilo-salda oneristen ez hainarekin."

"Badaukazu zeugaz, jango dozu neugaz."

"Eguberri zerekin, urteberri arekin."

"Katilu bete salda koipeagaz, andra ederra doteagaz."

2) Zeaztu urrengo doazen itzok:

Adiskiderekin.

Lagunegaz.

Mutilekin.

Telebisiñorekin.

Dirugaz.

Autorekin.

Alabagaz.

3) Egin esaldi bat aurreko ariketan jarri doguzan itz bakoitzagaz.

Adibidez: Zein adiskiderekin joan zara?

4) Euskeratu esaldiok:

Hemos ido a Bilbao con José María y Belén, y allí nos hemos juntado con Kepa y Miren.

¿Con cuántas mujeres vives, pues, en tu casa?

A éste le vas a llevar también contigo, por favor.

No se puede andar hoy en día con cualquier amigo.

Ahí está, en esa cafetería, con cinco chicas.

¿Dónde vas a ir con estos jóvenes de ahora?

No sé dónde voy a ir, pero prefiero andar con ellos que con vosotros los viejos.

Con otros dos obreros los termináis enseguida.

Dime con quién ha ido Mikel.

Yo voy con cualquiera.

¿Con quién?

Con dos soldados.

Con estos dos.

Con dos.

ZEREZ

- Zeaztuagabea:** 1) *-Z* (bokalez amaitzen diran itzak): *MendiZ, itzEZ*.
2) *-EZ* (Kontsonantez amaitzen diran itzak): *gizonEZ, berakatzEZ, edurrEZ*.
- Zeaztua:** 1) *Singularra: -AZ: eskuAZ, mailluAZ, espat(e)AZ*.
2) *Plurala: -EZ: gizonEZ, semeEZ, buruEZ*.
- Zeaztu-zeaztua:** 1) *Singularra: (Ez da erabiltzen)*.
2) *Plurala: -OZ (Oso gitxi erabiltzen da)*.

Oarrak

1) Zerezkoa deitzen deutso kasu oni F. Mendizabalek, *caso instrumental* L. Villasantek eta *médiatif* P. Lafittek.

2) Zeaztu plurala eta zeaztu-zeaztua ez dira erabiltzen Bizkaian. -Ez atzikia erabili bearrean *-EKAZ (ZEGAZ* kasukoa) erabiltzen da zeaztu pluralean: *Indar guziEZ* jo esan bearrean *indar guztiEKAZ* jo esaten da.

3) "Sensus pregnans" dauan atziki bat da *-Z* ori. Ain zuzen ere, gauza asko adierazteko erabiltzen dogu. Ona emen esan-nairik beiñenak espainolaz konparatuz.

a) Espainolezko a preposiziñoa adierazteko: *zaldiz 'a caballo', oiñez 'a pie', narraz, dandarrez 'a rastras', geienez 'a lo sumo', gogoz 'a gusto', ordez 'a cambio'*.

b) Espainolezko con preposiziñoa adierazteko: *malluaz 'con (el) martillo', ikusiaz 'con (el) ver', diruaz 'con el dinero', ogiaz 'con (el) pan', ikusteaz 'con (el) ver'*. "Se confunden mucho el sociativo e instrumental *-kin* y *-z*, por

confundirse igualmente en castellano sus correspondientes *con y por medio de*.** (R. M^a. de Azkue, O. c., 321. orr.). Onexegaitik, *ezpataz edo ezpat(e)az il eban esan bar da, ez ezpat(e)agaz edo ezpatarekin; baiña ezpat(e)agaz edo ezpatarekin joan zan zezenagana*. Ona emen beste adibide batzuk: *Buruz jakin arren, ezetz esan eban buruaz; diruz beterik egon arren, ez dau ezer erosten bere diruaz; ogiaz jan dot gaztaia; liburuaz jo eban (baiña liburuagaz edo liburuarekin joan zan eskolara); bedarrez bete eban lastatia (ez bedarrekaz); arriz bete (ez arriekaz); zimitzez egindako zarana (ez zimitzekaz; baiña bai labara joan zan zimitzekaz).*

d) Espaiñolezko *de* preposiziñoa adierazteko: *egunez 'de día', gauzez 'de noche', bidez batez 'de paso', pozez 'de alegría', buruz 'de memoria', gorriz 'de blanco', berez 'de por sí', ogiz 'de pan', itzez 'de palabra', egitez 'de hecho', biotzez 'de corazón'*. Zeaztugabea ta zeaztu singularra ondo bereiztu bear dira, uts asko egiten dira emen ere ta. Ikusi adibide batzuk: *Egunez 'de día', baiña egunaz (ez egunagaz) 'con el día'; bildurrez 'de miedo', baiña bildurriz 'con el miedo'; diruz 'de dinero', baiña diruaz 'con el dinero' (ez diruagaz)*. Esaldiak: *Orren diruaz erosi diñozu?; diruz beterik dago; bildurrez dago; orrek daukan bildurriz ez dau ezer ere egingo; egunez eldu gara; egunaz batera oeratzen dira oilloak*.

e) Espaiñolezko *en* preposiziñoa adierazteko: *euskeraz 'en vascuence', kontsonantez 'en consonante', izatez 'en sí', astelenez '(en) el lunes', trenez 'en tren', barkuz 'en barco', abioiz 'en avión' (trenean, barkuan, abioian, autoan... erabiltzen da gaur geiagotan)*.

f) Espaiñolezko *por* preposiziñoa adierazteko: *itsasoz 'por mar', Errégenez 'por Reyes', batez beste 'por término medio', gaurkoz 'por hoy, hoy por hoy', aurtengoz 'por este año, oraingoz 'por ahora', leorrez 'por tierra', Baskoz 'por Pascua', leenengoz 'por vez primera', bigarrenez 'por segunda vez', mendiz 'por monte', bitartez, bidez 'por medio', gitxienez 'por lo menos'*.

g) Espaiñolezko *gerundioa* adierazteko: *ikusiz 'viendo', esanez 'diciendo', negarrez 'llorando', deadarrez 'gritando', ustez 'pensando', gaiñez 'rebosando', eroanez 'llevando', naiez 'queriendo', berbaz 'hablando', egaz 'volando'*.

h) Espaiñolez *-mente* amaitzen diran aditzordeak adierazteko: *jatorriz 'originariamente', batez ere 'principalmente, sobre todo', barriz 'nuevamente', errez 'fácilmente', kontuz 'cuidadosamente', nekez 'costosamente', arduraz 'cuidadosamente, con cuidado, con preocupación'. Ikusi daikegunez, *-mente* orren eta leen ikusi dogun *con preposiziñoaren* esan-naia bardin samarrak dira espaiñolez.*

i) Espaiñolezko *como* adierazteko: *Leen ikusi dogunez 'como hemos visto antes', oi dan legez 'como de costumbre', orren aitak esan ebanez 'como dijo su padre', siñistu daikegunez 'como podemos creer', Jainkoa danez 'como es Dios, en cuanto que es Dios'*.

j) Espaiñolezko *acerca de*, sobre adierazteko: *zertaz? '¿acerca de qué?'; zutaz eta nitaz 'acerca de ti y de mí', orrezaz 'acerca de eso', gizonaz edo gizonetaz mintzatu 'hablar acerca de los hombres', iraultzaz 'sobre la revolución', Mitxelenaz 'acerca de Mitxelena'*. Azken urteotan, aldizkari eta liburuetan sarri erabilli izan da era ori, naiz ta ezezaguna izan Bizkaian. Arrisku bat dauka bizkaitarrontzat: *Mitxelenaz berba egin esatean Mitxelenagaz berba egin ulertu geinke*. Gaur gure artean asko entzuten dan era bat *-(R)I buruz da; esate baterako, oni buruz auxe esan deust 'acerca de éste me ha dicho esto', Pedrori buruz 'acerca de Pedro', gaurko gazteei buruz 'acerca de los jóvenes de hoy'*. Aldikada baten asko erabilli izan zana *-TZAZ da: zer diño nitzaz? '¿qué dice acerca de mí?', orretzaz ez dakit ezer 'acerca de eso no sé nada'*. Eta beti erabilli izan diranak eta erabiltzen diranak *-(R)EN gaiñean eta dala ta dira: ori dala ta, zer esatea gura dozu, ba? '¿qué quieres que te diga, pues, acerca de esto?' noren gaiñean ibilli dira berbaz? 'acerca de quién han estado hablando?, zerén gaiñean egingo dozu berba? 'acerca de qué vas a hablar?'*

k) Eta azkenez, esakera askotan erabiltzen da ZEREZ kasu au: *ekiñaren ekiñaz* 'a fuerza de insistir'; *diruaren diruaz* 'a fuerza de dinero'; *gosearen goseaz* 'de tanta hambre'; *kearen keaz* 'de tanto humo', *buruz bera* 'cabeza abajo', *auzpez* 'boca abajo', *musturrez aurrera* 'de bruces', *aurrez aurre* 'frente a frente', *atzez atze* 'hacia atrás', *kalez kale* 'de calle en calle', *gizaldiz gizaldi* 'de siglo en siglo'.

Adibideak

1) Zeaztugabea

Eskuz jokutzen dozue ala *palaz*?

Lau aldiz egon naz ni an.

Naiko lanik egin dogu *gaurkoz* bai ta goazen etxera.

Zer emongo deustazu, ba, *onen ordez*?

Geienez amar eta *gitxienez* lau.

Oiñez ala *trenez* zoaze, ba?

Itsasoz baliteke baiña, *leorrez* ez da beingoan galduko ori.

Karameloz bete eutsozan boltsa biak.

Alan eta guztiz ere, zer? *Astoz* beterik dago au ta.

Berandu egin jaku baiña, *egun argiz* eldu gara etxera.

Erriz Larrabetzukoa da, *eleizaz* Lezamakoa

Non zagoz zu orain ostatur?

Atzekoz aurrera, *azpikoz* gora eta *goikoz* beera..., ezer ere ez.

Ez dakizu ezer *ganoraz* egiten eta.

Egotez Bilbon gagoz orain.

Ba! *Erdiz* erdi.

Egunez zein *gauz* joan, bardin deust.

2) Zeaztu singularra

Or dagoan *lurreaz* bete bear dozu zulo au. Entzun dozu?

Uger egin bearraren egin bearraz ito barik gero!

Biotz guztiaz maite zaitut, Maritxu.

Pozik dago Txomin *jake barriaz*.

Zure diruaz ez dot ezer erosi gura.

Ezetz erantzun eustan bere *buruaz*.

Eutsi oni or dagoan *pikabreaz*, mesedez.

Konturatu barik, baiña zeuk bota dozu bai, *eskuaz*.

Ikeratu egiten zara au *ikusteaz*?

Zati baterako badaukagu *aurten batu dogun artoaz*.

Autoaz jo dau, eta apurtu.

3) Zeaztu plurala (ez da erabiltzen Bizkaian)

Arbolez jantzia 'vestido con los árboles'.

Gizonez mintza 'hablar acerca de los hombres'.

Iruetz 'sobre los tres'.

Nagusiez itz egin dogu 'hemos hablado sobre los amos'.

4) Zeaztu-zeaztu plurala (oso gitxi erabiltzen da).

Gizonoz mintza 'hablar acerca de estos hombres'.

Idazleen adibide batzuk

"*Harriz, zurez edo kobrez* egina." ("Axular").

"Begiratu egiezu ondo burutik beaztetara; eztabe agiri ez begi ez betulerik *baltzaren baltzaz*." (Mogel J. A.).

"*Aita be zarraren zarraz il jakon*." (Zamarripa P.).

"Bereala otu jakon norbaiti etzala jairik txarrena izango zaldunak eurak kalerik kale eskean urtetea, *zaldiz, burdiz ta oiñez*, asabeen egunetako jantziakaz." (Agirre Tx.).

"*Nik neurez* ez neban egingo." (Zamarripa P.).

"*Uts egin leite larregiz ta gitxiiegiz*." (Mogel J. A.).

"*Mendiz, sasiz, leku agorrez ongi betea*." (Mendiburu S.).

"Kondairak ez duen / alkantzu luze batez, / hizkuntzak duen funtsez, / tankeraz eta aidez." (Gandiaga B.).

"Denbora ori, dakizun bezala, izan oi da otzez, izotzez, eriz, elurrez, aize gogorrez ta eguraldi gaiztoz ongi nastua." (Mendiburu S.).

"Esango deusue alboak minduta daukezala barrearen barreaz". ("Kirikiño").

"Ainbeste soñeko bitxidunez, eta ori astegun buru zurian bidez zabiltzala." (Mogel J. A.).

"Alkatearen aginduz." ("Kirikiño").

"Poz-pozik, guztizko gogo argiaz." (Etxeita J. M.).

"Irribarrez artu ebazan D. Pedrok." (Bilbao F.).

"Zorro batzuk zerez edo arez beterik." ("Kirikiño").

"Iturri bizia, zeruko ur asegarritz gaiñezka." (Akesolo L.).

"Ze izen bigun, gozo ta samurra dan amaren izenal Zein gozo, zein erraz, zein berez urteten deuskun izen eder onek gure aotik...!" (Agirre Tx.).

"Jo daigun beti bidean gora, jo daigun gogo osoaz, ataza guztiaz", (Akesolo L.).

"Nobelagintzea, beraz, atzo goizekoa da." (Erkiaga E.).

"Kontuzko alegin ardurazko ta begiramentuaz ibilli naz." (Añibarro P. A.).

"Kutxiloa aoaz gora geratuten bada." (Astarloa P.).

"Diruz josirik." (Uriarte J. A.).

"Kristiñaua zara ez zeurez, ez zeure alegiñez, ez zeure indarrez" (Astarloa P.).

"Jaungoiko bera egoan bakarrik berez beragan." (Mada-riaga B.).

"Zein da Jaungoikoaren izatea? Bere berez izatea, izatez izatea." (Iturzaeta A.).

"Sagardoak ninduan Mozkorraz ezkondu." (Arrese Beitia F.).

"Fede onez." (Villasante L.).

"Eta Gipuzkoaz, gipuzkeraz eta giputzez aho betean ari garelarik, nori berea eman behar diogu eta zertaz ari garen alde zurretik garbitu." (Mitxelena L.).

"Jauna, geure artez baiño gehiago zureaz, / balea zauritu dugu harpoinaren kolpeaz." (Etxeberri J.).

"Herriko zahar batzuk, sotorat etorriz, / han idukitzen naute lehertua irriz." (Dibarrart P.).

"Lastoz betetako sakukiak." (Satrustegi J. M.).

"Eta i ere ire lagunaz erruki bear ezintzakan, ni izaz errukitu nindukan bezela?" (Uriarte J. A.).

"Ez lotsatzeko deustaz ere, ez eriotzeaz, ez benenoez, ez ezpata, saeta, arma guziez, ez mundu guziaz ere." (Lizarraga J.).

"Dio Jeremiasek onelako pekatariak." (Agirre J. B.).

"Baita ondatuak ere gindukek erdalkunen bekaitzez, ezin ekusiaz ta juzku gaiztoz." (Larramendi M.).

"Gomutaten naz atzokoaz." ("Otxolua").

"Orrez gaiñera, emakume guztiak dozuz mazal, samur, biotzbera, eztitsu..." ("Otxolua").

"Zeri buruz diñozu ori?" ("Otxolua").

"Geu geurez." (Olaetxea B.).

"A, baginaki horrela eskuz-esku, bihotzez-bihotz orok bat egiten ..., baginaki!" (Hiriart-Urruty J.).

"Ongi ikasiz geroz." (Irigarai F.).

"Barnea bero, kantuz gero." (Arradoi P.).

"Zertaz ari gerokoez?" (Mitxelena L.).

"Ixilik egotea hobe izaten da ez dakigunaz, are gehiago ikasi nahi ez dugunaz, mintzatzea baino." (Mitxelena L.).

"Gaurko gizonoz / bihar lotsa ez daitezén." (Gandiaga B.).

"Ta irakaskintzari *buruz* bezela, gaiñontzeko *gaietaz* esan omen liteke." ("Lizardi").

Ariketak

1) Aztertu ZEREZ kasua urrengo doazan literatura-zati, bertso, ta errefranetan:

"Bidean gora, amets...! Izatekotan!
Izarrak, iturriak... Bai, bizitza da,
(bizitza itun-alai, bizi bidegarri...)
Laiño beltz, laiño arin, txuri gorriz,
bizitza..., zugaitzetan aizekari,
zelairik-zelai, ibai, mendi, egan...
bizitza...! Bizitza oikari, urkariz,
gizona..., ai!, beti bidearen erdian!

Ta bideari jarraituz geure gatz,
geure ogi, geure ur, geure ardoz,
gaude bizira, kideari lagunduz...
gaude begi iriki, esku zabalez,
goizeko garo, arratseko itzalez,
biziaren etorri, maitetasunez,
gaude bai, lugiñak azia bezela
alor goigarrietan biotza ereiñez.

Gaude ederrera, biziaren pozera,
on apurra biotz-eskuka irauliz...
gaude egunak benetan egunduz,
irripar gozoenak begietaratuz,
gaude gose-egarriz aldamenean
pausu arin edo pausu astunez
bidean gora, argimin, su bezela
ogi, ardo..., bideka doaztenekin.

Gure ibilbide, betebearretan...
umetxoak bezela emai zerutsuz
begiak argi ta biotza garbiago
itz baikorrekin egia bananduz...

gaude bai, bizia, bidea alaituz,
gogomaitetsuz eguzki goritan,
gaude bai bizi-irabazte betean
ikuitzen degun guztia edertuz.

Biotzak pipil, agurka goxo-goxo
ta itzegite argiz begiak irripar,
alkartasunez bideguneak zerutuz...
bizitza! askozaz eramankorrigo,
askozaz maite, alai ta txukunago,
askozaz bidegarri ta ederrago,
alaiago litzake gure bizia
ta bidea...O, askozaz bideago."

(Muniategi S.)

"Euskeraren batasunaz edo batasunik ezaz mintzatu beharko dut azkenik, gogo gaiztoz bada ere. Behin eta berriz esana dut ez nintzela neure gogoz sartu saltsa horretan, besteren eskez eta bestek bortxaturik baizik. Ongi baino hobekiago bainekien; batere atsegin ez zitzaidan erantzunbeharra bizkarreratzeaz gainera, nolako lokatzetan sartzen nuen neure burua.

Besterik ere gehitu behar dut, ordea. Azken buruan, ez ninduten bulkatu, nerau sartu nintzen neure baitarik. Nahi ez nuelarik ere, sartu behar nuelako ustetan abiatu nintzen. Eguzkiaren argia baino argiago agertzen baitzen norbaitek abiatu behar zuela eta, inor sartzekotan, nola egingo nion neronek uko deiari? Hauxe da gerra aurretik, gerratean eta gerra ondoan ikasi dudana: agintzen duena egiteko prest ez dagoen gauzarik ezin dakiokela besteri agin. Gogorik gabe eta gogo gaiztoz hasi nintzen, beraz; ez, ordea, kontzientziak eskatzen eta are agintzen zidanaren aurka.

Besteren mandatuz, Arantzazuko batzar aurretik, harako lanak prestatu genituenok aski moduz eta neurritz mintzatu ginen, batasun bidean jar gintzazketen zenbait erre-pide nagusi erakusteko ustetan edo." (Mitxelena L.).

"Sopeaz bitan eta ostean sarritan." (ardoa)

"Bein Maria elizara eta bertan eperdiaz altarara."

"Mikolas, bete sabela okelaz."

"Txakurrak eginiko zauria txakurraren uleaz osatzen da."

"Laur eta bortz, ni zutaz agradoz."

"Txominek dauko dendea sagar ustelez betea; denda artara bazoaz joko zaitue mazuaz."

"Sanctus, apezak aldarean kantuz; eskolauak negarrez; apezain opila bearrez; serorea suztuz alderareko argiak ezin piztuz."

"Eroriz-eroriz oiñez ikasten da."

"Ezkongaietan amorez, bizi izateko dolorez."

"Hirriz eta negarrez, aurten ezkondu bearrez."

"Otsein barriak galbaiaz ura, zarrari edarreaz bere lekurik emon ez gura."

"Kandelarioz euria, laister da udabarria; Kandelarioz aterri, negua dator atzeti(k)."

"Batean gosez, bestean asez."

2) Euskeratu esaldiok:

Has venido andando?

Le pego con el libro.

Fue a la escuela con el libro.

Ese no te compra ni siquiera una cerilla con su dinero, por más que está repleto de dinero.

Esto lo vais a rellenar con piedras.

Te amamos con todo nuestro corazón.

¿Fuiste en tren a Barcelona? ¿O en avión?

Por este año lo vamos a dejar.

Por medio de ése lo conseguimos todo.

¡Cuidado!

Ando preocupado.

Como puedes ver, han llenado toda la habitación de papeles, de ropas, de cacharros y trastos viejos.

¡Qué me dices acerca de ese?

No me tengo en pie de tanta hambre que tengo.

Cayó de bruces.

Por los siglos de los siglos.

¿Qué más da ir de noche que ir de día?

Civilmente pertenece a Derio, pero eclesiásticamente a Zamudio.

Te doy éste a cambio de ése.

¿Sobre qué habéis estado hablando?

Yo por mí no me movería de aquí.

Murió de puro viejo.

¡Qué fácilmente lo hicimos!

¿Dónde vas con tantos vestidos rojos?

Ya que estamos hablando de Vizcaya, en vizcaíno y sobre los vizcainos, vamos a explicar cómo fue originariamente Vizcaya.

En sí no supone gran dificultad.

ZERTAN (NON-NOIZ)

- Zeaztugabea:**
- 1) *-TAN* (bokalez amaitzen diran itzak, *bizigabeei* dagokiozanak): *mendiTAN*, *orduTAN*, *zazpiTAN*.
 - 2) *-ETAN* (kontsonantez amaitzen diran itzak, *bizigabeei* dagokiozanak): *lurrETAN*, *itzETAN*, *bostETAN*.
 - 3) *-(REN)GAN* (bokalez amaitzen diran itzak, *bizidunei* dagokiozanak): *seme-(REN)GAN*, *zaldi(REN)GAN*.
 - 4) *-E(N)GAN* (kontsonantez amaitzen diran itzak, *bizidunei* dagokiozanak): *umezurtzE(N)GAN*, *txakurrEN(N)GAN*, *MirenE(N)GAN*.

- Zeaztua:**
- A) *Singularra:*
- 1) *-N* (bokalez amaitzen diran itzak, *toki-izenei* dagokiozanak): *DonostiaN*, *EaN*, *BilboN*.
 - 2) *-EN* (kontsonantez amaitzen diran itzak, *toki-izenei* dagokiozanak): *EibarrEN*, *ZarautzEN*.
 - 3) *-AN* (bokalez amaitzen diran itzak, *bizigabeei* dagokiozanak): *etxeAN*, *soloAN*, *basoAN*.
 - 4) *-EAN* (kontsonantez amaitzen diran itzak, *bizigabeei* dagokiozanak): *lurrEAN*, *goizEAN*.
 - 5) *-A(REN)GAN* (bokalez eta kontsonantez amaitzen diran itzetan, *bizidunei* dagokiozanak): *semeA-(REN)GAN*, *umezurtzA(REN)GAN*, *oi-lloA(REN)GAN*.
- B) *Plurala:*
- 1) *-ETAN* (*bizigabeei* da-

gokiozanak): *maiETAN; plazETAN, etxeETAN, ibarrETAN.*

2) *-ENGAN (bizidunei dagokiozanak): umezurtzENGAN, gizon-ENGAN.*

Zeaztu-zeaztua: A) *Singularra:* 1) *-ON, -ONETAN eta ORRETAN (bizigabeei dagokiozanak): aspaldiON, bertON, kale ONETAN, etxe ORRETAN.*

2) *-ONE(N)GAN eta ORRE(N)GAN: seme ONENGAN, mutil ORRENGAN.*

B) *Plurala:* 1) *-OTAN (bizigabeei dagokiozanak): mendiOTAN, etxeOTAN, soloOTAN.*

2) *-ONGAN (bizidunei dagokiozanak): emakumeONGAN, gizonONGAN.*

Oarrak

1) Naasteporraste bat dirudi kasu onek. Baiña uste izan daiteken baiño errezagoa da. Ikusi askenaldian jarri dogun paradigma.

2) *Nona deitzen* deutso kasu oni F. Mendizabalek; *inesivo* L. Villasantek.

3) *ZERTAN* edo *NON-NOIZ* kasu au eta beste bost *ZERTATIK, ZERTAKO, ZERTARA, ZERTARANTZ* eta *ZERTARA(G)IÑO* agertzen dira deklinabide paradigmatan (nik ere orreexek erabilliko ditut), "toki-deklinazio" bezela. Ain zuzen ere, tokiari edo lekuari dagokion zer edo zer adierazteko erabiltzen dira kasu oneek. Baiña ez tokiari dagokion zer edo zer adierazteko bakarrik. Baita denpora edo aldiari dagokion zer edo zer adierazteko ere erabiltzen dira. Eta berez ez dira sei kasu. Izan ere, *ZERTARANTZ* eta *ZERTARA(G)IÑO* kasuak *ZERTARA* kasuari beste atzizki bat jarri sortutakoak dira. *ZERTATIK* kasua ere *ZERTAN*

kasuari beste atzizki bat jarri sortutakoa izango da, seguru asko.

Gaiñera, zeaztu singularra zeaztugabea izango zan leen. Ain zuzen ere, izen bereziak zeaztuz deklinatzen dira kasu onetan: *EaTIK, GranadaRA, BilboKO*. Zeaztutzat erabilli arren, era bitara ulertu daikegu, esate baterako, *basoko perretxikoak* 'setas del monte edo setas de monte (zeaztugabetasun kutsuz)'. *ErriARA, erriATIK eta erriAKO* ere ez dogu esaten, *erriRA, erriTIK eta erriKO* baiño.

4) *-a* itsatsia daben itzetan, *jakiña, -a* eta *-AN* alkartzean *-AN* biurtzen dira: *Lezama-AN > Lezaman;* *eskola-AN > eskolan*. Baiña, leen esanda daukagunez, *-e* eta *-o* itsatsia daben itzak, *oñtera*, ez dabe galtzen itzari dagokion bokal ori: *kaleETAN, semeENGAN, soloOTAN, kokoloONGAN*.

5) *-ETAN* eta *-ENGAN* egin bearrean *-ATAN* eta *-ANGAN* egiten da sarri askotan zeaztu pluralean bizkaieraz (*tabernATAN, eleizATAN, astoANGAN, semeANGAN*) eta *-EKAN* eta *-OKAN* zeaztu pluralean eta zeaztu-zeaztu pluralean *-ENGAN* eta *-ONGAN* erabilli bearrean (*mutillekAN, gizonOKAN*). Naiz ta berez forma jatorrak izan, batasuna gogoan arturik ta ulertzeko oso errezak diran ezkeror, *-ETAN, -EGAN* eta *-ONGAN* erabilli bear ditugu idazterakoan.

6) Zeaztugabea ta zeaztu plurala bardiñak dira batzuetan formaz: *gizonETAN* eta (*gizon aetan > gizonaetan >*) *gizonETAN*. Baiña, *jakiña, esan-nai ezbardiña* dabe: *Zein lurretan?* '¿en qué tierra(s)?' eta *Santiren lurretan* 'en las tierras de Santi'. Azentoz bereizten doguz bizkaieraz izketan: *lurrétan* (zeaztugabea), *lúrretan* (zeaztua), *gizónengan* (zeaztugabea), *gízonengan* (zeaztua). Ikusi beste adibide bi, espaiñolaz konparatuz: *Edozein egunétan* '(en) cualquier día' eta *leengo asteko zazpi égunetan* 'en los siete días de la semana pasada'.

7) Zeaztugabea ta zeaztu singularra edo plurala okerrera erabiltzen doguz sarri askotan. Esate baterako, *zein*

elizatan egon zara? esan bearrean *zein elizan egon zara?* esaten dogu; *uretan* esan bearrean *urean*. Ez dira bardin eguzkitan 'al sol' eta eguzkian 'en el sol', *mezatan* 'en misa' eta *mezetan* 'en las misas', *lau urtetan* 'en cuatro años' eta *lau urteetan* 'en los cuatro años', *politika-gauzatan* 'en cosas de política' eta *politika-gauzetan* 'en las cosas de política'.

8) Ikusi, barriz ere, sarreran jarri doguzan argibideak, zeaztua ta zeaztugabea zelan erabilli jakiteko. Eta, gaiñera, ona emen -TAN atzikiari buruzko beste bereizkuntza batzuk, espaiñolaz konparatuz:

a) Espaiñolezko veces adierazteko erabiltzen da: *askotan* 'muchas veces', *gitxitan* 'pocas veces', *geiagotan* 'más veces', *bitan* 'dos veces' *irutan* 'tres veces.' Baiña *baten* (*batean* edo *batetan* beste euskalkietan). Espaiñolezko veces ori adierazteko *bidar* eta aldiz ere erabiltzen dira: *bi bidar*, *iru aldiz*.

b) Espaiñolezko en preposizioa adierazteko: *benetan* 'en serio', *olgetan* 'en broma', *txantxetan* 'en chufra', *uretan* 'en el agua', *barautan* 'en ayunas'.

d) Espaiñolezko de preposizioa adierazteko: *gaztetan* 'de joven' *txikitan* 'de pequeño', *mutikotan* 'de chaval', *umetan* 'de niño'.

e) Espaiñolezko por preposizioa adierazteko: *ogitan* 'pr pan', *esnetan* 'por leche', *erbitan* 'por liebres'. Adibidezko esaldi bat: *uretan joan da* 'ha ido por agua'.

f) Espaiñolezko gerundioa adierazteko: *sutan* 'ardiendo', *izarditan* 'sudando', *ketan* 'humeando', *ametsetan* 'soñando', *lotan* 'durmiendo'.

g) Esakera biurtu diran esaldi laburtu batzutan askotasuna adierazten dau: *Artotan euki dogu aurten...!*; *egon ere badago emen astotan...!*; *ene! or badago autotan gaur...!* Berez, esaldi laburtuak dira: *Dirutan badauka orrek...!* (Onasisek baiño geiago.).

Adibideak

1) Zeaztugabea

Edozein tabernatan saltzen dabe ori ala?

Uiskitan badauka euki ere arek!

Konfiantza osoa daukat nik *zu(re)gan*.

Uretan joan da.

Uretan dago.

Egon ere badago gaur emen *umetan...!*

Zein kaletan dago denda ori?

Lautan ala bostetan joan zara, ba?

Liburutan (liburu billa) joan da eskolara.

Zein liburutan irakurri dozu ori?

Liburutan badauka...! Jesus!

Mezatan egon ondoren, *ze(r) ordutan* eldu ziñeen etxera?

No(ren)gan dozu konfiantz (e)a, ba? *Jesukristo(ren)gan?*

Zenbat dendatan egon zaree? *Zenbatetan?*

Zein elizatan egon zaree? *Zein etan?*

Nire seme gazte Aitorrengan dot nik uste osoa.

Zein seme(ren)gan?

Ametsetan egon zara ala?

Zazpitan baiño *geiagotan* etorri aal zara zu?

Olgetan ala *benetan* diñozu ori?

Ene! *Sutan* dago etxea.

Sarritan joaten giñan gu *gaztetxotan* ara.

Ainbeste erritan egon ondoren, bere errira joan zan.

Lekutan egongo da oraingo!

2) Zeaztu singularra

Pozik egon gara aren etxean.

Juan Luisenean?

Kosmerenean

Eibarren ala Durangon egon zaree?

Zeruan eta lurrean.

Madrilera joan zanean erosi eban.

Kalean dago.

Gurean ez dago olakorik, orrenean bai

Mendian egon gara.

Etxean eta kampoan, leku guztietan.

Etorri daitenean, esan, mesedez.

Bekokian, surrean, aoan, okotzean, saman..., leku guztietan daukaz pintura markak.

3) Zeaztu plurala

Jende asko dago gaur *tabernetan*.

Konfiantza aundia daukat nik *nire idiengan, idi gorriengan* batez ere, eta ez dot uste azkenengo geldituko diranik aurtengo Abadiñoko *probetan*.

Piñua ugari dago *erriko piñudietan*.

Konfiantz(e)a *gizonengan* diñozu?

Zikinkeria bai, orixe bai, *Bilboko kaleetan*.

Emen egoten izan *danetan*, isilik egoten izan da *batzar guztietan*.

Basoetan edurra dago.

Etxeetan, errietan..., leku guztietan.

Egunak ditun *orduetan*.

Zortziretan ala amarretan eldu ziran, ba?

Plazetan lora asko dago.

Geienetan etortzen izan da, eta parte artzen izan dau *alkar-izketetan*.

4) Zeaztu-zeaztu singularra

Ez zaitut ikusi *aspaldion*.

Ementxe *berton* egon da.

Aurton ez beintzat.

Gorabeera andiak izan ditu *asteon*.

Txoko orretan egon zoon.

Nire itxaropen guztia *alaba onengan* dago.

Kale onetan (kaleon) ez da iñor agiri.

Boitz-biotzez siñisten dogu *Zugan, gure Jainko orren-gan*.

5) Zeaztu-zeaztu plurala

Mendiotan ez da zaldirik ez beirik agiri.

Itxaropen aundia dogu *gazteongan*.

Badago, bai, txarrikeria *etxeotan*.

Boltsa biotan dago dirua, ez?

Ez dago pagorik ez gorostirik *basootan*.

Geienotan ez.

Zer erein *solootan*?

Idazleen adibide batzuk

"Santu santaren *artean* orma lodia *bitartean*." (Añibarro P. A.).

"*Haurtxoarengan* pentsatzen." (Altuna P.).

"*Iruntz ta euritan* zuritu daitezen." (Mogel J. A.).

"*Pitxar auskor ta argaletan*." (Uriarte J. A.).

"*Baiña, zorionez, asken urteotan* ezta giro txarra sortu gure izkuntza zaar onen *inguruan*." (Etxenagusia K.).

"*Betseiñetan* zirudian katua, / *bizarretan* sagua." (Mogel J. A.).

"*Andrea da barautan* / berba gurea; baiña ordirik bada-

go, / ituxurea." (Azkue E.).

"Aingeru ezkila *Lizartzan, Orixen, urren Azkaraten.*" ("Orixe").

"Zein erritan zan aztu zait." (Mirande J.).

"Esku soilez aingira uretan nork atzi?" ("Orixe").

"Illuntzerik ez duten egunetan." (Erkiaga E.).

"Erregiñearen autor-entzule *Madrillen.*" (Etxenagusia K.).

"Batzuek diote bestelako *lan txarretan* nabillela." (Larramendi M.).

"Beste doai guziak *Jaungoikoagan* arkitzen dirala, guzien iturburu eta *jabeagan* bezela." (Gerriko J. I.).

"Oso aberatsa da bestalde berboaren *itxulietan, itzetan* eta *esakeretan* ere." (Irigarai A.).

"Onen egunetan eta onen ordutan." ("Kirikiño").

"Beronegan arkituko dozuz zia eragingilleak." (Añilbarro P. A.).

"Ez deust iñoz bere *baketan* izten." (Astarloa P.).

"Lautatik *irutan* guk baiño geiago euskeraz egiten dakielako." (Azkue R. M^a).

"Pare bat *kuartillatan* sartu leitekez." (Erkiaga E.).

"Barretan egin genduan, *barretan!*" (Bilbao F.).

"Bilboko *eleizetan* batu oi direan lagunik erdiak." (Azkue R. M^a).

"Jainkoaren begia bazagok *orotan.*" ("Orixe").

"Bere baitan ezin deliberatuz." ("Axular").

"Abioi banatan." (Villasante L.).

"Liburu biotan." (Erkiaga E.).

"Bada haur beror egin bear dugu guk ere orai *arratsaldeon, zahartzeon, geure egunon akabatzeon.*" ("Axular").

"Basetxean, *kalean, arrantzuan, itxas aundian* ibilliko da mutil ori. Gero, Mexikun, Montebideon, eta Argentinan." (Erkiaga E.).

"Orregaitik, eder-miñak eragiñik sartzen bazara *baratze onetan, aren baten* ez dozu olango edertasunik aurkituko *ainbeste ta ainbeste orritan.* Parkatu...! *Beste batzuetan, ostera, arrituta* geratuko zara, zeuk uste zenduan baiño bitxi ugariago *idorotean, bai idazle zaarretan, bai gaur egunekoetan.*" (Etxenagusia K.).

"Tokitan!" (Etxaide J.).

"Baiña *guregan, giza-izkuntzan, egitea* leenik eta arkitzea urrenik." (Onaindia S.).

"*Edozein hizkuntzatan* izan naitekeen bezain hiztun garbia." (Mitxelena L.).

"Edozein haizek ahal dute / xamilka eraman / *edozein ordutan, / edozein modutan.*" (Gandiaga B.).

"*San Agustinengan* dute sustrai ageria edo izkutua gero landare luze-zabal anitzek." (Mitxelena L.).

"Bildur bat bakarra izan bear du gizonak: Jaungoikoarena. Itxaropen bat: *Jaungoikoagan.*" (Agirre Tx.).

"Aurten bauku (badaukagu) *garitan!*" (Enbeita K.).

"Barne guztia *berotan* dodala / argi biur bekiz eriotz itzala." ("Lauaxeta").

"Zure senarrarekin itz egiteko *asmotan* etorri naiz." (Loidi J. A.).

"Larogei baiño geiago omen dira *bazkaritan.*" (Agirre Tx.).

"Badakik, *mutilletan* ere, neskata gazteentzako bigunbera samarra nindukan." ("Lizardi").

"Ez dakit zein *lekutan* utzi." (Mendizabal F.).

"Praube hura da izan / *zazpi erresumatan; / bai eta ere mez'entzun / bi mila elizatan.*" ("Etxaun").

"*Lenengotan* esan eban lez." ("Otxolua").

"Migel deunaren egunean *mezatan* irakurtzen dira." (Akesolo L.).

"*Nolatan* ginen ere galdegin zidan." (Altuna P.).

"Bi liburu zaharretan bakarrik arkitzen da." (Intxausti J.).

Ariketak

1) Aztertu ZERTAN (NON-NOIZ) kasua urrengo doazan literatura-zati, kantu, bertso ta errefranetan:

"Azkarragako eztaietan Mari Batistak ipiñi zuan janari guztia iñork eztaki zenbataraiño izan zan: ogiak anegaka; barbantzok, imiñaka; urdai-lukainkak, arroaka; azatan, baratzatxo bat; ukulluko txekorrik andiena oso-osorik; arku-metan, artalde polita; oillotan, lau edo bost etxetakoak; esne ta arrautzatan, inguruko guztiak; ardo-sagardotan, errotarri bat erabiltzeko beste.

Gutxik eramango dio euskaldunari jaten edo edaten; baiña Azkarragako eztaietan danak ziran euskaldunak eta ezin geinke jakin zeñek geiago egin zuan. Gustiak bete zuten urdailla galanki, guztiak lasaitu zuten larrua ezin geiagoan, ia estanda eragin artean, baiño etzan iñor leertu. Ez, etzuten oker andirik izan: gizonen batzuk, iñoiz baiño geiago ta adiskidetasun andiagoan itz egin bearra, lenbizi; dantzan egiteko gogoia edo ezkonberrien alde itz neurtuak esan naia, urrengo; toteltasun apur bat geroxeago; zuzen ibilli eziña illunabarrean; neurriak gaiñez egitea etxerako bidean; ta lo ederra, azkenez, oia, arrapatu zutenak, oian, ta Peru Odolkik Goienetxe aldeko soro ertzean." (Agirre Tx.).

"Ipar haizeak doi-doia eragiten zien zuhaitzen hostoei. Bihotzaren garratzasuna gozatzearren, txanpan botila bat berarekin hartu eta kanpora atera ziren senar-emazteak. Herrira abiatu ziren. Zenbait odei beltz ageri zen zeru zabalean. Urrutian Zarobiko etxeetako eta ostatuetako argiak ikusten ziren. Dena isil-isilik zegoen. Biziro arin zozan merzedesa. Portuaren alde banatara zeuden farolen argia itsasoko uretan isladatzen zen. Itsasontziak, bata bestearen kontra, uhinen gainean zebiltzan. Portu aldera, bi mantxa beltz korrika, ikusi ziren. Ustekabean bezala, kotxea frenatu

zuen. Garrasi bat entzun zen. Zenbait leihotan argiak itzali ziren." (Garmendia S.).

"Uso txuria aidean,
ederragoa maiean;
zure parerik ez da arkitzen
España guztian,
ez eta Frantzian,
eguzkiaren azpian."

(Erri-kanta)

"Zelatan dagoana bere gatzen entzula."

"Olgetan asi, benetan urten."

"Sopeaz bitan, ostean sarritan."

"Hirur beharritan igaren hitz ixila, orotan lasterka dabil."

"Andrak andra andi Kandelarioetan dira agiri."

"Beti Maria goruetan bear eztiran orduetan."

"Batean goibelaldia, bestean txurialdia, ilargia bezala bizi da gure Maria."

"Errosarioa eskuan ta deabrua kolkoan."

"Astegunetan igande-erropa darabilenak, igandeetan astegunetakoa erabilli bear."

"Ontza bi tabako-orri, lau marai pipea, atan orretan doa mutilen dotea."

"Txapela buruan eta ibilli munduan."

"Edurra teillatzen, abarra basoan, taloak egiteko uruna auzoan."

"Gizon ordiaren etxean aizea franku goizean."

2) Zeaztu urrengo doazan itzok:

Erritan (Adibidez: *Erritan, errian, errietan, errion, erriotan*).

Egunetan.

Bitan (Bizigabeak eta bizidunak).

Semerengan.
Txakurrengan.
Eskolatan.

3) **Aurreko ariketa orretan jarri dozun itz bakoitzaz esaldi bat egin.**

4) Euskeratu esaldiok:

¿Qué día vais a Zamora?

Ha llovido todos los días de la semana pasada.

¿En qué iglesia habéis estado?

Hemos estado en tres iglesias.

Yo creo en Dios. Creo también en el diablo.

¿En qué periódico aparece pues?

En todos lo periódicos de las provincia, en todos.

¿Cuántas veces has estado allí? ¿Cuántas?

De pequeño solíamos ir muchas veces allí.

He ido más de una vez.

Mira, mira. ¡Juan Mari ha comprado más libros!

¡Es que aquí hay más trastos viejos!

Estoy sudando.

¿A qué hora vas a ir?

En los dos (bizidunak eta bizigabeak).

En estos dos (bizidunak eta bizigabeak).

¡Halal Vete por pan.

¿Qué haces ahí metido en el agua?

Está ardiendo.

En tres.

En los tres.

En estos tres.

En el tres (número tres).

ZERTATIK (NONDIK-NOIZTIK)

- Zeaztugabea:**
- 1) **-TATIK** (bokalez amaitzen diran itzak, *bizigabeei* dagokiozanak): *mendiTATIK, orduTATIK*.
 - 2) **-ETATIK** (kontsonantez amaitzen diran itzak, *bizigabeei* dagokiozanak): *lurrETATIK, urETATIK*.
 - 3) **-(REN)GANDIK** (bokalez amaitzen diran itzak, *bizidunei* dagokiozanak): *seme(REN)GANDIK*.
 - 4) **-ENGANDIK** (kontsonantez amaitzen diran itzak, *bizidunei* dagokiozanak): *umezurtzENGANDIK*.

- Zeaztua:**
- A) *Singularra:*
- 1) **-TIK** (*toki-izenak* diranean): *EibarTIK, LeonDIK, Ciudad RealDIK, ZaragozaTIK*, eta (bokalez amaitutako itzak, *bizigabeei* dagokiozanak): *etxeTIK, soloTIK, mendiTIK, orduTIK*.
 - 2) **-ETIK** (kontsonantez amaitzen diran itzak, *bizigabeei* dagokiozanak): *lurrETIK, itzETIK*.
 - 3) **-A(REN)GANDIK** (bokalez eta kontsonantez amaitzen diran itzak, *bizidunei* dagokiozanak): *semeA(REN)GANDIK, katuA(REN)GANDIK*.
- B) *Plurala:*
- 1) **-ETATIK** (*bizigabeei* dagokiozan itzak): *erriETATIK, kaleETATIK, elizeTATIK, itzETATIK*.
 - 2) **-ENGANDIK** (*bizidunei* dagokiozan itzak): *gizonENGANDIK, usoENGANDIK, idiENGANDIK*.

Zeaztu-zeaztua: A) *Singularra:* 1) -ONETATIK eta -ORRETATIK (*bizigabeei dagokiozanak*): etxe ORRETATIK.

2) -ONENGANDIK eta -ORRENGANDIK (*bizidunei dagokiozanak*): mutil ONENGANDIK.

B) *Plurala:* 1) -OTATIK (*bizigabeei dagokiozanak*): mendiOTATIK, erreKOTATIK.

2) -ONGANDIK (*bizidunei dagokiozanak*): emakumeONGANDIK, zaldiONGANDIK.

Oarrak

1) Ikusi, leenengo ta bein, ZERTAN kasuan jarri ditugun oarrak.

2) *Nondikoa* deitzen deutso kasu oni F. Mendizalabek; L. Villasantek, *ablativo*.

3) -TIK erabilli bearrean -RIK ere erabiltzen da. Eta oso jatorra da, gaiñera forma au: *OrduRIK ona ez dot ikusi; eskuRIK ogeitamaika euki ezkeru, jakiña, edozeiñek irabazi olan.*

4) Azken letra *n* edo *l* daben itzetan -D.K biurtzen da *TIK*: leenDIK, emenDIK, IrundIK, IsraelDIK.

5) *Toki-izenak* deklinatzean ere batasun bat bear litzake. Ain zuzen ere, *Eibartik eta Eibarretik, Burgostik eta Burgosetik eta abar* esaten eta idazten ditugu. "Decimos *Burgostik, Burgoskoa; Eibartik, Eibarkoa; Irundik, Irungoa;* mas es contra el espíritu de la lengua decir *Burgosetik, Burgosekoa, Eibarretik, Eibarrekoea...* etc." (R. M^a. de Azkue, *Morfología vasca*, Bilbao, 1923, 294. orr.).

6) -AKANDIK, -EKANDIK eta -OKANDIK erabiltzen dira bizkaieraz zeaztu pluralean eta zeaztu-zeaztu pluralean -ENGANDIK eta -ONGANDIK erabilli bearrean. Idazterakoan, batasunari begira, bigarren formok erabilli bear geunkez beti.

7) -TIK erabilli bearrean -DANIK ere erabiltzen da beste euskalki batzutan: *aspaldidanik 'aspalditik', betidanik 'betitik'.*

Adibideak

1) Zeaztugabea

Edozein dendatetik ekarten dozu jaboia ala?

Ezer aterako aal dogu guk orrengandik?

Zein kaletatik zatoz?

Ainbeste sagarretatik bat bera ere ezin ete daiket artu?

Lautatik bi artu doguz.

Ze(r) ordutatik asita zagoz emen, ba?

Oraintxe etorri da mezatatik

Zein kotxetatik artuko dot katua?

Jesukristo(ren)gandik datorku salbaziñoa.

No(ren)gandik?

Lekutatik ibilli zara!

Zein seme(ren)gandik?

Bi(ren)gandik ala iru(ren)gandik?

Erri askotatik ibilli naz.

2) Zeaztu singularra

Emen itxi dozunetik artu.

Arexen etxetik etorri gara, ba!

Ordurik (ordutik) ona zer egin dozue, ba, ainbeste ordutan?

Zerutik eta lurretik. Emendik eta andik.
Goitik eta beetik, kanpotik eta barrutik.
Jainkoaren semea(ren)gandik datorku salbaziñoa.
Goizetik zatoze gaur, ez?
Azeria(ren)gandik azerikeriak, besterik ez.
Datorren urtetik asita, Bilbora joango gara.
Basotik ekarri ditu.
Guayakildik ekarri dituela? Non dago, ba, Guayakil ori?
Bilbotik, Pagasarritik Laudioraiño joan da oiñez.

3) Zeaztu plurala

Jende asko joan da gaur basora *urietatik*.
Orko *lantegietatik* eroan ditu.
Gauza asko lortu ditut nik *nire adiskideengandik*.
Erri-basoetatik ekarten dabe egurra.
No(ren)gandik diñozu?
Zeinengandik?
Etxeetatik, errietatik, naziñoetatik..., leku guztietatik.
Bietatik ala biengandik?
Iruretatik lauretara bitartean izan ei da.
Zortziretatik asita egon zaree emen?
Oneen *gandik* ezer ere ez.
Emendik ez dira joan beintzat. Orko beeko *bideetatik* bearbada.
Zeintzuengandik?
Eldu orri *belarrietatik*.

4) Zeaztu-zeaztu singularra

Etxe onetatik ekarri dau.
Ezer aterako aal dozu *mutil orrengandik?*

Zulo orretatik atera dau.
Alaba onegandik asarrea bai, dirurik ez.

Odolosteak egiteko bear dogun odola *txarri onengandik* aterako dogu.

5) Zeaztu-zeaztu plurala

Biotatik bat.
Ala *biongandik* bat?
Basootatik ekarten dogu azpigarría.
Zure adiskideongandik edozer gauza.
Nor ibilli da *landotatik?*
Ez dogu ezer lortuko *zoroongandik*

Idazleen adibide batzuk

"Berak biurtuko dituzte *erderatik* euskerara." (Mogel J. A.).

"*Hurbildik* iragan da." (Lafitte P.).

"*Edozein puntutatik* begiratuta ere." ("Axular").

"*Bertatik bertara* begiratzea merezi du." (Mitxelena L.).

Baiña *andik ainbatetik* izan bear dau, *Indietatik*." (Arruzza M).

"*Nigandik* ate dagon mundua, noren eskuz / sartzen zait begi-oean?" (Etxaniz N.).

"*Abrahamengandik* Dabidenganaiño amalau belaunaldi dira." (Iraizoz P.).

"Orko zertzeladarik geienak *liburuotatik* jaso ditut." (Etxenagusia K.).

"*Arengandik* etorri da Gipuzkoara literatura" ("Orixe").

"*Zerutik edo Jaungoikoagandik*." (Kardaberaz A.).

"Eta orobat dio Moisesek berrogei egunean Jaungoikoa-

rekin itz egin eta *beragandik* legea eskribiturik artu zuela." (Gerriko J. I.).

"Ez berenez, ez *Jainkoagandik*, ez *Elizagandik*." (Agirre J. B.).

"Ziñatutean, lenengo kurutzea bekokian egiten dogu, Jaungoikoak librau gaizan *pentsamentu deungetarik*, *gogoraziño txarretarik*, *begitaune izugarrietarik*, *gomute*, *uste*, *asmo ta asmu gaizto zitaletarik*." (Añibarro P. A.).

"Zezen ari *adarretarik* itsatsirik." (Iztueta J. I.).

"Ateburua buruaz jo ta jausi egin jakozan arrautzak *eskuetatik*." (Zarate M.).

"Atzetik ara *burutik* bera botateko gogoz." ("Otxolua").

"Gero eta urrunago omen nago *"gutarrengandik"*. (Mixelena L.).

"*Zeugandik* datorkio, bada, / dauana; ta ez *beregandik*." ("Kerexeta").

"*Batzuetarik* besteetara eztago ezetariko alderik." ("Otxolua").

"Salduko ditut gero oillaskoak, / oillandak biurtuko dira oilloak, arrautzak *oneetatik*, / ta askora igongo dot *gitxitatik*." (Uriarte J. A.).

"Bonazaharren sartzean berean *ezkerretarik* ikusten duzu." (Barbier J.).

"Zegaitik/ez edan zure *argitik*, / bizi gaitezen *lengotik?* / Zergaitik / ez ibilli zure *eskutik...?*" (Mixelena S.).

"Berak askatuko baitu bere erria *beren pekatuetatik*." (Iraizoz P.).

"Herrian *zein ardotatik* / edaten dugun dezaten / jakin ahal..." (Gandiaga B.).

"*Bakaldunaganik* zerbait al denduta." ("Otxolua").

"Loidi aspaldiko ezaguna dut. *Haurretandik* ez gara *elkarrengandik* urruti ibili Errenterian." (Mixelena L.).

"Rikardo *Arregirengandik* berri onak jaso ditiat." ("Txillardegí").

"Hauzo bakoitzari izena lehenen *katu-arbasoengandik* datorkio." (Intxausti J.).

"Pello *eskaileretatik* behera jaitsi zen." (Garmendia S.).

"Ez ote dira *ohidura batetarik* heldu gure ustez *naturalizatik* sortzen diren kontzientziaren legeak?" (Charritton P.).

"Guraso *hauetarik* askok ez daki zertan aritzen diren beren haurrak egunean zehar." (Altuna P.).

"Deabrukeariazko burutazio bat pasatu zitzaion *burutik*." (Garmendia S.).

"*Brasildik* etorri diran *mutillongandik* ikasi dau ori." (Zarate M.).

Ariketak

1) Aztertu ZERTATIK (NONDIK-NOIZTIK) kasua urren-go doazan literatura-zati, kantu, bertso ta errefranetan:

"Gazte-gaztetatik alde egin eban Txominek etxetik, bere jaiotetxetik; Lejarrenetik.

Leenengo Tetuandik eta Kanariastik ibilli ondoren, Alemaniatik, Turkiatik, Brasildik... ibilli zan gero. Eta andik eta emendik (nork jakin zenbat lekutatik?), ainbat lurralde ezegunetatik uste askotan ibilli ta gero, bere jaioterrira etorri zan barriro ere, txiki-txikitatik maite eban bere Ekidazura.

Urteetan gurasoengandik alde eginda bizi izan arren, besoak zabalik artu eben aiek Txomin, barkutik jatsi zanean. Goizeko bostetatik asita egozan semearen zain.

Gurasoak ikustean, negar anpulu bik saltu eben Txominen begietatik. Gurasoenetatik lauek.

Portutik jantoki batera joan ziran berealaxe."
(Zarate M.).

"- Uxo mandataria:
nondik zatoz, nondik?
- Nondikan natorkizun?
Zeru-goi bertatik,
zure estura ortan
laguntzeagatik
ta eraman zaitzadan
zerura zuzenik.

- Uxo mandataria:
ez det nai besterik:
atera nazazula
estura ontatik.
O bai, arren! egizu
ainbeste nigatik:
eraman nazazula
zerura zuzenik.

- Ni aurretik naizela
atozkit atzetik.
Zerurako bidexka
ondotxo dakit nik.
Mendi santu batera
joko degu lenik,
andik egatutzeko
zerura zuzenik.

- Ai uxo gidaria:
alperrik, alperrik.
Zu egan zoazela
ezin jarraitu nik.

Ez didazu emango
beste gidaririk
mendi santu ortara
naramakeanik,
anditxek igotzeko
zerura zuzenik?

- Nun dagon mendi ori
bada dakianik.
Ara Errodrigotxo
gainbera Aloñatik.
Arek erakutsiko
neronen partetik
nondik igo zindezken
zerura zuzenik."

(Mixelena S.).

"Amurraia amutik eta arkumea larrutik."

"Txoriak goitik, ekaitza betik."

"Zalditik astora."

"Etxeak bi buruetarik su."

"Etxetik urrun, zorionetik urrun."

"Gizonari berbatik eta idiari adarretik."

"Zergaitik geratu az orren ziztrin?", itandu eutsen bera-
katzari bein. "San Martin aurretik enenduelako erein", eran-
tzun eban berakatzak."

"Aintzinetik egina, geroko egina."

"Aur eta eroengandik egia."

"Azi gaiztotik ezta frutu onik."

"Baratzetik gosea, baratzetik ase."

"Guti jatetik eta guti mintzatzetik ezta heldu gaitzik."

"Maite zaitut, baiña azaletik; ikusi nai zaitut, baiña
urrundik."

"Ortik edo emendik, dakusan legez egik."

"Pagatzaille gaiztoaganik olo."

"Zaharra ta labea ahotik berotzen."

2) Zeaztu urrengo esaldiok:

Boltsa batetik artu dau (adibidez: *Boltsa batetik artu
dau* (zeaztugabez); *boltsatik artu dau* (zeaztu singularra);

boltsetatik artu (zeaztu plurala); *boltsa onetatik artu dau* (zeaztu-zeaztu singularra); *boltsotatik artu dau* (zeaztu-zeaztu plurala).

Alaba batengandik artu dau (Adibidez: *Alaba batengandik artu dau* (zeaztugabez); *alab(e)arengandik artu dau* (zeaztu singularra); *alabengandik artu dau* (zeaztu plurala); *alaba onengandik artu dau* (zeaztu-zeaztu singularra); *alabongandik artu dau* (zeaztu-zeaztu plurala).

Eskola batetik ekarri dau.

Seme batengandik artu dau.

Erri batetik.

Gizon baltz batengandik.

Bitik.

Birengandik.

3) **Itz bakoitza artu ta esaldi bat egin.**

Irutatik.

Errietatik.

Umezurtzongandik.

Mendiotatik.

Kaletatik.

Iturritik.

Iturritatik.

Txikitatik.

Semearengandik.

Zaldiengandik.

4) **Euskeratu esaldiok:**

¿De qué fuente habéis traído el agua?

Estuvimos en su casa desde las cuatro hasta las cinco.

Vengo de mi oficina.

Trajimos de todos los sitios. De Eibar, de Burgos, de

Barcelona, de Tetuán, de Jaén, de Motril, de ...

Pocas alegrías ha recibido de sus hijos.

Tráelo de la tienda de tu tío.

Lo he cogido de tu coche rojo.

De estas habitaciones no hemos cogido nada, de esa sí.

De joven solía jugar aquí.

¿Qué has conseguido de tus amigos?

Hoy habéis venido muy pronto.

De Bilbao a Madrid hay cerca de quinientos kilómetros.

Lo hemos traído de dos fábricas.

¿De dos?

ZERTAKO (NONGO-NOIZKO)

Zeaztugabea: 1) -TAKO (bokalez amaitzen diran itzak, *bizigabeei* dagokiozanak): *erriTAKO*, *orduTAKO*, *urteTAKO*.

2) -ETAKO (kontsonantez amaitzen diran itzak, *bizigabeei* dagokiozanak): *urETAKO*, *itzETAKO*, *lurrETAKO*.

Zeaztua: A) *Singularra*: 1) -KO (toki-izenak diran itzak): *EaKO*, *EibarKO*, *IrunGO*, *IsraelGO*, eta (bokalez amaitzen diran itzak, *bizigabeei* dagokiozanak): *erriKO*, *telebisiñoKO*, *eskuKO*, *maiKO*, *etxeKO*.

2) -EKO (kontsonantez amaitzen diran itzak, *bizigabeei* dagokiozanak): *goizEKO*, *lurrEKO*, *ibarrEKO*, *zugaitzEKO*.

B) *Plurala*: -ETAKO (*bizigabeei* dagokiozanak): *itzETAKO*, *eleizETAKO*, *kaleETAKO*, *goizETAKO*.

Zeaztu-zeaztua: A) *Singularra*: -ONETAKO eta -ORRETAKO (*bizigabeei* dagokiozanak): *etxe ONETAKO*, *lur ORRETAKO*.

B) *Plurala*: -OTAKO (*bizigabeei* dagokiozanak): *soloOTAKO*, *mendiOTAKO*, *ibarrOTAKO*.

Oarrak

1) *Nongoa* deritxo F. Mendizabalek kasu oni; L. Villasantek *delimitativo*.

2) Ikusi daikegunez, ez da erabiltzen *bizidunei* dagokiozan itzetan (leenago erabiltzen ei zan). ZERTAKO kasuaren ordez ZEREN kasua artzen dabe *bizidunak* (Ikusi ZEREN kasuan jarri doguzan oarrak). ZEREN eta ZERTAKO genitibuak dira biak izatez) baiña ZERTAKO kasuaren esannai-zabalgoa estuagoa da ZEREN kasuarena baiño. “-ren es término no marcado, y por tanto de uso general; -ko es marcado, y por tanto de uso restringido.” (L. Villasante, *La declinación del vasco literario común*, 96.orr.).

3) “-KO significa ‘de’; comparte con el otro genitivo -N, -EN, el privilegio de exigir que les siga un nombre o pronombre, a diferencia de los demás sufijos de declinación o casuales que piden un verbo. -N, -EN, es genitivo que indica posesión; el genitivo -KO indica lugar o tiempo en que se contiene o pasa algo: GIZONAREN ETXEA ‘la casa (que es posesión) del hombre’; ETXEKO GIZONA ‘el hombre de (que está contenido en) casa’; ATZOKO EURIK ‘las lluvias de ayer’. -KO se permuta en -GO en casi todos los dialectos (excepto R y S), después de *n*. En B sufre igualmente esta permutación después de *l*. Tratándose de nombres comunes a los que se agrega este sufijo, éste, en lugar de la permutación, recibe la E como epentética. ORAIN, EMEN, BEASAIN por ser términos propios o no comunes exigen la permutación: ORAINGO en vez de ORAINKO ‘de ahora, para ahora’; EMENGO ‘de aquí’; BEASAINGO ‘de Beasaín’; AGIN, OSIN, por ser comunes, en lugar de la permutación exigen la interposición de E: AGINEKOA y no AGINGOA ‘lo del diente’; OSINEKOAK y no OSINGOAK ‘los del pozo’. Este sufijo se agrega a la mayor parte de los demás sufijos casuales y aun a frases, formando en uno y otro caso elegantes locuciones. Los únicos sufijos casuales que no reciben el sufijo -KO son el activo -K, el dativo -I y el inesivo -N.” (R. M^a. de Azkue, *Diccionario vasco-español-francés*, leenengo tomoa, 491.orr.).

4) Aldiari dagokion zer edo zer adierazteko erabiltzen diran itzetan espainolezko *para* edo *para cuando* esan nai

dau -KO atzizkiak: *gaurko* ‘para hoy’, *betiko* ‘para siempre’, *etorri zaneko* ‘para cuando vino’, *noizko?* ‘¿para cuando?’.

5) Gero-aldia adierazteko erabiltzen da aditzean: *artuko dot* ‘tomaré’ (‘he de tomar’, *lit.* ‘tengo de tomar’), *egingo dozu* ‘harás’. “En B y G se agrega a todos los verbos, cualquiera que sea su terminación. En los otros cuatro dialectos se valen de -EN con los verbos terminados en consonante y de -KO con los terminados en vocal: ERRANEN DU (BN, L, S), ERRAIN DU (AN), ESANGO DU (G), ESANGO DAU (B), ‘lo dirá’ (R. M^a de Azkue O.c., 492.orr.).

6) Gogan euki aurreko kasuetan jarri diran oarrak. Baita sarrerako argibideak ere.

Adibideak

1) Zeaztugabea

Iru klasetako lorak dagoz emen.

Zenbat lekutakoak?

Edozein lekutakoak.

Ainbeste erritako jendea batu zan an.

Zenbatetakoak?

Mutikotako gauzak.

Ez nekian angoa ziñanik. Lekutakoa zara!

Ainbat egunetako lana daukagu emen.

Zein eskolatakoka zarala esan dozu?

Lau koloretako jantzia.

Egun gitxitako bearra.

Leku askotako jendea.

Zein taldetakoak dan jakin bear leenengo ta bein.

2) Zeaztu singularra

Orkoa ala emengoa da ori, ba?

Nongoa zara zu? Lezamakoa ala Urdulizkoa?
 Erriko jendea dot au dana.
 Gaurko naiko lanik da.
 Atzoko ala biarko esan deutsu orrek?
 Goikoa ta bekoa, eta albokoa.
 Zerukoa ala lurrekoa?
 Debako eleizakoa.
 Beasaingo mutilok apurtu ditue etxeko kristalak.
 Batekoa edo bestekoa, bat ekarri bai, ta kitu.
 Ni eldu nazaneko an egon da.
 Betiko be ez gara ta!
 Datorren asteleneko bazkaria.

3) Zeaztu plurala

Zazpi bankuetako diruak
 Etxeetako ate guztiak.
 Zazpiretako ala zortziretako esan deutsu, ba?
 Kaleetako jendea.
 Eskoletako bankuak.
 Urietako diru-etxe dotoreak.
 Nire lurretako arto guztiak.
 Leengo asteko egun guztietako armozuak.
 Goizetako eta illuntzetako freskuran.
 Soloetako eta basoetako kolore berdeak.
 Bilboko zineetako pelikula guztiak.

4) Zeaztu-zeaztu singularra

Etxe orretako leio guztiak.
 Kale orretako dendak.
 Ordu onetako minutuak luzeak egingo jakuz.
 Etxe orretako mutillak izan dira.

5) Zeaztu-zeaztu plurala

Maiotako liburuak gora eroan bear dira.
 Eskolotakoak ere bai?
 Txatxarrak dira benetan mendiotako piñuak.
 Dendotako argiak.
 Solootako gariak.
 Nire lurrotako sagar guztiak.
 Urteotako naasteborrasteak.

Idazleen adibide batzuk

"Mendian nintzan. Bi erritako / ezkil urbillen dandara / urrenez urren." ("Orixe").

"Urte batetako haurra zen Saul." ("Axular").

"Aratzine naiz, mendi-mendiko / ixillaren ama txuri." (Arrese E.).

"Era askotako ipuiñak sartu ditut." (Etxenagusia K.).

"Aitearen egin orduko." (Zamarripa P.).

"Horiek orok dute gizona gizontzen, gizona eginez halako edo holako, horko edo hemengo." (Charritton P.).

"Zarobitarrak gizon ziren, beste edonongo gizonak bezain gizon." (Garmendia S.).

"Ango burruka-auskak ta apurtzea alkar!" (Zabala J. M.).

"Bermioko uriko kolegioko misionariak uri onetako euskerara biurtuak." (Uriarte J. A.).

"Emen aspaldiko Txomin!" ("Kirikiño").

"Iru erritara joan zan, ta euretariko eleizetako kanpaiak gogo beroz jo ebazan." (Bustintza E.).

"Au da eskolako umeetan beti ikusi dodan." (Mogel J. J.).

"Ango daunbadak!" (Zamarripa P.).

"Lehenik, fabrika txikietako nagusiak igo ziren, Seat 600-etan. Geroxeago berriz, itsasontzietako zenbait nagusi, Seat 1500-etan." (Garmendia S.).

"Inguruko hauzo batzutako zenbait jakintsuk ontzat eman zuen." (Intxausti J.).

"Erri bateko kanpaetzat / eztau bere parerik." (Barrutia P.).

"Berbetea imini dot *neure errikoa*." (Madariaga B.).

"Garratzago negar egiten eban, amar miñuturen barruan iru erritako kanpaiak jotea gatxa be gatxa izango zala ta." (Bustintza E.).

"Nafarroako Artxiboan eta Iruñeko Apezgaitegiko liburutegian daude." (Etxenagusia K.).

"Hango oihuak, hango harramantza esposak agertu zitzaizkunean!" (Saint-Pierre J.).

"Hi hintzen nausi eta behar arau emaiten hinaukun nori ostiko, nori mazelako, nori ukumilako!" (Lafitte P.).

"Jaioterri- maitasuna, bi eratakoa izan daiteke: hobeto esan, bi eratan ager daiteke." (Mitxelena L.).

"Zein taldetakoa den." (Mitxelena L.).

"Gaztetako oitura onak gero ere jarraitu egiten dute." (Mendizabal F.).

"Etxe osoa bete ditek marruz, iskanbillaz ta *dunbateko* gaitzez." ("Lizardi").

"Beerengo maillan." (Onaindia S.).

"Laster bukatuko dugu *gaurkoa*." (Satrustegi J. M.).

"Baxe Nabarreko seme, *Elizako* artzain, *Eskual Herriko* olerkari." (Haritschelhar J.).

"Ta ango zarata ta ango eztarria apurtu bearrak." (Bilbao F.).

"Bai, zereko barrua!" ("Otxolua").

"Asti egunetako janari ona." (Agirre Tx.).

"Ikastola berriotako andereñoek ez dituzte aintzat eta ontzat artzen." (Zarate M.).

"Pierre d' Urte, a principios del siglo XVIII, decía *Uzta-*

rizko, Londresko, Parisa, 'a París' y Paristik 'de París'." (Azkue R.M.).

"Nik egindakoa da ori." (Azkue R. M.).

Ariketak

1) Aztertu ZERTAKO (NONGO-NOIZKO) kasua urrengo doazan literatura-zati, kantu, bertso ta errefranetan:

"Jatorriz erritarrak diran etxadiak ezizen ori antxiñatetik daroe, ta etxadiko danak ezizen bategaz ezagutuak izaten dira. Aitari Talotxu esaten badeutsee, semea Talotxuren semea da, andrea Talotxuren andrea, alabea Talotxuren alabea; geiago bearrik eztago. Iñoiz bateo arrian abadeak ipiñiriko izena ondo esaten bajako norbaiti, gurasoen ezizena izango da izengoitia. Talotxuren semeari ezarritako izena Joane bada, Joane Talotxu esango jako.

Kanpoko errietatik Arranondora datorren etxadiak an dauka bere izengaiztoa ogeitalau ordu barru, ta eztau geiago beragandik kenduko. Zeiñek ipiñi deutsa? Iñok eztau ori garbiro jakiten. Edo mutiko batek etorri barriaren semeari ikastetxean, edo arrantzale batek senarrari elizpean, edo emakume batek emazteari enparantzán. Zergaitik? Edozer gauzagaitik. Edo lodi eder guria, edo argal mee zatarra dalako, apaindua edo prakazaarduna, azkarra edo baratxa, argitsua edo argigabea, olango edo alango irabazbidekoa, orko edo ango baserri edo uritik etorritakoa. Multixuari deitu badeutsee leenengo Prakazaar, etxadiko buruari Prakazaarren aita esango jako; andreaki esan badeutsee Moñoker, Moñokerren senarra. Leenengo ezizena ezarri jakonak emoten deutsa gero etxadi guztiari.

Arranondokoen belarriak ain dagoz onetara egiñak eze, batzuk, euren benetako izena zelan dan be eztakie; norbait ezagutu dot bere aitarena gogoratu eziñik; aitaitarena gixtik jakiten dau.

Badakit albistari-zabaltzaillea ibilli dala iñoiz eskutitz bat zeñentzakoa zan ezin argitaraturik. Sr. D. Julián Iragorri eukan eztalkian, eta Julian Iragorri zein zan ezekian

iñok. Atso-agure guztiai itandu jakuen, eta atso-agureak etzala, esan eben, erritarra izango. Azkenean, apaiz nagusiari eskerrak, agertu zan eskutitzaren jabea. Zein izango ta Saguzaarra deituten jakon gizontxu bat zan.

- "Orixe be bada ipuiña- esan ei eban orduan Artoberok -, Saguzaarrari Don Julian asmau ei deutse!"

(Agirre Tx.).

"Bideetako harriak, egin karraxi!
herri barruko zuhaitz zikinduak,
kaiolaketako txori marrantatuak,
señoriten zakur perfumatuak,
ibaletako ur apartsuak,
egin karraxi!; egin, bai, karraxi!

Libertaderik gabeko gizonak,
nagusiak esplotatutakoak,
diru-truke saldutako fulanak,
zer-esanaren bildur zeratenak,
jaio baino lehen enterratuak,
egin karraxi!; egin, bai, karraxi!

Inoren menpe zaudeten arrazak,
fusilen bildur zeraten herriak,
hautatzerik ez dezuten nazioak,
propagandak burua antzutatutakoak,
goserik hiltzen zauden guztiak,
egin karraxi!; egin, bai, karraxi!"

(Lekuona J.).

"Abenduko laiñoa, euria edo egoa."

"Andra Maria martiko, artean uda tatiko, andik aurrera betiko."

"Errena, ate-buruko arrana."

"Santa Katalina noiz da? Besigutako goiz da."

"Arratiako zekorra, txikia baiña gogorra."

"Nongoa aiz? Joan ta bertakoa."

"Aiz aiz orri, aterritako aizeak egingo deutsu argi."

"Eguerdiko euria, egun guztiko euria."

"Etxeko anderea nongo, gure aideak ango."

"Eztuk gure mutikoa zazpi etxetako herrian galduko."

"Uribarriko ura bein edaten dauanak berriz ere gura."

"San Juanetako euriak kentzen du ogia eta eztu ematen ardoa."

"Anbotoko beleak Anbotora nai."

"Bat, bi, iru, lau, amar, amalau: aitak saldu nau, amak erosi nau, Beasaingo alkate zaarrak preso sartu nau."

2) Zeaztu urrengo doazen itzok eta esaldiak egin gero:

Zertako.

Iturritako.

Lurretako.

Goizetako.

Itzetako.

Lekutako.

Bitako.

Elizatako.

Izkuntzatako.

Eskutako.

Millatako.

3) Euskeratu esaldiok:

¿De qué pueblo es esta gente?

¿De dónde eres tú? ¿De Gatika o de Gamiz?

Aquí hay andereños de siete escuelas.

Vestido de tres colores.

Uno era de Israel, el otro de Brasil.

¿Para cuándo hemos de hacer esto?

Para mañana.

Son muy bonitos los dibujos que aparecen en estos libros.

¿De qué fuente es esta agua?

De la fuente de Iturrigorri.

Depende de que grupo sea.

Son de ahí y de aquí.

Entraron en primer lugar los dueños de las pequeñas empresas.

Gente de todos los lugares.

¿Para qué hora te ha dicho que vendrá?

Ese es de mi pueblo.

Estuvimos en el ayuntamiento de Irún.

Allí había gente de muchos sitios.

Son imágenes de las siete iglesias.

ZERTARA

(NORA-NOIZERA)

Zeaztugabea: 1) -TARA (bokalez amaitzen diran itzak, *bizigabeei dagokiozanak*): *mendiTARA, orduTARA*.

2) -ETARA (kontsonantez amaitzen diran itzak, *bizigabeei dagokiozanak*): *lurrETARA, urETARA*.

3) -(REN)GANA (bokalez amaitzen diran itzak, *bizidunei dagokiozanak*): *seme(REN)GANA, neska(REN)GANA*.

4) -ENGANA (kontsonantez amaitzen diran itzak, *bizidunei dagokiozanak*): *umezurtzENGANA, artzENGANA*.

Zeaztua: A) *Singularra*: 1) -RA (bokalez amaitzen diran itzak, *bizigabeei dagokiozanak*): *ZamudioRA, etxeRA*.

2) -ERA (kontsonantez amaitzen diran itzak, *bizigabeei dagokiozanak*): *UrdulizERA, lurrERA, goizERA, egunERA*.

3) -A(REN)GANA (bokalez eta kontsonantez amaitzen diran itzak, *bizidunei dagokiozanak*): *gizonA(REN)GANA, semeA(REN)GANA, zaldia(REN)GANA*.

B) *Plurala*: 1) -ETARA (*bizigabeei dagokiozan itzak*): *erriETARA, soloETARA, basoETARA, orduETARA*.

2) -ENGANA (*bizidunei dagokiozan itzak*): *gizonENGANA, usoENGANA, oilloENGANA*.

Zeaztu-zeaztua: A) *Singularra:* 1) -ONETARA eta -ORRETARA (*bizigabeei dagokiozanak*): etxe ONETARA, lur ORRETARA

2) -ONENGANA eta ORRENGANA (*bizidunei dagokiozanak*): mutil ORRENGANA.

B) *Plurala:* 1) -OTARA (*bizigabeei dagokiozanak*): mendiOTARA, erreOTARA, soloOTARA.

2) -ONGANA (*bizidunei dagokiozanak*): emakumeONGANA, idiONGANA, gizonONGANA.

Oarrak

1) Kasu oni *norakoa* deitzen deutso F. Mendizabalek, *directivo L Villasantek*.

2) Kasu onetan sartuko ditugu ZERTARANTZ eta ZERTARAIÑO kasuei dagokiezan adibide batzuk ere, ZERTAN kasuari beste atzizki bat jarritz sorturiko kasuak diralako. Ikusi ZERTAN kasuan jarri ditugun oarrak.

3) Zeaztu singularrean, -ERA barik -A erabiltzen da Bizkaitik kanpora leku batzutan, toki-izenekaz darabillean. Ain zuzen ere, berez, izatez, R ori otsaringarri bat baiño besterik ez da. Forma jatorrak dira, ba, berez, Zarautza 'Zarautzera', Madrilla 'Madrillera', Parisa 'Parisera', eta abar. Eta jator darabil Lizarragak, esate baterako, Nazareta *itzulirik* diñonean. Baiña "se oye tal vez en más comarcas Nazaretera" (R M^a. de Azkue, *Morfología vasca*, 297 orr. n.). "Lo castizo sería (según Salvador Garmendia) no intercalar dicha e y decir: *Lurdesa, Zarautza, Eibarra*; pero fuerza es confesar que está muy extendido el uso contrario: *Madrillera, Zarautzera, Eibarrera*." (L. Villasante, O.c., 66. orr.).

4) -RAIÑO erabili bearrean ARTE erabiltzen da denpora edo aldiari dagokion zer edo zer adierazteko: *Gero arte* edo

gerora arte, ikusi arte, urrengora arte, astelenera arte, noiz arte?, eta abar. Baiña -RAIÑO eta ARTE nastaurik, oker erabiltzen doguz batzutan, eta *Lezamariño* esan bearrean *Lezamara arte, etxeraiño* esan bearrean *etxera arte*, ta abar idazten ditugu. Jakiña, espainolez hasta erabiltzen da bietara, bereizkuntzarik gabe, ta ori ere naaste-bide bat izan daiteke euskaldunentzat.

Ona emen noiz -RAIÑO eta noiz ARTE zuzen erabiltzeko argibide bat: Toki-itzekin -RAIÑO erabiltzen da, eta aldi-itzekin ARTE, *noraiño?* eta *noiz arte?* galderei dagokienez: *Bilboraiño, orraiño, etxeraiño, Eibarreraiño, goraiño; gaur arte, atzora arte, datorren urtera arte, emon arte, goizera arte, Gabonetara arte*.

5) -RANTZ erabili bearrean -RANTZA, -RUNTZ, -RONTZ, -RAT eta abar erabiltzen dira. Baiña euskera baturantz jo badagigu, bat artu bear: -RANTZ.

6) Gogoan artu aurreko kasuetan jarritako oarrak.

Adibideak

1) Zeaztugabea

Zein menditarantz zoaze biar, ba?

Edozein tabernatarata sartu gaitkez ala?

Ainbat zinetara joan izan naz; baiña olakorik ez dot iñoiz ikusi.

Zein plaiatarata joango gara?

Edozertara egitea uste dozu ori ala?

Bai, edozein modutara.

Lekutara joan zaree!

Lekutaraiño joan zaree!

Goazen gerizpetara.

Eguzkitara joan ezkeru pozik zu beti.

Or aurrean ezkerretara artu.
Uretara jausi zan.
Etxe bitara sartu gara.
Zazpi etxetara ez dozu esan, ba?
Ezin dot askatu ezertara ere.
Era askotara egin zeinke ori.
Bestetara obeto.
Zein seme(ren)gana zoaz?
Ainbeste gizonengana ni ez noa.
Zaiñetarantz?
Zeiñetaraíño?
Edozein neska(ren)gana joatea uste dozu alan ala?
Amaika neskatilla(ren)gana joan da ori baiña, alperrik!

2) Zeaztu singularra

Nora zoaz, basora ala tabernara?
Errira noa bai, ta kitu.
Pedro(ren)gana joan zan.
Emaztea(ren) gana doa.
Goizetik gauera.
Deriora ala Sondikara?
Nora edo ara, zoaz nonbaitera.
Gora edo beera, atzera edo aurrera, batera edo bestera.
Aita(ren)gana edo ama(ren)gana, bardin da.
Semea(ren)ganantz joan zan orduan.
Lezamaraiño noa.
Zergaitik bota dozu lurrera?
Noraiño esan dozu? Brasileraiño?

3) Zeaztu plurala

Zazpi tabernetara joan gara; baiña ez da iñon ere agiri.
Corengo kaleetaraiño joan gara.
Baserrietarantz datoz orain uritarrak.
Barraketara goaz datorren domekan.
Zoaz or dagozen neskatillengana.
Ez orain ezin dot, gautu baiño leen zaldiengana joan bear dot.
Bere soloetarantz etorri zan.
Jende asko joaten da mendietara jai egunetan.
Ameriketara noa.
Ez gara sartu orko dendetara.
Sartu ere egin aal dira etxeetara?
Semeengana joan da Nikolasa.
Bere adiskideengana urreratu zan orduan.
Orko eskoletarantz.
Ango ateetaraiño.

4) Zeaztu-zeaztu singularra

Mutil orrenganaiño noa.
Ez zaitetz bei orrengantz joan.
Eleiza onetara ez naiz sekula sartu.
Zertarako sartu etxe orretara?
Zoaz, ia, neska orrengana.
Kokolo onengana zertarako?
Mendi punta orrataraíño joan gara.

5) Zeaztu-zeaztu plurala

Ez zaitetz etorri txakurronganantz.
Mendiotarantz goaz.
Goazen orko dendotaraiño.

Nongoetaraiño?

Banator semeongana.

Zaldienganaiño eldu zanean nekatuta egoan.

Bazatuz solootara?

Gustora joango nintzake lanean lantegiotara.

Idazleen adibide batzuk

"Aditz bat bada gure euskera onetan bitara ulertzen dana" ("Kirikiño").

"Iru erritara joan zan." (Bustintza E.).

"Danak ermitara joateko gertu, mezatarara." ("Kirikiño").

"Ezeban ezetara be goruetan egin gura." (Bilbao F.).

"Biñan-biñan datorkez onantz, Ardibaso zoragarriantz." (Erkiaga E.).

"Arrapataka jantzi ta bizkor kalerantz." ("Kirikiño").

"Egunetik egunera, / gau luzetik gau luzera." (Mirande J.).

"Begiak jasorik bere Aitagana." ("Orixe").

"Zeurekin noa / mugako porturantz / gauzak argi dagozan/ erri askaturantz." (Gandiaga B.).

"Era askotako ipuiñak sartu ditut, ta ainbat modutara batutakoak." (Etxenagusia K.).

"Prantziatik datorkiguz Euskalerriraiño." (Erkiaga E.).

"Ni ere ez noake zuengana." ("Orixe").

"Kafea artu ondoren, Kristianengana joan eta biak jostatuta dira." (Altuna P.).

"Zubiak beharko dira Laukatuetatik Hirukatueta." (In-txausti J.).

"Benetara ala olgetara dinozu? (Zarate M.).

"Lekutara doa Pedro!" (Zamarripa P.).

"Igaz Italiara joanak dira; aurtan Espaiñiara omen doaz

eta datorren urtean Zueziara." (Altuna P.).

"Onantz ekarri." (Zabala J. M.).

"Atara aizetara geure izkera maite au". (Altube S.).

"Ara inguruetara begi luzez begiratzuz." (Bustintza E.).

"Nora edo ara aldendu zakidaz." ("Otxolua").

"Oi, Bidazti Deuna, sar zaite neurera." ("Lauaxeta").

"Goazen lotara." (Zamarripa P.).

"Ibaia aski sakona bait zen, itsasontziak herriraiño, barrurairaiño sartzen ziren." (Garmendia S.).

"Bere odol guztia dabilko itxaso aserratu bateko olatuen gizan, batera eta bestera, eta ezin barruan egonik, urtetan deutsa kanpora, bustiten deutzaz bere soiñekoak eta jaus-ten da lurrera tantaka-tantaka." (Uriarte J. A.).

"Bergara edo Zumarragarairaiño joateko." (Agirre Tx.).

"Zabaletakoak etxiran ainbeste ardotara emanak." (Agirre Tx.).

"Gauza guzien gaiñerairaiño igan oi den olioia." (Mendiburu S.).

"Samatik erraietarairaiño." (Mogel J. A.).

"Bietara zerbait egin banaiz ere, geiago Bizkaiko euskerara". (Mogel J. A.).

"Odei bat joian Bermeo gaiñeko Soillubetik beera itxasorantz." (Azkue R. M.).

"Markiñako umea, surrak garbituten ikasi daianeko, eroan pelotatokira; Berrituko umea, palanka ondora; Onadarroako umea, txalupara." (Azkue R. M.).

"Txapela ta jakea itxulietara jantzi, praka barrenak toloztu ta jaso ia belaunetarairaiño." ("Kirikiño").

"Iru emakume bertorantz etozala ikusi ebazan." ("Le-goaldi").

Ariketak

1) Aztertu ZERTARA (NORA-NOIZERA) kasua urrengo

doazan literatura-zati, kantu, bertso ta errefranetan:

"Aldi atan jente beartsuak oiñez egiten zituezan euren ibilketak, luzeak izan arren; eta Gastela-mutil areek Españaako baztar guztietara zabaltzen ziran alantxe, oiñez, eta etorri be bai. Euren erremintak eta aldatzeko soñekoak olezko kutxetan, sarrail-itsu bateaz itxita, aurreztik bialtzen zituezan Gastelara, mandazaiñen bitartez.

Orduko aldian, salgairik geinak mandoz erabilten ziran batetik bestera, burdiz eroateko bitzabal gitxi egoalako; ta mandoekaz ebiltzan gizonak mandazaiña eben izena; ta euren bitartez, urrin-urriñeko urietara bialtzen ziran gauzak. Adibidez: Durangon mutil batzuk emoten eutseezan mandazaiñai iru edo lau kutxa, esanik eroateko Zaragozara ta onelako edo orrelako ostatuan izteko; mandazain areek joaten ziran Durangotik Haroraiño, eta an beste mandazain batzuei emoten eutseezan mutillen kutxak, eta areek eroaten zituezan Tudela edo Tarazonaraiño, eta an, beste mandazain batzuen eskuetan izten zituezan kutxak, eta azkenengo areek eroaten zituezan Zaragozako ostaturaiño. Ostaturajabeak artzen zituan eta giltzapean ipiñi, mutillak eldu arte; orduan, kutxa gaiñeko markak zeintzuk ziran eskatu ta gero emoten eutsezan. Orretaraxe bialtzen ziran gauzak orduan, eta etziran galtzen..., ez ei ziran galtzen."

("Kirikiño")

"Lepoan hartu ta segi aurrera.
Gazte bat lurrean aurkitu dugu
lore gorritz beterik kolkoa.
Burdinen artetik ihesi dator
euskal gaztediaren oihua.
Mutilak, eskuak elkar gurutza,
ekin ta bultza
denak batera.
Bidean anaia erortzen bazaik
lepoan hartu ta segi aurrera."

(Erri-kanta barria)

"Axea nora, kapea ara."

"Larrak gitxitara lekarke."

"Direanak direanegiño."

"Santu guzien egunetik Eguberrietara aize ta euri gutxi, lekak ganbarara."

"Neu illezkero medikua atetara."

"Goazen beste errira, an bere txakurrak ortozik dira."

"Xakurra fidel askeneraiño, emaztea beste aldiraiño."

"Kea mendira, usotxoa tokira, mutikotxoa eskolara, neskatotxoa dotriñara, amandrea elizara, aita jauna tabernara."

"Nire pozak pozura ames zoroen modura."

"Begiak noraiño, naia araiño."

"Eguzkia joan da bere amagana, etorriko da biar denpora ona bada."

"Ara bertan ezerez, azak bai, koiperik ez."

2) Zeaztu urrengo esaldiok:

Gizon batenganantz joan zan.

Etxe batera joan zan.

Or aurrean dagoan erri bateraiño joan gara.

Kale estu ilun batera.

Gizon ezezagun batenganantz.

3) Euskeratu esaldiok:

¿A qué fuente habéis ido?

¿Lo dices en serio o en bromas?

Hemos ido a las siete tabernas.

¿A siete tabernas?

¿A cuáles?

Fué donde una chavala.

Se marchó donde su esposa.

¿Hasta qué monte habéis ido?
 Hemos ido a Barcelona y Cádiz.
 Vamos hasta Brasil.
 Los aldeanos van a las ciudades.
 Vamos a estas huertas.
 No quiero que entres en esas tiendas.
 Mañana vamos hacia los montes de Navarra.
 Hasta mañana.
 Hasta bilbao.
 Hasta las dos.
 Hasta qué hora?
 Hacia dos (bizidunak eta bizigabeak).

EUSKAL DEKLINABIDEAREN PARADIGMAK

1) Zeaztugabea

Izen deklinabidea				
Kasuak	B. a.	K. a.		
ZER	∅	∅		
ZERK	-K	-EK		
ZERI	-RI	-(ER)I		
ZERIK	-RIK	-IK		
ZEREN	-REN	-EN		
ZEGAZ	-GAZ	-EGAZ		
ZEREKIN	-REKIN	-EKIN		
ZEREZ	-Z	-EZ		

Toki edo aldi deklinabidea				
Kasuak	Bizigabeak		Bizidunak	
	B. a.	K. a.	B. a.	K. a.
ZERTAN NON-NOIZ	-TAN	-ETAN	-(REN)GAN	-E(N)GAN
ZERTATIK NONDIK-NOIZTIK	-TATIK	-ETATIK	-(REN)GANDIK	-ENGANDIK
ZERTAKO NONGO-NOIZKO	-TAKO	-ETAKO	-	-
ZERTARA NORA-NOIZERA	-TARA	-ETARA	-(REN)GANA	-ENGANA
ZERTARANTZ NORANTZ	-TARANTZ	-ETARANTZ	-(REN)GANANTZ	-ENGANANTZ
ZERTARAIÑO NORAIÑO	-TARAIÑO	-ETARAIÑO	-(REN)GANAIÑO	-ENGANAIÑO

2) Zeaztua

Izen deklinabidea		
Kasuak	Singularra	Plurala
ZER	-A	-AK
ZERK	-AK	EK (AK)
ZERI	-ARI	EI (AI)
ZEREN	-AREN	-EN
ZEGAZ	-AGAZ	-EKAZ
ZEREKIN	-AREKIN	-EKIN
ZEREZ	AZ	-EZ

Toki edo aldi deklinabidea				
Kasuak	Birigabeak		Biridunak	
	Singularra	Plurala	Singularra	Plurala
ZERTAN NON-NOIZ	-(E)(A)N	-ETAN	A(REN)GAN	-ENGAN
ZERTATIK NONDIK-NOIZTIK	-(E)TIK	-ETATIK	-A(REN)GANDIK	-ENGANDIK
ZERTAKO NONGO-NOIZKO	-(E)KO	-ETAKO		
ZERTARA NORA-NOIZERA	-(E)RA	-ETARA	-A(REN)GANA	-ENGANA
ZERTARANTZ NORANTZ	-(E)RANTZ	-ETARANTZ	-A(REN)GANANTZ	-ENGANANTZ
ZERTARAIÑO NORAIÑO	-(E)RAIÑO	-ETARAIÑO	-A(REN)GANAIÑO	-ENGANAIÑO

3) Zeaztu-zeartua

Izen deklinabidea		
Kasuak	Singularra	Plurala
ZER	-AU -ORI	-OK
ZERK	-ONEK -ORREK	-OK
ZERI	-ON(ER)I -ORR(ER)I	-OI
ZEREN	-ONEN -ORREN	-ON
ZEGAZ	-ONEGAZ -ORREGAZ	-OKAZ
ZEREKIN	-ONEKIN -ORREKIN	-OKIN
ZEREZ		-OZ

Toki edo aldi deklinabidea				
Kasuak	Bizigabeak		Bizidunak	
	Singularra	Plurala	Singularra	Plurala
ZERTAN NON-NOIZ	-ONETAN -ORRETAN -ON	-OTAN	-ONENGAN -ORRENGAN	-ONGAN
ZERTATIK NONDIK-NOIZTIK	-ONETATIK -ORRETATIK	-OTATIK	-ONENGANDIK -ORRENGANDIK	-ONGANDIK
ZERTAKO NONGO-NOIZKO	-ONETAKO -ORRETAKO	-OTAKO		
ZERTARA NORA-NOIZERA	-ONETARA -ORRETARA	-OTARA	-ONENGANA -ORRENGANA	-ONGANA
ZERTARANTZ NORANTZ	-ONETARANTZ -ORRETARANTZ	-OTARANTZ	-ONENGANANTZ -ORRENGANANTZ	-ONGANANTZ
ZERTARAIÑO NORAIÑO	-ONETARAIÑO -ORRETARAIÑO	-OTARAIÑO	-ONENGANAIÑO -ORRENGANAIÑO	-ONGANAIÑO

BIBLIOGRAFIA

1) Deklinabideari buruzkoa:

Azkue Resurrección María, *Morfología vasca*, Bilbao, 1923.

Altube Seber, *Observaciones al tratado de "Morfología vasca" de R. M. de Azkue*, Bermeo, 1934.

Lafitte Pierre, *Grammaire basque*, Baiona, 1962.

Omaetxebarria Inazio, *Declinación vasca en "Euskera"*, Bilbao, 1962, 29. orr eta abar.

Mendizabal Fernando, *Euskaldunentzat gramatika euskeraz*, Oñate, 1969.

"Larresoro", *Sustrai bila*, Donostia, 1970.

Lehen urratsak, Zarautz, 1971.

Villasante Luis, *La declinación del vasco literario comun*, Oñate, 1972.

"Larresoro", *Éuskara batua zertan den*, Oñate, 1974.

2) Idazleen adibideei buruzkoa:

Etxenagusia Karmelo, *Euskal Idazleen Lorategia*, Donostia, 1969.

Zarate Mikel, *Bizkaiko euskal idazleak*, Bilbao, 1970.

"Erakasle", *Euskal alorretik...*, Ikas, 1970.

Basauri Serafin eta San Martin Juan, *Hegatsez*, Zarautz, 1971.

Onaindia Santi, *Milla euskal olerki eder*, Amorebieta, 1954.

AURKIBIDEA

ITZAURREA	9
SARRERA	11
Euskal deklinabidearen ezaugarri batzuk	12
Euskal deklinabidekerak	14
Deklinabidekera zeaztugabea	17
Deklinabidekera zeaztua	22
ZER	27
ZERK	37
ZERI	47
ZERIK	57
ZEREN	65
ZEGAZ (ZEREKIN)	75
ZEREZ	85
ZERTAN (ZION-NON)	97
ZERTATIK (NONDIK NOIZTIK)	109
ZERTAKO (NONGO-NOIZKO)	121
ZERTARA (NORA-NOIZERA)	131
EUSKAL DEKLINABIDEAREN PARADIGMAK	141
BIBLIOGRAFIA	144
AURKIBIDEA	145

LABYRU-IRASTEGIA
BIBLIOTEKA - DERIO

Sarr 19.389/91

Gaia.

Tokia.

LEOPOLDO ZUGAZA, EDITOR
DURANGO

- Iñaki Gorroño* — Experiencia Cooperativa
en el País Vasco.
- Mikel Zarate* — Euskal deklinabidea.
- Angel Goenaga* — Uts: la negatividad vasca.
(en prensa)
- Mikel Zarate* — Ipuin antzeko alegi min-
gotsak.
- Jorge G. Aranguren* — Huida bajo un paisaje de
lluvia. (en prensa)
- Santiago Aizarna* — La mujer de Lot. (en pren-
sa)